BERTOL ARRIETA

ALTER ERO

Bertol Arrieta

Alter ero

narratiba Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 2012 Bertol Arrieta
© edizio honena: Susa
cc-by-nc-sa Creative Commons Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin
http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 2012ko iraila
Edizio hau: 2012ko iraila

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Nobela bat idazle baten bizitza sekretua da,
gizon baten anaia biki iluna.

WILLIAM FAULKNER

By-pass

Willyri,
ipuin hau idazteko
iparrorratza eman zidalako

Ilea moztera joatea erabaki nuen. Zer egin nezakeen bestela? Hiru orduko ebakuntza izango zela azaldu zidaten, ezin nezakeela ezer egin ospitalean, ondo etorriko zitzaidala aire freskoa.

– Esku onetan dago zure aita –esan zidan medikuak.

Ez nengoen taberna-zuloan sartuta egoteko umorez, ezta paseatzeko ere, eta zorte pixka batekin bakea aurkituko nuen ile-apaindegian, solasaldi entretenigarri bat akaso. Aspalditik nenbilen, gainera, nire ilaje zarpaila atontzeko asmoz; ezin, baina. Aita, lana, alaba, emaztea... Lehentasunen zerrenda luzea neukan, txima kontuei kasu egiten hasterako.

Ezagutzen ez nuen auzunean bizpahiru buelta emanda topatu nuen bila nenbilena: *Peluquería Satur-*

no. Izenak konfiantza askorik ematen ez zidan arren, barrura jo nuen bitan pentsatu gabe.

Ez zegoen txanda eskatu beharrik han. Hiru besaulki hautsa pilatzen, ispilu luze banaren aurrean. Mahaitxo bat, ETAren bezperako atentatuaren berri ematen zuten egunkariz josita, inguruan lau aulki huts zituela, eta bosgarrenean, berrogeitaka urteko gizon bat, pelukeroa nonbait, txutxu-mutxuen aldizkari bat irakurtzen. Gogaitu antzera zuzendu zitzaidan, aldizkaria albo batera utzita, eta besaulkian esertzeko agindu zidan lehor.

– Eta? –galdetu zidan ispilutik barrena, oihala jartzeaz bat. Begi arraro samarrak zituen; ematen zuen margotuta zituela. Edo betazal oso luzeak zeuzkan.

– Pixka bat txukundu –esan nion, belarri atzeko ileak seinalatuz.

– Beharko –erantzun zidan erdeinuz.

Han bukatu zen elkarrizketa. Ilea mozten ari zitzaidala, ez zidan ispilutik begiratu ere egin, ez ondo ari ote zen galdetu, ez gehixeago edo gutxixeago moztea nahi ote nuen; sudur puntan jarri zitzaiona egin zuen, eta nik ez nuen eragozteko nahikoa indar bildu. Guraizeen klisk eta klask artean, elkarri begira jarritako bi ispiluk sortutako infinitu txikian lausotu zitzaidan

gogoa, eta aita oroitu nuen ezinbestean, sukaldeko mahaian jarrita, oso aspaldikoa izanagatik besteak bezalakoa zen gau arrunt batean. Boligrafo zabar bat hartu eta kiniela egiten ari zen afalostean, amak platerak eta edalontziak erretiratu eta papurrak biltzen zituen bitartean. Harritu egin nintzen gomuta hura etorri zitzaidalako. Ez zen estimu bereziz gordetako oroitzapen bat. Banituen politagoak, eta baita ilunagoak ere, baina pentsamendu xume hura izan nuen: aita, etxeko sukaldean, kiniela egiten.

Artisten irizpideak jarraitzen zituela esan ohi zuen. Lehen hamahiru lerroetan batekoa jarriko zuen eta hamalaugarrenean bikoa, adibidez. Edo bat, ixa, bi, bat, ixa, bi, bat, ixa, bi eskema jarraituko zuen hurrenean, “diagonalen magia” bilatzen. Ixa, bi, bi, bi, ixa, bat, bat, bat, ixa, bi, bi, bi eta honelakoak ere atsegin zituen. Ez zidan graziarik egiten metodoak, tonto samarra ere bazen, baina inoiz ez nion buelta askorik eman kontuari. Nire anaia gaztea, ordea, aztoratu egiten zen aitaren modu harekin. Futbol zalea zen Koldo, eta alferrik jokatutako apustua iruditzen zitzaion, tentuz egiten baitzituen berak kinielak, talde bakoitzaren unean uneko egoera aztertuta: aurreko jardunaldiko emaitzak, talde baten eta bestearen bajak, entrena-

tzaile aldaketak... Eta, hala ere, gehiago asmatzen zituen aitak eskuarki. Horrek amorratzen zuen anaia. Hutsalkeriak ziren niretzat ika-mika haiek, eta horrexegatik harritu ninduen kinielei buruzko akorduak, noiz eta aitari bihotz-ebakuntza egiten zioten bitartean.

– By-pass bat jarri behar dizugu –esan zion medikuak, bularreko min handia zuela-eta ospitalera joan ginen hartan, beharrezko azterketa eta analisiak egin eta gero. Kopeta zimurtu zuen aitak–. Bihotzera doan arteria bat buxatuta daukazu. Ordezko bide bat sortuko dugu buxatuta duzun zatian, odola arazorik gabe iris dadin bihotzera. Ebakuntza oso ohikoa da.

– Ez du ezer entenditzen –bota zuen amak aldamenetik.

– Ama, mesedez... –ohartarazi nion.

Aita baino zaharragoa izan arren, biziagoa zen ama, nerbio hutsa; airean hartzen zituen denak. Aita, berriz, moteldu antzera zegoen ordurako, eta ez zuen ondo entzuten, nahiz eta belarritako aparatua zeraman. Nahi zuena entzuten zuela esan ohi zuen amak, komeni zitzaiona.

– Aita –esan nion hitzak mantso ahoskatuz–, Txindokira joateko atzeko bidea sastrakak hartuta egoten zenean, zer egiten zenuten zuek?

– Zer?

– Txindokira. Sastrakak hartuta zegoen bidea. Gogoratzen?

– Sasiak hartuta?

– Zer egiten zenuten bidea sasiak hartuta zegoenean?

– Garbitu.

– Alferrik zabiltza, Jon –eten zidan amak.

Entzungor egin nuen:

– Eta garbitu ezin zenean?

– Ezin zenean?

– Bai. Sekulako sasiak hartzen zuenean bidea.

– Sekulako sastraka zenean? Bidea aldamenetik egin.

– Horixe egingo dizute, aita. Bihotzera doan bide bat sasiak hartuta daukazu –poliki ebaki nituen hitzak–. Ordezko bidea irekiko dizute.

Pentsakor geratu zen. Amak ezetz egiten zuen buruarekin, aitak ezer ulertzeko esperantza galduta.

– *Bidetxior* bat bihotzera? –bota zuen aitak ustekabean.

Irribarre egin zuen medikuak. Bide-zidor bat bihotzera, horixe zen dena. Ez zen, bada, azaltzeko hain zaila.

Ondo irten zen ebakuntza itxuraz, eta segituan bidali zuten etxera. Egunean hamaika pastilla hartu beharko zituen, odola mehetzekoak barne.

– Gainerakoan bizitza normala egin dezakezu. Dieta zaindu beharko duzu, noski. Eta oinez ibili, ahal duzun sarrien.

Berandu eta nekatuta iritsi nintzen ebakuntzaren gau hartan etxera. Giltzak sarrailan sartzearekin batera aditu nuen emaztea, “badator aita!” esaka, baina Maddiren korrikaldia nire besoetara iritsi aurretik eten zen. Azken urratsa nik egin behar izan nuen, ikaratu antzera begiratzen zidan hiru urteko alaba besoetan hartzeko. Nire aurpegia aurrez aurre izan arte ez zuen besarkada erabat onartu. Afaltzen ari ginela ere, artean, behetik gora begiratzen zidan mesfidati, arrotza banintz bezala.

– Ez eman bi buelta kontuari. Ez du merezi –esan zidan emazteak oheratutakoan–. Baina ez itzuli sekula santan ile-apaindegi horretara.

Handik hilabete eta erdira hil zitzaigun aita. Segituan buxatu zen by-passa, edo hori izan zen behintzat esan zigutena, eta akabo. Espero baino hobeto eraman nuen, hala eta guztiz. Ez negarrik, ez burukominik, ez depresiorik, ez ezer. Lo ere ondo egin nuen gau hartan. Azken hilabeteetako ospitalerako joan-etorri ugari haietan dolurako bidea egiten aritu izan banintz bezala. Ama ni bezain fuerte antzeman nuen. Dramarik gabe eman zigun berri txarra telefonoz, eta ez zitzaion lutoz egun gehiegi egoteko intentziorik sumatu. Koldo lehenbailehen etortzea, horrek soilik kezkatzen zuen.

– Zure anaia hori... –esan zidan marmarka beilatokian, izeba Juanita agurtu ondoren, biok bakarrik geratu ginenean.

– Biharko etorriko dela agindu dizu.

– Biharko, biharko... –erretxinduta zegoen.

– Hemen izango da hiletarako. Badakizu nola ibiltzen den, alde batetik bestera, gaur Madrilen, bihar Sevillan. Ez du lanbide erraza.

– Aita hil da, Jon! Aitzakia merkeagorik! Ni hiltzen naizenean ere...

– Ama!

Beilatokiko arduraduna sartu zen.

– Barkatu, itxi beharra daukagu.

Amak eserita jarraitzen zuen, bere baitan bilduta.

Aitaren gorpura hurbildu nintzen. Hilkutxan zetzan kristalaren beste aldean, traje dotoreenarekin, eskuak zilbor gainean jarrita. Beiratean zegoen orban nabariezin batek desbideratu zuen nire arreta une batez. Eltxo txiki bat zen. Eskuarekin uxatzen saiatu nintzen, baina hantxe gelditu zen, kieto: kristalaren beste aldean zegoen.

Zurbil zegoen aita, baina ez zuen itxura txarrik. Lotan zirudien, hilik bainoago. Makillaje lan onak egiten zituzten, zalantzarik gabe, leku hartan. Ospitalean zerraldo ikusi nuenean, are argalagoa eta zurbilagoa iruditu zitzaidan.

Beilatokiko arduraduna agertu zen bat-batean aitaren hilkutxaren ondoan, eta egundoko sustoa eman zidan; kristalaren alde hura hildakoentzat –eta eltxoentzat– soilik erreserbatuta egotea espero banu bezala. Hilkutxa ixteko baimena eskatu zidan keinu nabariezin batekin. Bazuen abilidadea kontu delikatuak hitzik gabe adierazteko.

– Ama –deitu nion–, ixtera doa.

Beilatokiko arduraduna apur bat apartatu zen hilkutxatik, eta lurrera begira jarri zen, besoak luzatuta,

esku batez besteari eutsiz. Amari zerbait esan behar niokeela pentsatu nuen, baina ez zitzaidan zentzuzko ezer bururatu.

– Goazen, ama –esan nion azkenean, sorbaldatik helduta, eta gelatik irten ginen, arduraduna hilkutxa ixten utzita.

Iluntzen hasita zegoen beilatokiko parkingera jaitsi ginenean. Hamabost bat kotxe, parking ez oso handian. Ustez nirea lagatako lekura hurbildu, baina falta zela ohartu nintzen. Beste nonbait utzia izango nuela pentsatu nuen hasieran, desorientatuta nenbilela lur azpiko paraje monotonoan, zementuzko horma eta habeen artean galduta. Txikia da parkinga, pisu bakarrekoa. Ziur nengoen hantxe bertan utzi nuela, baina ez zegoen kotxearen arrastorik. Badaezpada buelta osoa eman nion aparkalekuari, ama une oro begi-bistan nuela.

– Kotxea lapurtu didatela uste dut –esan nion.

– Hemen lapurtu? Bai zera!

– Zu zauden tokian bertan laga dut eguerdian.

– Seguru al zaude?

– Bai, ama! Hementxe utzi dut –altxatu nuen ahotsa, nahi gabe– eta orain ez dago!

– Horixe behar genuen...

Sakelakoa atera nuen.

– Zertan ari zara?

– Taxi bati deitu beharko diogu ba...

Zain geundela, beste itzulinguru bat egin nuen, badaezpada, baina alferrik.

– Zertan lan egiten du zure anaiaren emazte horrek? –galdetu zidan amak taxian abiatu orduko. Auskalo zer pentsatzen ari zen.

– Martak?

– Marta izena al du?

– Saltzailea dela uste dut.

– Eta zer saltzen du?

– Fabrika bateko saltzaileen sailean ari da.

– Ez al didazu esan behar zer saltzen duten?

– Ez dakit zehazki, ama. Bernizak eta horrelakoak. Bihar galdetuko diozu Koldori.

– Etortzen baldin bada.

– Ama...

Sakelakoa atera nuen.

– Izaskun, ni naiz... Ondo, ondo... Kontutxo bat: kotxea lapurtu didatela uste dut... Bai, beilatokiko par-

kingetik... Bai, bai... Amari lagunduko diot aurrena, taxian goaz... Ondo dago, bai... Lasai egon, berandutu egingo zait-eta... Maddi hor al dago? Utzi, utzi, berdin dio... Ados. Eta zu, zer moduz?... Bai, ondo nago. Musu bat. Ez egon nire zain.

– Eta? –galdetu zidan amak.

– Ertzainetara joango naiz.

– Lagunduko dizut.

– Zerbait jan behar zenuke. Eta lo pixka bat egin. Nekatuta zaude. Bihar egun luzea...

– Nahi duzun bezala, nahi duzun bezala.

Tinbrea jo behar izan nuen polizia-etxearen sarreran, atea ireki ziezadaten. Barruan, itxarongela batera eraman ninduen ertzain uniformedun batek.

– Oraintxe artatuko zaitugu –esan zidan euskara nahiko aldrebesean.

Itxarongela hotzean ez zegoen beste inor. Gelaren alde banatan, elkarri lotutako plastiko gogorreko lau aulki; sabaian, kamera bat, zer gerta ere; horman zintzilik, Ibarretxeren argazki bat, irribarretsu, ikurrinaren ondoan; bestean, istripu baten argazkia eta gainean letra handietan 112 zenbakia, telefono baten iru-

diaren ondoan. Ordu laurden pasatxo egon behar izan nuen zain.

– Venga conmigo, por favor –esan zidan azkenean ertzain batek.

Bulego antzeko batera eraman ninduen. Ez posterrik, ez landarerik, ez argazkirik. Sabaian kamera bat. Mahai gainean batere paperik ez; ordenagailu bat eta telefono bat. Datuak hartu zizkidan gaztelera batuan, teklatuari bi hatzekin sakatuz.

– Esadazu zer gertatu zaizun.

– Beilatokian pasa dut arratsalde osoa.

– Non? –moztu zidan.

– Beilatokian.

– Ezagunen bat?

– Aita.

– Sentitzen dut.

– Eskerrik asko.

Isilune deseroso baten ondoren zerbait idatzi zuen ordenagailuan. Bukatzeko zain egon nintzen.

– Arratsalde osoan egon naiz beilatokian, amarekin. Eta autoaren bila joan garenean, orain dela gutxi, zortziak pasatxo-edo, autoa ez zegoen utzitako lekuan.

– Beilatokiko parkingean?

– Hori da.

– Ziur al zaude beilatokiko parkingean utzi duzula autoa?

– Bai.

– Ziur zaude? Ez iezadazu gaizki ulertu. Egoera hauetan...

– Ziur nago.

– Eta ziur al zaude parkingean ez dagoela? Agian lekuz nahastu zara... Ondo begiratu al duzu?

– Bi aldiz eman diot buelta osoa, eta ezer ez.

– Erabat ziur zaude? –galdetu zidan, ¿está usted *totalmente* seguro?

Azkenerako, zalantzan jarri ninduen guztiz ziur egon behar horrek:

– Baietz esango nuke...

– Konforme –onartu zuen ertzainak orduan, eta kotxeko datuak eskatu zizkidan: matrikula, kolorea, marka–. Parte emango dugu oraintxe bertan.

Elkar agurtu eta sarrerako aterantz hurbildu nintzen. Harrerako ertzain emakumezkoak botoiari sakatu zion atea ireki ahal izan nezan. Atzera egin eta komunera joateko baimena eskatu nion, ordea.

– Hor eskuinean, itxarongelaren aldamenean.

Zuri-grisak ziren komun ezin aseptikoagoren baldosa, pixatoki eta ateak. Gorotz-tokira jo nuen. Ez zegoen espero bezain garbia: eserlekuan, iletxo bat bazen, eta komun-zuloan, besteren baten arrastoak ere bai.

– Ez da parte onekoa! –esango luke gure aitak.

Sekulako garrantzia ematen zion komunen txukuntasunari. Ez garbitasuna neurrigabeki maite zuelako –berdin-berdin egingo zituen egin beharrekoak lau hilabetean garbitu gabeko zulorik zikinenean ere–, komunaren egoerak lekuaren kalitatearekin zerikusi zuzena zuen uste osoa zeukalako baizik. Ezkontza-bazkaria egitekoak ginenean ere hala esan zidan, menuaren aukeraketarekin genbiltzala:

– Begiratu al dituzue komunak?

– Aita... –esan nion, eta kalitatearen berme guztiak zituen jatetxea hautatu genuela azaltzen saiatu nintzen.

– Hik begiratu komunak –agindu zidan–. Zer fundamentu egingo dute komun zikineko jatetxe baten sukaldean.

Ez zen erraz etsitzekoa gizona.

Hesteak libratu nituen, eserlekua paperaz ondo igurtzi ostean. Ate ezin zuriagoak ematen zuen tokia-

ren tamaina; ez zuloak behintzat. Luma atera nuen paparreko poltsikotik. Komun-zulo hark ez zuen hain ate garbirik merezi. Buruan nerabiltzan hainbat lema –*Dirua doan!*, *Gora Euskadi ataskatuta!*, *Brokolia denontzat!*–, baina tapa kendu orduko damutu zitzaidan asmoa. Ez al ziren han ere kamera zelatariak izango? Kotxerik gabe eta isunarekin etxera itzultzea, besterik ez nuen behar! Sabaira begiratu nuen. Komunetan ezin daiteke kamerarik jarri, pentsatu nuen. Komunetan ezin liteke kamerarik ipini, zuzendu nuen neure burua, baina polizia-etxeko komunetan? Edonork bonba bat utz zezakeen bertan... Sartzean ez nindu-ten erregistratu, ezta metal detektagailutik pasarazi ere... Ala bai? Zelatatua nintzeneko sentipenarekin garbitu nuen ipurdia.

Kanporako bidea hartu nuenean, telefonoz ari zen datuak-eta hartu zizkidan ertzaina. Atea erdi irekita zeukan, baina garbi aditu ahal izan nion putasemeari:

– Nik al dakit, ba? Akaso bere aita izan da...! –eta barre txiki bat azkenean.

Beste taxi bat eskatu bezain laster deitu nion Izaskuni.

– Bai, jarri dut salaketa... Berehala. Taxiaren zain nago. Ez, ez... Ez dut goserik.

Taxian sartu nintzenean, ordea, beilatokira joatea otu zitzaidan. Azken begiratu bat eman behar niokeela deliberatu nuen. Badaezpada ere. Mezu baten burrunbak atera ninduen nire burutazioetatik. Sakelakoa atera nuen. Abiada bizian zihoan taxia, farolak eta zuhaitzak atzean utziz. Anaia zen: “Enauk iritsko iletarko. Moldtuko aiz zta? Barkazak”. Bere dei galdu bat ere banuen. Halakoxe estiloa zeukan: koldarrarena. Nirekin hitz egiten saiatu zela adierazi nahi zidan dei galdu harekin, eta hartu ez nionez mezu bat bidali behar izan zidala. Ondo ezagutzen nuen; banekien nolakoak ziren nirekin hitz egiteko bere ahaleginak: txirrin bakar bateko dei galduak.

Taxian bertan jaitsi ginen beilatokiko parkingera. Ilunpetan, parking ia hutsa erakusten zuten autoaren argi hori kolorekoek. Porlanezko habeek eta haien itzal luzeek santutegi itxura ematen zioten lekuari, puntarik gabeko piramide zapal baten oinarria bailitzan. Eta hildakoak gainean...

Zur eta lur geratu nintzen: hantxe zegoen, eguerdian utzi nuen toki berean. Taxilariari zor niona ordaindu eta nire kotxean sartu nintzen. Agudo alde

egin zuen taxiak, argiekin zementuzko horma eta habeetan itzal mugikorrak barreiatuz. Leku ospel hartatik ihes izutuan zihoala zirudien. Konturatzerako, bakar-bakarrik nengoen iluntasun bete hartan, arnasa-hotsik gabeko hilerri moduko haren isiltasun erabatekoan. Goian izango zen aitaren gorpua, bere traje dotoreenarekin, eskuak zilbor gainean bilduta, bihotzerako bide-zidor guztiak sasiak hartuta.

– Sevilla - Real Sociedad, batekoa? –haserretu zitzaion Koldo aitari beste behin–. 32 jardunalditan ez du galdu, eta benetan uste duzu liga esku-eskura daukanean galduko duela?!

– Hala tokatzen duk... Begira ezak zer diagonal polita...

Azken hamar urteetan bota ez nituen malko guztiak erori zitzaizkidan beilatokiko barrunbean, burua makur, bolanteari esku biez helduta.

Martxan jarri nuen autoa, gasolina bukatu arte gidatzen ibiltzeko asmo egoskorrarekin. Kotxe barruan geratuko nintzen, gauaren gerizpean, egunsentira arte. Polizia-etxera joan beharra neukan, ordea, azaldu zela esatera, arrazoi zutela onartzera.

Bista izan nuen autoa polizia-etxe ondoan ez aparkatzen, partea emana izango zuten-eta ordurako. Ho-

rixe behar genuen, ertzainek pentsatzea bonba-auto bat uzten ari nintzela beren muturren aurrean! Hiru kale harantzago aparkatu eta oinez egin nuen polizia-etxerakoa. Datuak hartu zizkidan putasemearen erdeinuzko begirada jasan behar izan nuen noski, baina kito, egin nuen egin beharrekoa.

Izaskun ohean zegoen, erdi-lo, etxera iritsi nintzenerako. Hamaika eta erdiak baziren.

– Kaixo, maitea –esan nion, masailean musu emanez.

– Non ibili zara? –xuxurlatu zuen, amets artetik itzulita bezala.

– Azaldu da kotxea.

Bekainak zimurtu zituen.

– Beilatokiko parkingean bertan zegoen.

Burua altxatu eta begiak irekitzen ahalegindu zen, arropak eranzteko piztu behar izan nuen argi txikiarekin deseroso.

– Zer moduz Maddi? –galdetu nion, alkandora erantzi bitartean.

Burukoan erortzen utzi zuen burua, eta bizkarra eman zidan tutik ere esan gabe.

– Bihar goizean neuk eramango dut ikastolara, bale? –esan nion, oheratzearekin bat.

Ez dakit zer erantzun zidan, ametsetik errealitatetik baino gehiago zuten hitz ulertezin batzuekin. Eta nire besoez bildu nuen bere gorputza, koala ume batek bere amari heltzen dion modu berean.

Ordezko atezainaren balada

1

– Gutun bat daukazu, Errusiako Eskubaloi Federaziokoa.

Presaka ireki zuen Sergei Ivanovek.

– Berri txarrak? –asmatu zuen Annak. Ondo ezagutzen zuen senarrari begi eta begi artean zimur gisa itsasten zitzaion kezka-marka hori.

– Pavel hil da.

– Pavel Vorobiov? –galdetu zion, harraskan garbitu berri zituen eskuak trapu zahar batez lehortu bitartean.

– Etzi da hileta. Federazioak ordainduko digu hotela.

– Eta hegaldia ez?

– Norberaren kontura.

– Norberaren kontura! –errepikatu zuen Sergeiren emazteak, haserrea disimulatu ezinik. Sutan jarri zuen zartagina–. Sobietar Batasunaren garaian ez ziren horrelakoak gertatzen.

Sergeik ez zion entzun; beste nonbait zeukan gogoa. Bera hil zela imajinatzen ari zen, eta Pavel zela gutun hura jasotzen zuena, edo Alexandre edo Andrei edo Valeri, bere taldekide kuttunak. Eta estatu-gizon bat bailitzan lurperatuko zuketela pentsatu zuen. Sobietar Batasunaren garaian bai behintzat; gaur egun, auskalo. Baina izenburu arranditsuak jarriko zituzketen egunkarietan, hori ziur. “Atearen magoa hil da” edo “Agur mito handiari” edo...

– Joango al zara? –galdetu zion emazteak, erantzuna jakingo ez balu bezala–. Geratuko naiz ni haurrekin.

– Joan egingo naiz, bai. Vladimir zaharrarengatik bada ere...

2

Hamburgen elurra ari zuen aireratu zirenean. Ez zuen imajinatu nahi Moskun egingo zuen hotza. Han goitik eder zekusan hiria, andregaiz jantzita. Ezezagun baten edertasuna zuen, ordea. Arrotza zitzaion, azken lau urteak bertan zeramatzan arren. Atzerria izaten jarraitzen zuen, nahiz eta atzerria zen bere moduko no-

maden aberri bakarra. Azkar asko egokitu izan ziren Hungariako edo Errumaniako bizimoldera; are, baita Frantziakora ere. Alemanian, aldiz, ez ziren inoiz etxean sentitu. Bizitzaren komeriak: eskubaloiaren prostituzioak eskubaloiaren erreinu handienera eraman zuenean, ez zegoen gustura.

– Autografo bat sinatuko didazu, mesedez?

Hamalau urteko mutil koskor bat zen, gerrikoak askatzeko baimena eman bezain laster –diiing– gerturatu zitzaiona.

– Nola duzu izena? –galdetu zion Sergeik amultsuki.

– Nikolai.

Eta makina bat aldiz egin bezala, hari ere *nire lagun Nikolairentzat* jarri zion *Die Welt* egunkariari lapurtutako paper-zatian.

Mutikoa bere jarlekura itzultzen hasi zenean, *Nikolai!*, deitu zion Sergeik. Paveli buruz galdetu nahi zion. Ea ba al zekien nor zen Pavel, Pavel Vorobiov, horixe jakin nahi zuen.

– Boligrafoa ahaztu duzu –esan zion azkenean. Nola jakingo zuen, ba?

Irribarre egin zuen Nikolai gazteak, eta aitarengana itzuli zen, Sergei handiaren autografoa erakustera.

Leihatilatik urdin ikusten zen zerua. Azpian zeuden, alfonbra iletsu gisa, hodei beltzak.

3

Tipo ona zen Pavel, pentsatu zuen Sergeik jarri berri zuten aire girotuaren aho-muturra ixten zuen bitartean, tipo berezia. Hiriz hiri, herrialdez herrialde ibiltzen zirenean-eta, Pavel eta Vladimir masajista izaten ziren hiria bisitatzen bakarrak. Karta-jokoan edo xakean edo geratzen ziren gainontzeko taldekideak, hoteletik irten ere egin gabe. Aldiz, arte-museoak ikusi zale zen Pavel, liburu bat izaten zuen beti aldean, bizpahiru egunkari irakurtzen zituen. *Diferentea* zen, horixe zen hitza.

Biak atezainak izaki, logela konpartitzen zuten, selekzioarekin harantz eta honantz ibiltzen ziren bakoitzean, eta harreman estua egin zuten azkenerako. Ez berez hartarako prestasuna izan zutelako, munduko hainbat hoteletan behin eta berriz elkarrekin egokitu zirelako baizik. Bilatu gabeko adiskidetasuna izan zen eurena, baina ez horratik txikiagoa. Eta, hala ere, sekula ez Pavelek Vladimirrekin zeukanaren adinakoa.

Inoiz Pavel oroitzen bazuen, Vladimirren aldamenean gogoratzen zuen beti.

Seulgo hartan bezala. Ohikoak ziren Vladimirren lo aurreko bisitak euren gelan, hain ziren lagun minak, eta baita gustura hartu ere Sergeik, selekzioko gatza eta piperra baitzen masajista. Gizonik lehorrena ere dantzan jartzen zuen! Zenbat gau gogoangarri haren istorioen magalean... Txikitan egindako deabrukeriaren bat edo auskalo zein emakume puskari eman *behar* izan zion masajea edo... Gutxirekin jartzen zituen barrez inguruko guztiak. Bere eztei-bidaiako kontuak izan ziren orduko hartan.

Iaroslavl-eko hotel xume batean hartu zuten ostatu Vladimirrek eta emazteak eztei-bidaian. Hotela ez omen zen etxafuegoak botatzeko modukoa, baina garbia eta txukuna bai. Ezkonberrien irribarre tonto harekin sartu omen ziren bertara, elkarri laztanak egiten eta belarrira kontu txikiak xuxurlatzen. “Telefonoak jo zian bat-batean! Hura sustoa! Izango zituan goizeko ordu biak. Leher eginda eta lo geundean emaztea eta biok ordurako, oheari armiarma-sare guztiak astintzen ibilita, badakizue”, zioen Vladimirrek bere hitzak barre ozen berezi harekin tartekatuz, “Telefonoa hartu nuenean, hura sorpresa!, neskatxa baten

ahots ezti batek *lotarako* lagunik ez ote nuen behar galdetu ez zidan ba...! Eta ez zuan hori izan onena. Eskegi eta ordu laurdenera beste neskatila batek deitu zian, berriz lo hartzear geundela, eta handik gutxira beste batek, eta beste batek... Telefonoa deskonektatzea erabaki genuen arte, ez zen bakerik izan! Hiriko putetxe ofiziala omen zuan hotela. Emaztea ere *gaueko langile* bat zela pentsatu zitean!". Horrelako hitzak erabiltzen zituen Vladimirrek: gaueko langileak, ohearri armiarma-sareak astindu... Kontalari aparta zen.

Irribarre egin zuen Sergeik, Vladimirren eta Pavelen bozkarioak oroimenera ekarriz. Ondo pasa zuten Seulen. Giro bikaina zuten taldean, eta antzeman egin zen jokoan ere. "Nola laburbilduko zenituzke Seulgo olinpiar jokoak?", galdetu zion Moskuko *Nezavisimaia* egunkariko kazetari batek, lepotik zintzilik urrezko domina zutela Koreatik bueltatu zirenean. "Ahaztezinak", erantzun zuen Sergeik.

– Kaferik, jauna?

Kafea nahi zuen Sergeik, bai.

– Hutsa, mesedez.

Aldameneko emakumeak, ez. Liburu bat irakurtzen ari zen buru-belarri, sudurra letren artean galduta.

Eskubaloi Federazioak urrezko domina ospatzeko egindako afariaren ostea ere gogoratzen zuen. Topa egitera etorri zitzaion oker-oker, baso bete vodka eskuan hartuta. Sorbaldatik heldu eta “munduko atezain onenaren omenez!”, oihukatu zuen Pavelek. Ez zion Sergeiri inoiz herrarik izan, kirol-ibilbidea berearen itzalean geratuagatik.

Kafea hurrupatu zuen. Ez zegoen ez beltza ez beroa. Hegazkinetako ajeak: kafea ere ezin ona egin. Alaia zen berez Pavel, baina baita arras sentibera ere. Ikusia zuen negarrez behin baino gehiagotan. Seulen bertan, esaterako. Nadina Svelinenska ari zen jardunean barra asimetrikoetan, brontzezko domina lortzeko borrokan. Pavel, Sergei eta eskubaloi-selekzioko gainontzeko kideak herri olinpiarrean zeuden, bazkalosteko lo-kuluxka egiten teorian, partida baitzeukaten arratsaldean. Esna zeuden, ordea, Pavel eta biak: partida aurreko tentsio-puntu horrek loak hartzea galarazten ziolako, Sergei; telebistari kateatuta zegoelako, Pavel. Adi zegoen irudiei begira, eta ahuspez etzanda, eskuen gainean kokotsa, ohe-ertzean zegoen telebistatik metro eskasera aurpegia. Nadina Svelinenska. Siberia aldeko neskatila beltzarana, txinatar tankerako begi beltz txikiak zituena. Noiz edo noiz,

herri olinpiarrean, gosaltzen ikusi izan zuela pentsatu zuen orduan Sergeik. Gogoratzeko modukoa zen haren begirada berezia. Bikain ari zen gora eta behera, behetik berriz gora, barra batetik bestera.

– Utziko didazu pasatzen, mesedez? –gogo txarrez kuzkurtu zituen Sergeik zangoak. Hegazkinak ez zeuden hankaluzeentzat pentsatuak.

Eta erori egin zen bat-batean, Nadina. Hain ederki ari zen... Koltxoiaren gainean geratu zen gajoa, eserita, erori zen modu berean. Uve bat egiten zuten lurrean bere zango mehe eta luzeek. Aurpegira eraman zituen eskuak Pavelek. “Kartetan jolastu nahi?”, sartu zen orduantxe Vladimir gelara. “Erori egin al da?”, galdetu zion Sergeik Paveli, gertatu zena ikustea eragotzi zion masajista gizajoa gelatik biraoka bota ondoren. Pavelek ez zion erantzun. Isilik zirauen, gelan bera bakarrik balego bezala. Munduko telebista guztiek erakutsi zuten Nadinaren adreiluzko begirada hura. Ez zuen malkorik isuri. Begiak kliskatu zituen, txinatar erako begi txiki haiek, hiru bider kliskatu zituen, lauzpabost segundoko tarte amaigabea utziz aldi bakoitzetik bestera, eta lurretik jaiki eta aldageletarako bidea hartu zuen ikusleen txaloen artean. Hamalau urte izango zituen orduan.

– Barkatu –esan zion bueltan zetorren emakumeak, berriz ere zangoak uzkurtzera behartuz.

Nadina Svelinenskak eta Pavel Ivanovek hurrengo olinpiar jokoetan egin zuten topo berriz. Bartzelonako herri olinpiarrean bertan ezkondu zituen auskalo nondik ekarritako apaiz ortodoxo batek. Oraindik gordeta zeukan Sergeik *La Vanguardia* egunkariko paperzatia: “Ezkontza, herri olinpiarrean”. Irribarretsu ageri ziren biak argazkian: Pavel Nadinari begira, eta Nadina, hain eder... Nadinaren jaioterrira joan ziren bizitzera, Siberiako herrixka galdu batera, eta betirako eten zuten euren kirol-ibilbidea.

4

– Pavel!

Burua jiratu eta ikusi nindunean ez zuen zirkinik egin. Egunero ikusiko banindu bezala. Azken aldiz elkar ikusi genuenetik zazpi urte igaro ez balira legez. Vodka txar hari beste trago bat eman, eta barraren parean zeuden apaletara itzuli zuen begiratua. Popovka, Russkoe Dobro, Moskovskaja. Izen handiak, baina etxeko vodka petral bera botila guztietan.

– Popovka bat –sartu nuen hanka hala ere, benetakoa izango zutela sinetsita.

Leninek haserre antzera begiratzen ninduen Pavelen atzean zegoen hormatik. Eskuineko horman, Gorbatxov adeitsuago bat ageri zen irribarretsu, Hego Amerikako mapa gorria idien tankeran suz markatuta kopeta gainean. Hitz erdirik esan gabe atera zidan edatekoa tabernari burusoilak. Pavelena eta biona kobratzeko eskatu nion. Moskuko jatetxe luxuzkoenen prezioan kobratu zidan putaseme hark, berrehun biztanletik gora izango ez zituen Siberiako bazter galdu hartan. Hilabeteko irabaziak egingo zituen nirekin...

– Zer moduz hago? –galdetu nion Paveli, erantzuna jakina zen arren, baina elkarrizketa bideratzeko asmo onenarekin. Ez genituen alferrik egin 800 kilometro baino gehiago emazteak eta biok, gure eztei-bidaian...

– Sergei zaharra... –esan zidan burua niregana jiratuz, baina bere buruari esan izan balio bezala.

Zahartua zegoen oso. Bi ardi galdu ziren bere begiak. Pavel gizajoa. Non zegoen eztei-eguneko argazkiko gizon irribarretsu hura? Zer egin zuten harekin?

– Jarri beste bi –esan zion tabernariari, biok basoa ondo beteta geneukan arren. Trago bakarrean hustu

zuen berea gero, eta nire kaskezurretik oraindik desagerrarazi ezin izan dudan irribarre ezin ospelagoa eskaini zidan, eskua sorbaldan jarrita–. Sergei zaharra...

5

Aurreko eserlekuaren atzealdeko poltsatxotik larrialdietarako paper plastifikatua hartu zuen Sergeik. Aire girotuaren aho-muturra ireki eta itxi, ireki eta itxi, ireki eta berriz ixtera jolastu zen. Azalean zisne beltz hura zeukan liburua irakurtzen jarraitzen zuen alboko emakumeak. Noiz ekarriko zuten jateko zerbait? Argi horia pizten bada, lotu gerrikoa eta jarri zuzen besaulkia. Ireki eta itxi, ireki eta itxi.

Ezkondu zenean bai, pentsatu zuen Sergeik. Ez hegazkinik ez ezer. Autoa hartu eta segi. 5.000 kilometro egingo zituzten gutxi jota emazteak eta biek hilabete hartan. Sartu zitzaion kaskoan emazteari, Leninen odola baino gorriagoa baitzen, Sobietar Batasuna izan zenaren hiri garrantzitsuenak bisitatu behar zituztela, eta akabo. Esaiok zerbait. Han abiatu ziren uztailaren 3 hartan, autoa trastez beteta, lesio bat *lagun*

ia mirariz lortutako hilabeteko oporrak aprobetxatzera. Ez ziren damutuko, ez horixe.

Diiiiing. Turbulentziak, berriz. Gerrikoa estutu zuen. Entzuna zeukan norbait geratua zela elbarri, turbulentzia gogor batzuen eraginez buruarekin hegazkinaren sabaia jota. Patuaren alukeriak.

Pavel bisitatzearena buruan izan zuen bidaiaren plangintza egin zuten unetik, baina emazteari ez zion ezer esan Tomsk-era iritsi arte. Dena zen eragozpen hasieran: 800 kilometro urrundu beharko zutela pentsatutako bidetik, errepideak egoera eskasean egongo zirela... Nahikoa izan zen, ordea, urtebete lehenagotik gordeta zeukan egunkari-zatia erakustea.

Turbulentzien amaiera iragarri bezain pronto atera zuen diru-zorrotik Vladimir lagunak gutun batekin bidali zion egunkari-zatia. Dobla-dobla izateagatik tinta ere gastatuta zeukan tolesturetan, baina arazorik gabe irakur zitekeen. *Hilik aurkitu dute Nadina Svelinenska gimnasta-ohia*, zioen izenburuak. Hamar lerro eskaseko prentsa-oharra zekarren. Pavelen emaztea zela aipatzen zen, eta Bartzelonako olinpiar jokoetan elkar ezagutu eta herri olinpiarrean bertan ezkondu zirela. Argazkia ere bazetorren, 92an egunkari gehienetan argitaratu zen hura bera: ezkontzarena. Irribarre-

tsu ageri ziren biak. *Nadina Svelinenska eta Pavel Vorobiov, ezkondu ziren egunean*, irakur zitekeen oinoharrean.

6

Moskun, 1997ko apirilaren 8an

Sergei adiskidea:

Zer moduz habil? Ondo, ezta? Periodikoak leitu besterik ez zagok horretaz jabetzeko. Arrakastaz arrakasta zabiltzate, motel! Eutsi, eutsi horri, ahal den bitartean behintzat.

Berri txarrekin natorkik, Sergei. Barkatuko didak zuzenean harira joatea, baina kontua ez zagok itzulinguruka ibiltzeko. Dagoeneko ikusiko huen gutun honekin bidaltzen diadan egunkari-zatia. Bai, Sergei, ez duk gaizki ikusi; Nadina hil zaiguk. Ez zakiat hemengo egunkaririk jasotzen duzuen Errumanian, eta jakinaren gainean jarri nahi hindudan badaezpada. Batez ere, Pavelengatik.

Elkarrengandik ia hiru mila kilometrora gauden arren, tartean-tartean idazten zioagu elkarri. Hemen ez gaudek sosak telefono-deietan gastatzeko mo-

duan, Sergei. Asko aldatu dituk gauzak Sobietar Batasuneko garaietatik, eta ez onera preseski. Lehen goserik ez genian pasatzen behintzat, eta orain... Ez hadila itzuli, behar-beharrezkoa ez bada.

Esan diat, gutun bidez izaten diagu elkarren berri Pavelek eta biok, baina herenegun telefonoz deitu zidaan. Berri oso onak edo oso txarrak, pentsatu nian segituan, baina bere ahotsak ez zian zalantza izpirik uzten. Asaldatuta zegoan. “Nadina hil zaidak, Nadina hil zaidak”, errepikatzen zidaan behin eta berriz.

Nik ordurako banekian bera eta Nadina haurdun gelditu nahian zebiltzala aspaldidanik. Lau urte bai niri Pavelek aipatu zidala... Denetarik egin omen zitean, baina ezin. Hileko irregularrak zitian nonbait Nadinak. Hiru eta lau hilabete egoten zuan hilekorik gabe, eta bosgarrenean etortzen zitzaioan igual, gutxien espero zuenean. Sobietar Batasunaren garaietan gimnastei nerabezaroa luzatzeko ematen zizkieten pilulei egozten ziean Pavelek errua.

Jaso nuen bere azken gutunean petrikilo batengana zihoazela kontatzen zidaan, hark konponduko omen zitian euren problemak. Itxaropentsu zeudela iruditu zitzaidaan. Gero ez zakiat zer gertatu zen. Gauzak ez zituan espero bezala atera. Urtebete baino

gehiago egin omen zian Nadinak hilekorik gabe, eta bat-batean... Denak batera etorri balitzaizkio bezala izan omen zuan... Izugarria, Sergei, izugarria. Komunean odolustuta topatu zian Pavelek. “Baldosa guztiak gorri zeuden!” oihukatzen zidaan, negar batean, telefonoz bestaldetik. Nik ez nekian non sartu...

Lur-jota zegoan. Ez zioan negar egiteari utzi telefonoz solasean egon ginen 40 minutuetan. Etsita ikusi nian, aurrera egiteko batere indarrik gabe. Eta horregatik idazten diat, Sergei. Hire laguntza behar diat, hire laguntza behar dik Pavelek. Deitu egiok, mesedez. Deitu egiok eta hitz egin ezak berarekin. Lagun onak zineten, eta nik uste on egingo diola beste norbaitekin hitz egiteak. Nik ere deitzen zioat noizean behin, baina niri jada ez zidak jaramonik egiten. Ez duk batere erraza Pavelekin hitz egitea... Eta telefonoz, are gutxiago! Berak bakarrik hitz egiten dik, negarrez hasten ez denean... Ni ere erotzen ari nauk... Bertara joaterik izango banu...

Honela zaudek gauzak, Sergei. Sentitzen diat berri txarrekin etorri izana, baina jakin nahiko huela pentsatu diat. Ea hurrengoan albiste pozgarriren batek elkartzen gaituen. Eta deitu egiok, ados? Konta iezaiok edozer gauza, konta iezazkiok hire ibilerak, hitz egiok

eskubaloiaz, ez zakiat... Ea hik kontatutakoek nolabait bizkortzen duten.

Eskerrik asko, Sergei. Hurrengora arte.

Hire lagun,

Vladimir

7

– Eta emaztea?

– Herria bisitatzen...

Irribarre-itzal bat egin zuen Pavelek.

– Herria bisitatzen? –galdetu zidan, ahoa ia ireki ere egin gabe. Hitz egin baino, ihes egiten zioten hitzek hortz tarteetatik, eztarri urrunetik indarrik gabe iritsiko balira bezala ezpainetara.

Arrazoi zuen, herrian ez zegoen ezer askorik bisitatzeko.

– Distraituko duk nola-hala... –esan nion.

Tragoz hustu zuen bere baso vodka beste behin, eta bionak bete zitzan eskatu zion tabernariari hitz erdirik gabe, basoa barran tabernariaren aldera zentimetro eskas batzuk mugituz soilik. “Sergei zaharra”, xuxurlatzen zuen behin eta berriz.

Emaztea eta biok burutzen ari ginen eztei-bidaiaz aritu nintzaion. Berak ez zuen ezer esaten. Ez zuen ezer adierazten. Zalantza egin nuen entzuten ari ote zitzaidan ere.

Zazpigarren baso vodka hustu zuenean eten nin-duen bat-batean:

– Ba al hoa Sidneyra?

Hurrengo urtean Australian egitekoak ziren olin-piar jokoez ari zen: Sidney 2000. Ez nekiela erantzun nion. Lesioa zela-eta, agian zerrendatik kanpo gera nintekeela. Irribarre isekari bat egin zidan. Taldeki-deez galdetu zidan. Ea non zeuden, ea bizi ziren, ea jarraitzen ote zuten jokatzen... Alexandre, Ivan, Vale-ri, Andrei, Igor... Denak errepasatu genituen banan-banan.

– Vladimirrek Moskun jarraitzen dik –esan nion.

– Bazekiat, bai. Astero deitzen zidak gogaikarri ho-rrek...

Vladimirren izena entzuteak petraldu egin zuen. Tragoa eman nion vodka txar hari, indarrak biltzeko. Blink edan zuen Pavelek berea. Izkinan zegoen taber-naria hurbildu eta bion basoak bete zituen txintik esan gabe. Botila utzi zigun aldamenean, bere txokora itzu-li aurretik.

– Ez hadi horrela jarri... –atera nintzaion defentsan Vladimirri, jakin banekielako laguntzearren deitzen ziola–. Bakarrik sentituko duk, akaso.

Pavelek ez zuen zirkinik egin. Edalontzian finko zeukan begirada. Bazirudien elkarrengandik kilometro batera geundela, eta nik esandakoak hamar bat segundora eramaten zizkiola haizeak, edo telefonoz ari ginela berbetan, ipar-poloan bata, hego-poloan bestea. Erritmo kontua zen, beharbada. Ohitura kontuak, bestela. Isiltasun-tarte haiek amaigabeak ziren niretzat behintzat.

– Bakarrik Moskun? Ni bai bakarrik hemen, eta ez zioat hargatik egunero deitzen... Nobioak ematen dugu-eta...

Barre egin nuen ezinbestean. Leninek serio-demonio begiratzen zigun argazkitik, eta algararen osteko irribarrea irentsarazi zidan. Isilunea nagusitu zen tabernan berriz. Ez zen ezer entzuten, ez bazen edalontziek barrako egurraren kontra tupust egiterakoan ateratzen zuten hots apala.

– Eta ez zaidak ari, ba, esan eta esan, joateko berarengana –jarraitu zuen Pavelek–. Joateko eta joateko –tragoa eman zion vodkari–. Marikoia ez bada...

– Eskua sartzen abila zuan behintzat bere garaian.

Ez zion graziarik egin nire hitz-jokoak.

– Istorio bera dik astero. Joateko Moskura. Bere apartamentua txikia dela, baina moldatuko garela. Askoz hobeto egongo naizela han, konkistatzailerik sekula iritsiko ez den herri honetan baino, eta ez zakiat zenbat txorakeria gehiago...

Masajistaren asmoak igarrita, Moskura joateko konbentzitu nahian jardun nuen nik ere, Vladimirrek bere premia zuela sinetsarazten.

– Zahartzen ari duk errukarri hura! –esan nion–. Izango ditik hirurogei urte eta gehiago. Laster ez duk bera bakarrik mugitzeko gauza izango...

Asmatu nuen antza nire ahaleginean, onerako ala txarrerako izan ote zen oraindik garbi ez dudan arren.

– Gogoratzen al haiz Seulen? –aldatu zidan gaia, ahal izan zuen bezain laster.

– Akordatuko ez nauk, ba!

– Jugoslaviarren aurkakoa! Hura izan zuan partida, hura!

– Ahaztezina!

– Gol bakar batengatik irabazi genian finalerdietako partida hura.

– Kabroi halakoa! Orduan ere hik atera huen azken baloia... –bota zidan.

– Larri ibili gintuan...

– Ba al dakik sarritan zeinekin gogoratzen naizen?

– Norekin?

– Sovadovic-ekin.

¾ Zein, jugoslaviarren hegalekoa? Azken jaurtiketa huts egin zuena?

– Berak ez zian huts egin, hik gelditu hion!

– Berdin ziok.

– Ez ziok berdin, eta hik badakik... –artez begiratu zidan jarraitu baino lehen–. Askotan oroitzen nauk harekin...

– Frantziako talde batean zabilek –esan nion.

– A bai? Pozten nauk. Hik ez duk jakingo, baina kristorenak eta bi entzun behar izan zitian Seuldik Jugoslaviara itzuli zirenean. Begitan hartu zian prentsak.

– Azken jaurtiketa huts egin zuelako?

– Azken jaurtiketa gelditu hiolako.

– Kabroiak!

– Kazetariak...

– Putasemeak.

– Sarritan, gaur bezalaxe, vodka bat hartzen ari naizela, berarekin oroitzen nauk, Sovadovic-en aurpegia etortzen zaidak burura –isilune bat egin zuen; tabernako botilen artean galdu zitzaion begirada–.

Azken jaurtiketa hura imajinatzen diat, jaurtiketa hura ekartzen diat berriz Siberiako herri galdu honetaraino, eta badakik zer?

Buruari eragin nion, xarabe hari trago bat eman bitartean.

¾ Gola sartzen dik Sovadovicek jaurtiketa horretan. Eta, besoak goian, bere taldearen garaipena ospatzen ikusten diat jendez lepo betetako Seulgo kantxa hartan. Taldekide guztiek besarkatuta, doi-doi ikus daitezkek telebistaz emozioz bustitako bere bi begiak hainbeste besoren artean. Ez duk hire aurka ezer dudalako e, Sergei, ondo dakik hik –beste tragotxo bat hartu eta isilunea luzatu zuen, edabea eztarritik igarotzen sentitzen zuen bitartean–, baina hala gertatu zela imajinatzea gustatzen zaidak.

– Non egongo ote ginen orain Sovadovic eta gu?

– Auskalo! –erantzun zidan Pavelek–. Baina seguruenik hi hemen, nirekin, vodka ustel hau edaten, eta Sovadovic Frantzian eskubaloian jokatzen...

Irribarre egin nion, begi-zeharka begira ari nintzaiola. Pavel maltzurra.

– Irtengo al gara apur bat? –esan zidan, aulkitik balantza erdia eginda jaiki eta gero–. Haizea hartu beharra zaukaat.

Nik ere bai, pentsatu nuen neure artean.

8

– Ongi etorri, Ivanov jauna. Ohore bat da Mezhdunarodnaia hotelarentzat berori gure artean izatea.

– Eskerrik asko.

Nekatuta zegoen Sergei eta ez zeukan astirik laudorioetarako.

– Ohar bat utzi didate berorrentzat –papertxo bat luzatu zion.

513. gelako giltza hartu eta gora abiatu zen. Emaztearena zen. Deitzeko eskatzen zion, ahal bezain azkar.

Gela handia zen oso: altzari dotore eta klasikoduna, sabai altukoa, oihal lodiko gortinatzar gorriekin apaindutako leiho handiekin. Sobietar Batasunaren urrezko garaietako erakusgai polita.

Maleta utzi eta ohean eseri zen. Etxeko telefonoa markatu zuen.

– Ni naiz.

– Zer moduz? –galdetu zion emazteak.

– Hainbestean. Zer gertatu da?

– Irratian elkarrizketa egin diote Fernandezi. Espainiara itzuliko da.

– ...

– Sergei?

– Bai.

– Kontratua sinatzera omen doa aste honetan bertan.

Ukondoa izterrean eta kopeta eskuan bermatu zituen, pentsakor.

– Eskaintza saihestezina egin omen dio Bartzelonak –segitu zuen emazteak–. Ez zintudan arduratu nahi, baina...

– Ondo egin duzu. Lehenbailehen mugitu beharra daukagu. Freissinger izan daiteke hurrengoa. Eta horrek ere alde egiten badu, Colletek ere ez du asko iraungo.

– Deitu Bergerri.

Sergeiren managerra zen Berger.

– Ea harrapatzen dudan.

– Egon al zara Vladimirrekin?

– Bihar ikusiko dut, hiletan.

Isilune bat egon zen, deia eten izan balitz bezalakoa.

– Hor al zaude? –galdetu zion emazteak.

– Bergerri deituko diot. Umeak ondo?

9

– Sergei laguna.

– Vladimir!

Erabat zahartuta zegoen Vladimir. Bastoiaren laguntzaz eusten zion zutik, oker-oker egote horri zutik egotea deitzerik baldin bazegoen behintzat. Besarkatzean ez zuen gehiegi estutu, hezurren bat hautsiko ziolakoan.

– Zer moduz hago?

– Begiratu egidak. Hiri zer iruditzen zaik? Bizitza osoan masajeak ematen, eta masajeen beharrean orain.

– Hik heuk eman behar heure buruari...

Hogei bat lagun elizaren atarian. Horien artean, Eskubaloi Federazioko lehendakaria soilik ezagutu zuen Sergeik. Gero agurtuko zuen. Seulgo talde hartatik inor gutxi, Vladimir lagunaz aparte. Horiez gain, pare bat kazetari eta kuriosoren bat. Elurra, epel, goi eta behe.

– Zer gertatu zen?

– Ai, Sergei –hitz-totelka ari zen Vladimir.

Moskura iritsi bezain laster zerbitzari lanetan hasi zela kontatu zion, eta ez zitzaiola gaizki joan hasieran.

– Moralez-eta piztuta ikusi nian garai hartan. Baina ameskeria bat izan zuan, nobedadeak iraun zuen arte, nik uste.

Azkenerako, bere buruaren bezero onena omen zen, eta bota egin zuten lanetik... Moskuko kaleetako itzal bat gehiago bihurtu zen.

– Elurpean izoztuta aurkitu zitean. Ez zakiat ondo egin ote nuen hona ekartzen.

– Ez ezak txorakeriarik esan.

Malkoen arrastoa antzeman zuen Vladimirren begi zimelduetan. Besotik helduta elizarantz bideratu zuen poliki-poliki.

– Sartuko al gara?

Ez ote zen barruan kanpoan baino hotzago egongo...

10

Fresko zegoen kanpoan, eta hori epel-epel geneukala barrua. Zenbat gradu izango ziren? Bost bat edo?

Zeruan ez zen izar bat bera ere gehiago kabitzen. Izar asko, jende gutxirentzat Siberian, pentsatu nuen. Zertxobait ukituta zegoen Pavel, baina balantza nabarmenak eginez nindoan ni.

– Sergei! Hator hona! –agindu zidan.

Lepotik heldu ninduen bere albora iritsitakoan.

– Ikusten al duk hori? –galdetu zidan–. Ba al dakik zer den?

Mozkortuta nengoen, baina gai nintzen hura eskubaloiko ate bat zela igartzeko.

– Oso ondo, Sergei, oso ondo. Eta ba al dakik nork egin zuen?

– Hik –esan nion zotinaren eta hitzaren artean ondo bereizi gabe.

– Bai jauna. Nik egin nian. Herriko umeei eskubaloian jolasten irakasteko.

Lur higatuari begiratu nion: zuloz beteta zegoen. Jokalari onak aterako ziren herri hartatik, aterako baziren... Ateak, berriz, kolorea ia zeharo galduta zuen, garai batean zuri-gorriz margotua izan zela salatzen zuten arrasto urri batzuk ikus zitezkeen arren. Sarerik ez zeukan, noski.

– Ate bakarra? –otu zitzaidan galdetzea.

– Hemen jarduten ditek haurrek, izotza denean patinatzen eta izotzik ez denean eskubaloian.

Zartatutako begi argi haiek arakatu nizkion: beirazkoak ziruditen, hautsitako eskaparate batekoak.

– Begira ezak! –segitu zuen hizketan–. Neguan, atea erabat izozten duk, eta langatik estalaktita luzeak sortzen dituk. Ez dakik zein irudi bitxia egiten duen, hemen, ateak, estalaktitaz josita, ezerezaren erdian...

Imajinatzen saiatu nintzen, paraje ezin zuriago batean, eskubaloiko ate bat, estalaktitez josia.

– Batzuetan, hor, ate azpian jarriko naizela pentsatzen diat. Ate azpian jarriko naizela negu erdian, elur erauntsi bat ari duen gau batean. Besoak altxatuko ditudala beste hainbeste aldiz hainbat lekutan hik eta nik egin dugun bezala, baina publikorik gabe, belaunak tolestuko ditudala apur bat, hanka puntetan jarrita, kontrario latzenaren jaurtiketa gogorrenari aurre egiteko prest, erne. Eta postura horretan geratuko naizela pentsatzen diat, geldiketarik onena egitera doan atezainaren gisan, geldiketa bikain hori egin aurreko istant zirraragarri hori erakusten duen postura zehatz horretan, harik eta elurrak guztiz estaltzen nauen arte. Minutu-kontua izango lukek. Azkar egiten

dik lan, hemen, elurrak. Ez nikek minik sentituko, ez al zaik iruditzen? Hotza bai. Baina minik batere ez. Eta niri ere, ordu batzuen buruan, estalaktitak sortuko litzaizkidakek besoetatik, zangoetatik. Atearekin batera, irudi polita osatuko nikek, ez al duk uste? Izotzezko eskultura eder bat. Benetako artelana, hemen, ezerezaren erdian, inoiz museorik zapaldu ez duten herrikide xumeentzat. Eskubaloiko atezainei egindako nire omenaldi berezia. Horixe amesten diat batzuetan, Sergei. Zer iruditzen zaik?

Un tal Ekain

Hasieran axolotl-ak izan ziren, azteka begirada duten arraintxo horiek.

Ondoren gizakia etorri zen, gizaki guztiak; baina batez ere bera: Julio Cortazar. Eta azkenik ipuin miragarri hura, arrainaren izen berekoa.

Gero gatoz gu, gainontzeko guztiak.

Arrainontzi txikiegia da mundua –zoritxarrez?–, baina arrainek baino memoria hobea dugu –zorionez?–. Nola ekarri gogora, bestela, duela 25 urteko kontuak? Nola neurtu Buenos Aires eta Donostia batuko dituen lerro zuzena, arrainontziaren esfera ñimiñoaren baitan ez bada?

Axolotlek eman zidaten –nork bestela?– falta zen pieza. Orain argi ikusten dut puzzleak ezkutatzen zuen irudia.

Ez nadin has bukaeratik, ordea, eta ekin diezaiodan, gisa honetako artikuluek eskatzen duten seriotasunarekin, gauza guztiak taxuz eta argi esplikatzeari, ordena logiko eta ulerterraz bat eramanez betiere, eta adieraz dezadan, hasteko, artikuluaren tesi nagusia izango dena, emanik horrela bidea tesi hori defenda-

tzeko beharrezkoak diren froga eta arrazoiak azaltzeari: bera eta biok –Julio Cortazar handia eta biok– bat bera gara, edo nahiago baduzue, ni naiz bere oinordeko espirituala. Beste era batera esanda: hainbeste gauza daude elkartzen gaituztenak, horren lotura estua dago bion artean, ezen ez bailitzateke gehiegizkoa esatea ni naizela argentinarrak inoiz izan ez zuen semea.

Horixe da artikulu honen tesi nagusia, eta horixe frogatzen saiatuko naiz, aldez edo moldez, datozen orrialdeetan. Dei nazakezue harroputz, handiuste edo iruzurti, horixe baita lehen hitz hauek irakurtzean edonori burura etor dakiokeen gauzarik zentzuzkoena, baina lan honen egitekoa da, hain zuzen, zuen hasierako inpresio logiko hori eraistea, deuseztatzea, betiere arrazoiaren arma *hilgarria* –baina ez mingarria, espero dezagun– zentzuz erabilita. Artikulu honetan, beraz, aipatu berri dudan tesia baieztatuko duten hainbat eta hainbat froga ematen saiatuko naiz, era batean edo bestean. Zuei dagokizue gero juzgatzea. Baina nago, ikusiko duzuen moduan, hemen kontatzera noana badela nahikoa oinarri pertsonarik fidagaitzena konbentzitzeko ere.

Ezer baino lehen, esan dezadan ezen lan honetan aipatuko diren hainbat eta hainbat froga, arrazoibide edo iruzkin –beren bakarrean hartuta– ez zaizkizuela oso serioak iruditzen ahal –are, txorakeriak irudi dakizkizueke, baliorik gabeko detaileak, azaleko pasarte hutsalak–. Denak batera eta beren osotasunean hartzeak dakar, lorea lore egiten duten petaloak legez, artikulu honen tesi nagusia ulertzeko giltza. Gatozen, beraz, tentuz aztertzera eta sakonki arrazoitzera, Julio Cortazar eta bion arteko lotura, senidetzea edo batere pitzadurarik gabeko bat-egitea.

Has ninteke –errazkerian eroriz– biok partekatzen dugun idazle-ofizioa abiapuntutzat hartuz, baina azkenerako utziko dut hori. Aitzitik, alderdi fisikoen eta psikologikoen konparaketan murgilduko naiz lehendabizi, zalantza guztiak uxatzera bideratutako zorroztasun zientifikoz eta zehaztasun erabatekoaz.

Idazle argentinarraren eta nire artean dagoen antzekotasun fisikoa hiru zutabe nagusitan oinarritzen da: altuera, bizarra eta generoa. Beste hitz batzuez esanda, biok gara gizonak, biok daukagu edo izan dugu bizarra, eta agian garrantzitsuena dena, biok gara metro eta laurogeita hamahiru zentimetro luze. Baina azter ditzagun banan-banan kontuok.

Edonork pentsa lezake bizarrarena ez dela erabakigarria, nahi duenak izan dezakeela bizarra nahi duenean, Cortazarrek berak egin zuen bezala. Baieztapen hori, ordea, faltsua da, edo ez da guztiz egia, behintzat. Izan ere, hasteko, generoaren kontua dago (eta honekin ezaugarri fisikoetan hirugarrenarekin lotzen dut argudiaketa): gauza jakina da emakumeek ez dutela bizarrik, edo bizarra izateko aukera gutxiago dituztela, nahiago bada; gainera, gizonen artean ere badira bizarrik izan ezin dutenak (bizargabeak deiturikoak, hain zuzen ere; herrialde asiarretan, esaterako, zenbat bizardun daude?); eta azkenik, gizon guztiek, ahal izanez gero ere, ez dute bizarra izatearen hautua egiten. Beraz, Cortazarrek eta biok geure bizitzaren une jakin batean bizarra utzi izanak badu garrantzia, kontuan harturik XX. mendeak eman duen idazle handienetakoarekin antzekotasun fisiko hori konpartitzen ez duten pertsonak konpartitzen dutenak baino askoz gehiago direla.

Generoarena, berriz, huskeria bat irudituko zaio askori, eta zer esanik ez feminista-taldeei eta sexubereizketarik gabeko pedagogiaren alde dauden beste zenbait eragileri. Baina egiari zor, ez da ahantzi behar sexu bereko bi pertsonaren arteko antzekota-

sun fisikoak –antzekotasun psikologikoen putzu arriskutsu eta polemikoetan ez sartzearren– handiagoak direla orokorrean, sexu ezberdineko bi pertsonaren artekoak baino. Honekin hertsiki lotuta dago altuerearen edo garaieraren kontua. Izan ere, metro eta laurogeita hamarretik gorako emakumeak gutxi direla ziurta daiteke, datu estatistikoak eskuetan izan gabe ere.

Cortazarri buruzko lan, biografia eta saiakera andana dago, eta ia denetan aipatzen da idazle argentinarraren altuera, bera bizi izan zen garaian –eta baita gaur egun ere– normala baino handiagoa izaki. Guztiak ez datoz bat Cortazarren garaiera zehatza finkatzeko orduan, baina *Rayuela*ren egileak garbi utzi zuen, Espainiako telebistak egindako elkarrizketa batean[1], zenbaitzuek puztu egin zituztela zenbakiak, errealitatea –sarritan egiten den moduan– mitoarekin nahasiz, eta aitortu zuen metro eta laurogeita hamahiru zentimetro luze zela zehatz-mehatz. Ezin uka genezake, hortaz, idazlearen fisikoan benetan nabarmena zela bere garaiera ohiz kanpokoa. Are gehiago, ezagutu zutenei deskribatzeko eskatuz gero, denek aipatuko dute, zalantzarik gabe, ezaugarri hori: “ogirik gabeko egun bat baino luzeagoa zen”. Cortazarrekin bere ezaugarri fisiko behinena konpartitzea –are

oinetatik buruko azken ilerainoko zentimetro kopuru berbera izatea–, ezin liteke kasualitate hutsa izan.

Antzekotasun fisikoen zerrendan sartu dut, halaber, idazle handiak eta biok partekatzen dugun –edo partekatzen genuen, hobeto esanda– beste ezaugarri bat: erremerrea, hain zuzen ere. Frantzian bizi izan zituen urte mordoarekin eta bere amak erakutsi zion frantses perfektuarekin erlazionatzen bada ere Cortazarren erremerrea, aditu gehienek ondorioztatu izan dute ez dela horrela, espainolez hitz egiterakoan r fonemari ematen zion soinua ez zela bere azentu frantziarraren eragina, ahoskatze-akatsa baizik[2]. Niri dagokidanez, umetatik ezagutzen nauen orok daki ezen duela bederatzi urte –eta logopeda baten laguntzaz soilik– lortu nuela arazo berberari aurre egitea. Nire editorearen erreguz, telebistetan eta batez ere irratietan egiten dizkidaten elkarrizketetan ikus-entzuleen belarrietan durdurio arrarorik, eta horren poderioz, nire liburuenganako arrazismo barregarririk ez eragiteko hartutako neurria besterik ez zen izan. Marketin kontuak, azken batean. Nire logopedak berak baiezta ditzake hemen esandakoak, nahi izanez gero[3]. Orain artekoak gutxi ez, eta herentziazkoa den erremerrea-

rena gehitu behar da, beraz, antzekotasunen hondorik gabeko zakuan.

Hala eta guztiz, askok eta askok pentsatuko dute argentinarraren eta bion arteko antz fisikoak ez duela ezer esan nahi, batak bestearen antza izatea ez dela baldintza nahikoa bata bestearen oinordeko espirituala dela baieztatzeko. Kasualitatea irudituko zaio zenbaiti, elkarrengandik milaka kilometrora dauden bi pertsonak begi kolore bera izatea bezala. Zer frogatzen du, bada, horrek?, esango dute beharbada batzuek, mesfidati. Lan honen hasieran aipatu dut, ordea, ez dela ez bat ez bi, ez direla lauzpabost aipatuko ditudan era bateko eta besteko antzekotasunak, eta garrantzitsua dela juzgu bat egin aurretik dendenak entzutea, froga guztiak beren osotasunean aztertzea, iritzi objektibo bat eman ahal izateko.

Gatozen, bada, orain, antz fisikoa alde batera utzita –ez horratik ahaztuta–, izaera kontuei dagozkien ezaugarriak aztertzera, eta neureekin konparatzera. Hau da, azter ditzagun Julio Cortazar idazle handiaren eta nire arteko antzekotasun psikologikoak. Atal honetan, berriz ere, Espainiako telebistak egindako elkarrizketa hartuko dugu oinarri, eta baita Eduardo Mon-

tes-Bradley zinemagile eta kazetariak eginiko biografia[4] ere.

Cortazar pertsona bakartia zen; berak horrela aitortzen du, tristezia –edo nostalgia– apur batekin, Espainiako telebistan Joaquin Soler Serranok egin zion elkarrizketan. Saioaren unerik gogoangarrienetako batean, zigarro bat eskaintzen den xalotasunarekin honela galdetzen dio Soler Serranok: “pertsona bakartia izatearen fama duzu”. Cortazarren begiratua infinituan iltzaturik dago une horretan, eta erantzun aurretik irribarre triste bat marrazten du bere aurpegi bizardunak. “Bai, ados nago”, erantzuten du, “tristezia apur bat ematen dit aitortzeak, baina hala da”. Dioenez, eskubide bat bezala ulertzen zuen bakarrik egotearen kontua, eta harrotasunez zeraman hasiera batean. Gerora, ordea, erru-sentimendu bat sortu zion bakarrik egoteko zeukan behar horrek. Jekyll doktorearen eta Mr Hyde-ren adibidea jartzen du bere barne-gatazka adierazteko. Kontatzen duenez, Mr Hyde da bakarrik egon nahi duena, maltzurra dena, eta Jekyll doktorea da uste duena pertsonekin dauzkan harremanek merezi dutela, batzuetan ahalegin hori egiteak izan dezakeela zentzurik, bizitzaren plano batean edo bestean. Halaxe dio, hitzez hitz: “nire

barne-gatazka hain da handia, non lagun talde batekin nagoenean –eta gustura egon ere: barrez, edaten, une bikain bat konpartitzen–, Mr Hyde etortzen baitzait minutu batez, eta belarrira xuxurlatzen dit: *zergatik ez hoa etxera?, hain ondo egongo hintzateke Louis Armstrongen disko bat entzuten, lasai-lasai, bakarrik...*”.

Niri dagokidanez, esan beharra daukat zinez bakartia naizela ni ere. Ez Cortazarren modu berean, nahi baduzue, baina bakartia, nolanahi ere, bera bezala. Ezin gusturago egoten naiz nire etxeko estudioan, musikarik gabe, isiltasun osoan, suabe-suabe eragiten diodan ordenagailuaren teklatuari darion klakateko lasaia dudala soinu bakar, ez bada aldameneko errepidean –astiro-astiro hurbiltzen eta pixkanaka urruntzen gero– noizean behin pasatzen den anbulantziaren sirena-hotsa. Cortazar handiari Mr Hyde baldin bazetorkion lagunekin primeran pasatzen ari zen bitartean, niri Jekyll doktorea hurbiltzen zait, ordenagailu-pantaila den ispilutik irten izan balitz bezala, lagunekin zerbezatxo bat hartzen zein ondo egongo nintzatekeen gogoraraztera. Horrexegatik diot ez garela biok bat bera, idazle argentinarra eta biok ez garela lerro zuzen baten zati bera, lerro zuzen beraren bi

parte desberdin baizik. Beste hitz batzuekin esanda, ni naiz Cortazar handiak bukatu gabe utzi zuen koadro hori margotzen jarraitu behar duena.

Haurra nintzenean bazen denbora-pasa mota bat, zenbakituta zeuden puntu batzuk marra zuzenez lotzea zuena helburu. Bata biarekin marra zuzen batekin elkartuz, eta bia gero hiruarekin, eta hirua lauarekin eta abar. Bukatzean, marrazki bat ikus zitekeen orri zuriaren gainean: hegazkin bat, lore bat, zakur bat. Xarma handia zeukan zenbaki batzuk elkartuz –*bat-batean*– orri zuriaren gainean, ezerezetik bezala, marrazki bat sekretu bat bailitzan azaleratzeak. Maite nuen denbora-pasa hura. Ahalegin handirik ez zuen behar, eta ia konturatu gabe –magia!– marrazki eder bat zeneukan begien aurrean.

Bada, berrogeita sei zenbakiko marrazki batean, demagun, Cortazar hogeita hirugarrenera iritsi zen, eta ni naiz hogeita laugarrenarekin, hogeita bosgarrenarekin, hogeita seigarrenarekin jarraitu behar duena. Ez dakidana da ni iritsiko ote naizen berrogeita seigarrenera, ni izango ote naizen marrazkia osatuko duena, edo besteren batek hartuko ote duen bere gain jazz-abesti batena izan daitekeen irudi abstraktu sailkaezin hau margotzen bukatzeko erantzukizuna.

Jazz-abesti bat bezala idatzi omen zuen *Rayuela*[5] Cortazarrek. Hala esaten zuen berak: gaur kapitulu bat, hurrena harekin loturarik ez duen beste bat... Jazz-musikaren jarraitzaile sutsua baitzen (ikus Charlie Parkerri eskainitako *El Perseguidor*[6] ipuin luzea), jazzak berarekin daraman inprobisazio-kutsu hori eman nahi izan zion bere nobela ahaztezinari. Baita lortu ere, nire uste apalean. Ez nadin gal, ordea, miresmenaren bide infinituetan barrena, ezta poesiaren aldaparik gabeko mendietan ere, eta segi dezadan –irakurlearen baimenarekin– artikulu hau idaztera bultzatu nauten datu objektiboak azaltzen. Eta jazza aipatu dugunez, saia gaitezen idazle argentinarraren ohiturak eta afizioak aztertzen, eta, orain arte egin dugun bezala, nireekin konparatzen.

Has nadin publikoak ziren bizioekin: whiskia eta zigarroak. Argentinarrak ez zion inoiz whiski on bati uko egingo, eta erre ere gustura erretzen zuen, ahoa labirinto bihurtzen zuten hortz dohakabe haiek lekuko. Whiskiarena eta zigarroena jakintzat emanik, bada hipotesi bat droga gogorxeagoak probatu zituela dioena. Lehen aipatu dugun *El Perseguidor* ipuina dago hipotesi horren oinarrian. Argentinarraren maisutasuna inork zalantzan jartzen ez duen arren, ipuin honetako

protagonistak dituen haluzinazioak kontatzeko modua dohain literarioez harago doala iruditzen zaie hipotesi horren defendatzaileei, eta bat nator Cortazarren obraren aditu horiekin[7]. Azterketa horietan, marihuana eta haluzinogenoak aipatzen dira, baina ez da baztertzen beste droga batzuen kontsumoa.

Niri dagokidanez –ez dit lotsarik ematen esateak, eta ikerketa-lanarentzat onuragarria dela uste dudanez, garbi adierazi nahi dut– whiskia, rona, marihuana, kokaina, estasia edo perretxiko haluzinogenoak hartuta idatzi izan dudala behin baino gehiagotan –ez denak batera, agerikoa denez–; are gehiago, iruditzen zait bizitza honetan probatu egin behar direla drogak, gutxienez behin (eta gehienez bitan, esango luke jakintsuak). Nolanahi ere den, eskarmentuz esan dezaket drogen eraginez idatzi izan dudanak zakarrontzian bukatu izan duela eskuarki: whiskiak esaldi luzeegiak idaztera eramaten ninduen; kokainak, motzegiak; eta estasiaren ondorioz, puntuazio-markak oker jartzen nituen.

Cortazarrek bazuen beste zaletasun handi bat, bere irakurleen gehiengoarentzat nahiko ezezaguna izango dena seguruenik: argazkilaritza, hain zuzen. Argazkilaritzaren zale handi bat zen eta berak atera-

tako argazkiei testuak jarrita egin zituen zenbait liburu[8]. Edozein tximuk argazki-makina digital bat –eta ez dendako merkeena– daukan garaiotan, meritu gutxi dauka argazkilaritza zalea izateak, baina lan honen izaera zientifikoari zor, aitortu beharra daukat –nire biografia apur bat ezagutzen duen edonork dakien moduan– argazkilaritza zale *amorratua* naizela ni ere, eta ezin naizela oheratu, egunean bostehun argazki atera gabe. Literaturarekin batera, horixe da sorkuntzaren esparruan landu dudan alorra. Froga gisa, Euskal Herriko hainbat txokotan egindako erakusketak har daitezke. Nire buruari lotan ateratako argazki-sailak balio beza adibide gisa[9].

Baina utz ditzadan zaletasun eta bizioak alde batera, eta aipa ditzadan, behingoz, ikerketa-lan honen jatorrian dauden gertakizunak, hauek izan baitira proiektu hau mamitzera eraman nindutenak, eta gorago aipatutako antzekotasun guztiei kasualitatearen zentzua kentzen dietenak. Hiru gertakari dira, hiru gertakari xalo, baina neurrigabeko garrantzia dutenak ikerketa-lan honek defendatzen duen tesiaren froga gisa.

Lehenengo biek Parisera garamatzate, eta egun bateko denbora-distantzia motza besterik ez dute el-

karren artean. Hirugarrenak, berriz, Donostiara bueltan ekarriko gaitu, duela hilabete gutxiko kontuetara. Jarrai diezaiodan, hala ere, ordena kronologikoari.

1982. urtean izan zen; abuztuan, hain zuzen. Hogeita bost urte bete berritan, Pariserako bidaia egin genuen hiru lagunek, turismo egitera baino, abentura bila gehiago, garai hartan Espainiara motel samar zetozen neska frantziarren atrebentziak *in situ* ezagutzera. Baina joan nadin mamira, eternitateraino luzatzeko aukera emango bailidake bestela bidaia haren kronikak.

Saint Michel bulebarrean paseoan genbiltzan hiru lagunak, bidearen bestaldetik, aurreko espaloian bera ezagutu nuenean. Gizon luzea, bizar handiarekin orduan, Luxenburgoko lorategietarantz zihoan Julio, oinez, bigarren eskuko liburuen postuetan noizbehinka geldialditxo bat eginez.

Garai hartan, bere obraren jarraitzaile sutsua izateaz aparte, ia fanatismora heltzen zen miresmen moduko bat nion argentinarrari. Idazle asko nituen gustuko, baina beti esaten nuen idazle haren X liburua izugarri gustatzen zitzaidala, edo beste idazle mexikar haren Y liburua bikaina zela. Cortazarrekin, ordea, desberdina zen: bere unibertso osoa atsegin nuen,

salbuespenik gabe eta debozio mugagabez. Horrenbesteraino maite nuen, ezen Cortazarren obran agertzen diren Parisko lekuak bisitatzera behartu bainituen nire bi lagunak: *Rayuela*ko Maga egoten zen Pont Neuf hura, Jardin des Plantes-eko akuarioa (azteka-begiak zituzten axolotlei begira-begira jartzeko), Paris izeneko dama horren gonazpiko hainbat eta hainbat metro-estazio... Cortazarren Paris ezagutu nahi nuen, txorakeriak alde batera utzita. Eta lortu nuen, alafede. Lagunek ez zuten-eta beste aukerarik izan. Ulertuko duzue, beraz, nire ezinegona, hiribide erraldoi haren beste aldean jenio argentinarra ikusi nuenean.

Saint Michelgo hartan, bidea gurutzatu edo ez egon nintzen, berarengana joan eta besarkada bat ematekotan, baina jende artean bat-batean desagertu eta ostera inoiz ikusiko ez nuen beldurrez, eskuekin ahoa inguratu eta –Tarzanen moduan– oihu bat botatzen besterik ez nuen asmatu: “Maeeeestro!” egin nion garrasi errepidearen beste aldetik. Gezurra badirudi ere, kotxeen artetik bidea egin zuen marru hura entzun egin zuen Cortazarrek, eta inguruko jende-andanaren artean zegoen maisu bakarra izateaz gain, gaztelaniaz hitz egiten zuen bakarrenetakoa izanik, berari ari zitzaizkiola ulertu zuen, eta buelta emanez,

hiru lagunak geunden aldera begiratu eta nire eskuin eskuak eskaintzen zion agurra itzuli zigun: “adiooos, amigooo!” bota zuen Saint Michel bulebarraren beste aldetik, eta elkar ikusi genuen aldi bakarra horrela zigilatuta geratu zen, bata bestearengandik hirurogei bat metrora, elkarrekin egoteko eskubideari jainkoek betoa jarri baliote bezala. Huraxe izan zen, eta barkatuko didazue metafora saihestezina, bi lerro zuzenek topo egiten duten puntu bakarra. Eta topaketa hari zuku handiagoa atera ez izanaz damu banaiz ere, ezin uka daiteke Cortazarrekin hitz egin duten pertsonen multzo txikiko –hitz egin ez dutenekin konparatuz, betiere– partaide egiten nauela.

Bigarren gertakaria, Saint Michelgoaren ostean –biharamunean– jazo zen. Cortazarren ipuinen artean gogokoenetarikoa dudana –*Axolotl*[10]– kokatzen den Jardin des Plantes-eko akuarioa ezagutzera eramanak nituen nire bi lagun errukarriak. Ero moduan zeharkatu nuen akuario osoa, kutxatxoetan sartutako ozeano zati haien artean nahi nuena topatu arte. Bat-batean, nahi gabe bezala, azteka-begiak dituzten arrain edo larba edo dena delako horien aurrean aurkitu nuen nire burua: han zeuden axolotlak. Txundituta geratu nintzen haiei begira, ipuineko protagonista legez. Ni

ere hipnotizatuta nengoen, han, akuarioko iluntasun goxoan. Soilik liburutegietan eta akuarioetan egoten den isiltasuna zegoen. Eta horrelaxe nengoela, esku bat sentitu nuen sorbaldan, eta ahots bat atzealdean: “Julio”, esan zidan ahotsak suabe-suabe. Astiro eman nuen buelta, nire gibelean nor topatuko. “Joder”, esan zidan aurpegia ikusi ahal izan zidanean, “eres igualito que él”. Hura poza eta harrotasuna sentitu nuena. “Tú también”, esan nion irribarrez: aurrean neukan mexikarra atzean neukan axolotlaren berdin-berdina zen! Ez zuen nire ateraldia ulertu. Nire erreakzioarengatik konprenitu zuen, hala ere, bera etorri zen arrazoi berberarengatik nengoela ni ere axolotl haiei begira, eta Cortazarren jarraitzaile sutsua zela eta haren obra guztia irakurria zuela eta argentinarra ezagutzea zela bere ametsa eta horretara etorri zela Parisera kontatu zidan, halaxe, dena jarraian, eta arnasa hartzeko ia betarik hartu gabe. “Porque tú, ¿no serás hijo suyo?”, galdetu zidan, Cortazarrek orduan zituen 68 urteak nire 25ekin mentalki konparatu ondoren. Barre egin nuen, semea ez nintzela aitortzen nion bitartean, baina bai idazlea eta Cortazarren jarraitzaile sutsua. “Pues eres como su reencarnación en vida”, esan zidan. “Qué va, qué va”, ukatu nuen apal itxuran, kon-

trakoa esan behar nion arren. Baina zer nekien nik garai hartan... Orduan izan banitu gaurko egunera arte bata bestearen atzetik pilatu ditudan frogak, ezagutu izan banitu artikulu honetan azaltzen ari naizen detaile hauek guztiak... Artean ez nituen, ordea, eta bere horretan geratu zen kontua mexikarrarekin. Tira, Saint Michel bulebarrean gertaturikoa kontatu nion, batez ere inbidia apur bat emateagatik, eta gorri-gorri jarrita, non eta noiz eta nola izan zen kontatzeko eskatu zidan, ia-ia zakarra iruditu zitzaidan modu ero batez. Eta kontatu nionean, kargu hartu zidan, gainera: “Está loco, compadre. Tenerlo ahí mismo y no cruzar ni la calle...”.

Hogeita bost urte geroago, nire bizitzaren istorioak eta Julio Cortazarrenak berriro ere topo egin zuten Parisetik zortziehun bat kilometrora, Donostian, 2007ko irailean. Nire lehen laburmetraia izango zenaren azken prestakuntzetan ari nintzen buru-belarri: deitu produkzio-buruari, deitu argazki-zuzendariari, hitz egin aktoreekin, hitz egin soinu-arduradunarekin... Zinema-zuzendari ororen ajeez gain, zinema-zuzendari hasiberri ororenak ere banituen: nerbioak, beldurra, emozioa, kezka, estresa, antsietatea... Baina egin egin genuen, filmatu genuen nolabait: ondo edo

gaizki, bukatutakoan ikusiko zen. Hurrengo lana pelikula muntatzea zen. Horretarako, Artelekun *atelier*-a daukan Iñigo Salaberriarekin egin genuen tratua.

Alessandro Baricco idazlea mintzatu zen, zuzendu zuen lehen pelikularen harira, muntatzailearen eta zuzendariaren artean sortzen den harreman bereziaz. Bere ustez, hiru figura motarekin soilik lor daiteke bizitzan baldintza gabeko intimitate benetakoa, eta hori guztia sexurik gabe: belauna puskatzen duzunean, zure fisioterapeutarekin; katolikoa bazara, zure konfesorearekin; pelikula bat egiten duzunean, zure muntatzailearekin[11]. Ez zaio arrazoirik falta.

Eta hara nola garamatzan istorio honen joan-etorriak berriz Parisera, Iñigo Salaberriaren hitzen bitartez, Julio Cortazarrekin topo egitera. Izan ere, Iñigok jakin zuenean hamalau liburu argitaratuta nituela, mesedez eta faborez eskatu zidan oparitzeko haietakoren bat, gustura irakurriko zuela-eta. Bigarren ipuin-liburuaren ale bat ekarri nion, muntatze-lanetarako elkartu ginen hirugarren egunean. Mila aldiz eskerrak eman ondoren, esan zidan saiatuko zela bere iritzi xumea ematen. Baina iritzi xumea ez ezik, hitzaldi honetako puzzlea osatzeko behar-beharrezkoa den pieza ekarri zidan.

“Hartu nuen zure liburua” esan zidan zeharo aztoratuta, “eta hasteko zita hori, Cortazarren *Axolotl* ipuinekoa. Ipuin horixe da Cortazarren ipuinetatik gehien gustatzen zaidana! Eta gero, irakurtzen hasi, eta Montparnasseko kale horien deskribapena! Hantxe bizi izan nintzen ni Parisen bost urtez! Zuk aipatzen dituzun kale horiexek zeharkatzen nituen egunero!”. Pasa den mendeko laurogeiko hamarraldiaren hasieran joan omen zen Parisera, zinema ikastera. Montparnasse auzoko *chambre* batean bizi izan zen, orduko ikasle ia gehienak bezala. “Eta? Gustatu al zaizu ipuina?” galdetu nion kuriositateak jota, idazleok berezkoa dugun banitatea ezkutatu ezinik. “Lehendabiziko bi orriak bakarrik irakurri ditut” erantzun zidan nire harridurarako –eta zaputzerako–, eta bere istorioarekin jarraitu zuen, hil ala bizikoa balitz bezala: “Zur eta lur utziko zaitut. Karrera bukaerako proiektu gisa laburmetraia egitea izan zen gure lana Parisen. Elkarren oso lagun ziren bi txinatarrekin osatu nuen taldea, bakoitzak espezialitate desberdin bat ikasi baitzuen. Batek errealizazioa, besteak argazki-zuzendaritza, nik muntaketa. Errealizazioa ikasi zuenak, ezetz asmatu!, *Axolotl* ipuina aukeratu zuen laburmetraia egiteko; Cortazarren irakurle amorratua zen! Eta ez

hori bakarrik: Julio Cortazarrekin berarekin kontaktuan jarri eta istorioa erabiltzeko baimena lortu zuen! Are gehiago: ez galdetu nola, baina Julio bera konbentzitu zuen aktore-protagonistaren papera jokatzeko! Txinatarrak...! Ez sinesteko modukoak dira! Ez dute etsitzen nahi dutena lortu arte!”.

Jarri zuten filmaketa-eguna. Prest zeukaten dena. Espainolez zekien taldekide bakarra Iñigo izanik, Julio Cortazarrekin egotea izango zen bere lanik behinena, harekin solas egitea, ezer falta ez zekion ziurtatzea. Ez zuen orduan Cortazarren obra ezagutzen, baina laburmetraiaren aurreko hilabeteetan, filmaketan idazlearekin egotea tokatuko zitzaiola bazekienez, obra osoa irentsi zuen goitik behera. Egun handirako lau egun falta zirela, ordea, pisukide txinatarrak –zuzendariak– Julio Cortazarren dei bat jaso zuen. “Barkamena eskatu zion, laburmetraiaren proiektuarekin aurrera jarraitu ezingo zuelako. Ez zion bestelako azalpenik eman. Izugarrizko shocka izan zen guretzat. Lur-jota, ez genuen proiektuari buelta ematen asmatu, eta bertan behera geratu zen”.

Lau egun geroago, 1984ko otsailaren 13an, filmaketa egitekoak ziren egun berean hain zuzen, kalera jaitsirik, idazlearen argazkia ikusi zuen Iñigo Salabe-

rriak *Libération* egunkariaren azalean: “Julio Cortazar idazlea hil da”. “Egunkaria erosi eta korrika batean igo nintzen apartamentura. Zuzendari-lanak egitekoa zen txinatarrak, aurreko egunetako penak gainditu gabe ohean zetzanak, halaxe esan zidan, egunkaria muturraren aurrean jarri nionean: “Axolotl bihurtuko zen, gizajoa”“.

Istorio hau beste edonork aditu izan balu, ezinezkotzat joko luke seguruenik, baina niretzat leiho guztiak irekitzea bezalakoa izan zen. Argitasuna egin zen. Ordura arte, zerrenda bat osatzen aritzearen modukoa izan zen, nobela bat idaztearen antzekoa, puzzlearen piezak elkartzen jardutea, ondo jakin gabe zein den puzzlea osatutakoan agertuko den irudia. Baina Iñigo Salaberriak kontatutakoak, argizariz betetako belarri-zuloak bat-batean irekitzen direnean bezala, nire buruari entzuten utzi zidan, edo hobeto esanda, nire buruak behin eta berriz errepikatzen zidana onartzen. Argia ikusi nuen! Beti gainean neraman karpetatik orri batzuk atera eta Salaberriari erakutsi nizkion. “Irakurri!” agindu nion. Izenburua ikusi bezain laster ulertu zuen dena: “Axolotl: laburmetraia baterako gidoi zinematografikoa”. Aspalditik landuta neukan gi-

doia zen, nire hurrengo proiektuen artean lehentasun osoa zeukana.

Hortik aurrerakoak izan dezake azalpen logikoagorik, aurki dakioke zentzu errealistagorik, baina ez da kausituko esferaren biribiltasuna, ez bada Julio Cortazarrek eta biok osatzen dugun marra beraren ikuspuntutik ulertua.

Salaberriaren azalpen hau –artikulu honen tesiaren puzzlea osatzeko falta zen pieza izateaz gain– proiektuak behar zuen bultzada izan zen. Nire editorearen laguntzarekin, Cortazarren egile-eskubideak kudeatzen zituen agentearekin harremanetan jarri, eta *Axolotl* ipuinaren eskubideak lortu genituen. Egunkarietatik jakingo zenuten moduan, horixe da oraintxe bertan esku artean dudan proiektua. Patuak, nola ez, Cortazarren segida logikoa aukeratu du, Cortazarren oinordeko nagusia aurkitu du, idazle argentinarrarentzat hain berezia zen proiektu hura ia hogeita bost urte geroago aurrera eramateko. Pena bakarra daukat: Cortazar bera ez izatea gurekin, protagonistaren papera jokatzeko. Lehenago aipatu bezala, nik neuk beteko dut, noski, haren rola, bion arteko sinbiosi erabateko hau muturreraino eramanez modu horretan.

Puntu honetara iritsita –eta bukatzeko–, zalantza-izpiren bat duen oro gure argudiora biltzen saiatuko naiz, azken azalpen honekin. Izango dira –seguru!–sinesgogorrak oraindik, ez berez horretarako arrazoirik geratzen zaielako, izatez egoskorrak direlako baizik. Halakoekin alfer-alferrik da mila eta bat azalpen ematea, arrazoia arrazoiaren atzetik jartzea, frogak bata bestearen segidan aurkeztea. Azken argudiatze honekin, beraz, bukatutzat emango dut nire lana, eta norbaitek zerbait argitu edo hemen aipatutako kontu konkreturen bati buruzko azalpen zabalagoa nahi balu, badaki non naukan.

Ez dudala ahots propio bat eraikitzen asmatu, horixe izan da kritikariei nire obra literarioari buruz orain arte entzun diedan ondorio nabarmenena. Alde batetik arrazoi dutela esan behar dut. Nire ipuin-liburuak begiratzea besterik ez dago (*Las armas al desnudo*[12]; *El comienzo del juego*[13]; *Odiamos tanto a Michael Jackson*[14]), edota kritikaren aldetik horrenbeste arrakasta izan ez duten baina salmenta handiak izan dituzten nire zenbait nobela (*Parchís*[15] eta *Veinte mil viajes de lenguas submarinas*[16]). Baina, bestalde, nola izan ahots propioa, nire ahots propioa nire aita pontekoa den Julio Cortazar handiak eraiki

zuena baldin bada? Edo, arrazoiketa irauliz, nola ez dut bada ahots propioa izango, nire ahots propioa Julio Cortazarrek berak zeukana baldin bada, ahots propio bakarra osatu baldin badugu Juliok eta biok? Argi dago ikuspegiaren abiapuntua non kokatzen den, halaxe aldatzen dela ikuspuntua bera ere. Alegia, bi pertsona independente garela pentsatzen bada, kritikariei arrazoi ematen ariko gara. Aldiz, pertsona berari buruz hitz egiten ari bagara, pertsona beraren halako segida moduko bati buruz ari bagara, Juliok sortutako ahots propioa indartua ikusiko da nire obran, berak hasitako bidea garatu dudala ikusi ahal izango baitute orduan kritikariek. Nire ipuin-liburuak ez dira Julio Cortazarrenen imitazio hutsak, haren ipuinen ibilbidearen hurrengo urratsak baizik. Esferarekin identifikatzen zituen maiz bere ipuinak; esferaren biribiltasuna erabiltzen zuen argentinarrak, ipuina nola ulertzen zuen adierazteko. Esfera bat ez, baina hiruki itxi moduan ikusten ditut nire ipuinak. Ez da kontzeptu bera, edo nahi bada, kontzeptu beraren hurrengo geltokia da. I. Retolazak *Berria*n esan zuen moduan[17], nire obra ez dago ulertzerik Julio Cortazarren obrarik gabe, eta zera erantsiko nuke nik jarraian: idazle baten azken liburua aurrekorik gabe ulertzerik ez dagoen moduan.

Askok esango dute, hala eta guztiz ere, ezin naizela Julio Cortazarren oinordekoa izan, ezin naizela bere jarraipen literarioa –eta are gutxiago espirituala– izan, haren oinordekoa banintz bera hil zen egunean bertan jaio izan beharko nukeela argudiatuz, eta ez –nire kasuan gertatzen den bezala– berak 43 urte zituenean. Hauei gauza bat gogoraraztea besterik ez zait geratzen: esaera zaharrak dioen moduan, bat direla izena eta izana.

Ekain Kortabarria
Donostian, 2009ko otsailean

Editorearen oharra: Ekain Kortabarriaren ustekabeko heriotzak izoztuta utzi gaitu bere ingurukoak, hitzik gabe idazle handiaren hainbat eta hainbat miresle. Patuak nahi izan du artikulu hau aurkitzea, bere paper ugarien artean. Perfekzioaren hain zalea zen idazle donostiarrak zuzenketak egingo lizkiokeen arren, bere horretan argitaratzea erabaki dugu (gaztelaniazko izenburua errespetaturik), denontzat daukan interes metaliterarioarengatik.

[1] *Grandes personajes a fondo: Julio Cortázar* (1977). TVE.
[2] *Cortázar sin barba*. Eduardo Montes-Bradley. Editorial Sudamericana (2004)
[3] Mertxe Larrañaga; Idiakez kalea, 5. Donostia.
[4] *Cortázar sin barba*. Eduardo Montes-Bradley. Editorial Sudamericana (2004)
[5] *Rayuela*. J. Cortázar. Ed. Sudamericana (1963).
[6] *Las armas secretas* liburuan. J. Cortázar. Ed. Sudamericana (1959).
[7] *Persiguiendo a Cortázar*. Laurent Gascoigne. Ed. Le Tourne. 1995. urtea
[8] *La prosa del observatorio*. Ed. Lumen (1972).
[9] *Beltzaren koloreak; ametsen autorretratuak*. Kur galeria. Donostia. 2006ko maiatza-ekaina.
[10] *Final del juego* liburukoa. J. Cortázar. Ed. Sudamericana (1964).
[11] *El País* (2008-03-08)
[12] *Las armas al desnudo*. Txertoa, 1992.
[13] *El comienzo del juego*. Ttarttalo, 1996.
[14] *Odiamos tanto a Michael Jackson*. Bassarai, 1998.
[15] *Parchís*. Planeta, 2000.
[16] *Veinte mil viajes de lenguas submarinas*. Planeta, 2004.
[17] *Berria* (2006-5-22)

Stand-by

Ez nuen iratzargailua behar izan. Esna nengoen bostetatik, begiak erne, telebistaren *stand-by* argi gorri xeheak erakusten zidan logela iluneko sabaiari so. Iritsi zen egun handia. Eguerdirako, dena ondo bazihoan, doktore egingo ninduten; eta, garrantzitsuagoa zena, unibertsitateko irakasle-plaza, azkenean, nirea izango zen, zazpi urteko lan amaiezinaren ondoren. Akabo hamalau orduko lan-egunak, jairik gabeko asteburuak, oporrik gabeko abuztuak. Utikan tesi-zuzendari odol-xurgatzaileak, putre bihotz-jaleak. Zertarako, eta inori axola ez zitzaion ikerketa-lan bat burutzeko. Txostena bera baino izenburu luzeagoa jartzea, hori bai, hori ezinbestekoa zen: *Ingurugiroa babesteko hitzarmen internazional aldeaniztunak aplikatzeko eta betetzeko kontrol-mekanismoak eta hauen bilakaera azken ehun urteetan*. Horratx defendatu beharko nuen tesi-lana. Dena ondo aterako zen, ez neukan zalantzarik, baina jendaurreko aurkezpena zen zeremonia hark zekarren parafernaliak kirioetatik nindukan. Tragoa pasa beharra, omen.

Jo aurretik itzali nuen iratzargailua: 6:33 ziren. Nire burua ikusi nuen telebistan islatuta, erabat itzaltzera gerturatu nintzenean. Iluntasun betean geratu zen logela *stand-by* argirik gabe, lozorroan emaztea eta semea. Kafea egiten ari nintzela entzun nituen txikienaren negarrak, eta ama ohean jesartzen irudikatu nuen, umea titira ekartzen, isildu egin baitziren haren kexuak. Dutxa azkarra hartu arte ez nintzaien hurbildu.

– Lorik egin al duzu? –galdetu zidan emazteak.

Txikiak soinu ulergaitz bat egin zuen; hozka ari zitzaion oheburuari lotuta geneukan behi hori baten sudurrari. Bere pelutxe gustukoena zen Bilbo behia.

– Kafea egin dut –esan nion alkandora lotu bitartean.

– Jon, begira aitatxo. Ikusi zer guapo dagoen!

Barre egin zidan semeak esnatu berriaren masail lodi gorriekin, beheko paleta bat eta goiko atera berria erakutsiz diagonal xelebrean. Irribarre garestiko goiz hartan beste inork lor ez zezakeena erdietsi zuen.

– Azken botoi hau lotuta? –eskatu nion aholku emazteari.

– Bai.

Kasu egin nion, nahiz eta kokots azpiko ganglioak potroak bailiran estutzen zizkidan. Bezperatik lisatutako traje gris iluna jantzi, baztertu egin nuen gorbata azkenean, eta kafe beltza eztarriratu nuen ziztuan.

–Animo, maitea –esan zidan emazteak–. Ondo aterako da dena, seguru.

Musu bana eman nien.

– Han ikusiko zaituztet.

Sarrerako ispiluan neure burua behatu nuen irten aurretik. Gogor tira nion jakari behealdetik eta paparretik, zimurrak eta beldurrak uxatzeko. Arnasa sakon hartu eta ispilu parean geneukan koadroa zuzen jarri nuen goizero bezala. Begira ematen zidan koadro okertu orok, baina nik margotu nituenetatik etxean zintzilik geneukan bakar hark zuzen arraio behar zuen etxetik ateratzerako. Zuzen jarri beharra neukan, zuzen zegoenean ere. Kito. Dena bere lekuan. Prest nengoen batailarako.

Zuzenbide fakultatean ordu erdi pasatxo eman nuen areto nagusian dena prestatzen: argi egokiak, aire girotua 21 gradutan, mikrofonoaren bolumena tamainan, ordenagailu eramangarria proiektoreari lotuta, epaimahaikideen aulkiak bata bestetik distantzia ez gutxiegi ezta gehiegira ere. Bedelak ur botilatxo

bana jarria zien bakoitzari, unibertsitateko logodun bina karamelurekin batera. Denak poltsikoratu nituen badaezpada; gozoki-zorroak irekitzean entzuten den hotsa baino desatseginagorik ez dago. Tesi-defentsa egitekoa nintzen pulpitutik ezkerrera izango nituen epaimahaikideak; aurrez aurre, publikoa. Handiegia zen aretoa: berrehun pertsonatik gora kabitzen ziren, eta ez nituen hogeita hamar baino gehiago espero.

Kalera egin eta itsasalderako bidea hartu nuen. Bi ordu baino gehiago nituen. Itogarria zitzaidan areto barruko 21 graduko hozbero perfektua, eta zer esanik ez kaleko 24 gradu beroegiak. Hego-haizearekin zekarren eguna. Eskerrak gorbatarik ez neraman. Jaka besapean hartu eta itzaletik zihoan aldea aukeratu arren, ez nuen freskotasun zipitzik sentitu harik eta itsasoa mutur aurrean izan arte.

Kaioen hots higuingarria gailentzen zitzaien olatuen uluei. Jende dezente zebilen hondartzan, maiatzeko asteazken buruzuri bat izateko. Herri honetan ez al du inork lanik egiten, erretxindu nintzen. Azken urtea lau hormaren artean igaro eta gero, min ematen zidan asteazken arrunt batean jendea kalean ibiltzen zela egiaztatzeak. Zakurrarekin paseoan han, hogeita hamabost urte inguruko neska gaztea, menturaz lan-

gabetua; ikasle adineko koadrila pare bat ere bai, txaparro eta guzti hondarretan luze jarrita, apunteak eskuetan zituztela; eskuinerago, bi gizonez eta emakume batez osatutako hirukote xelebre samarra; jubilatuak nonahi, aurrera eta atzera, binaka, bakarka eta baita taldetxotan ere. Osaba Amalio eta bere *by-pass taldea* ere ez ziren urruti ibiliko.

– Ez pentsa –esan zidan Gabon Gaueko afalostean, Chivas kopari ezkerreko eskuaz eragiten ziola–, bizibizi egiten diagu egunero bi orduko ibilaldia, medikuak agindu bezala. Hori bai, hilean behin afaria, eta ez begetarianoa prezisamente.

Hirukote xelebreari erreparatu nion. Itsasora begira zeuden, hondarretan buruz gora etzanda eta ukalondoen bidez enborra altxatuta. Aldamenean, maleta marroi zikin erraldoi bat zegoen, antzinakoa zirudiena: kutxa zabal bat, ez gaur egun ikusten diren horietakoak, gurpildunak eta zapalak. Garraiatzen zaila zirudien maleta bat zen, pailazoek izan ohi dituztenen tankerakoa. Bi gizonetako bat, argal-argala, trajez jantzita zihoan. Hasierako inpresioan dotorea zirudiena, ordea, zirtzila zen ondo begiratuz gero. Zikinbrillo bat, pentsatu nuen bote-prontoan. Trajea mortzil-mortzil eginda zegoen, eta zapaten ordez kirol-zapatilla ezin

zikinago batzuk zeramatzan. Parrandazale mozkor bat, pentsatu nuen bigarren botean. Bere aldameneko emakumea bel-beltza zen azalez, eta bera bai, dotore zihoan soineko nabar loredun batekin. Hirugarren gizona ez nuen ondo ikusten, baina taldeko zaharrena zirudien: billarreko bola bat baino soilagoa zeukan burua, igeltsua bezain zuria. Ez zuen eguzki handirik hartu arrautza egosi hark.

Mutil trajedunak hondar eskukada bat jaurtiki zuen airera. Maleta marroi erraldoitik antzeman ezin izan nuen objektu bat atera, eta ur ertzera hurbilduta, orkatiletaraino barneratu zen, zapatillak bustitzeko batere beldurrik gabe. Makurtu eta objektua uretan sartu zuela iruditu zitzaidan. Plastikozko botila bat, litro eta erdikoa. Itsasoko urez bete eta tapoia jarri zion. Gero, lehengo tokira bueltaturik, botila maletan gorde, eskuaz agur xume bat egin bi lagunei, eta pasealekurantz bideratu zituen urratsak, ni nengoen pareraino. Orduan behatu ahal izan nuen, nahi bezain ondo.

Ez zen zikinbrillo bat, ezta parrandazale mozkor bat ere. Goibela zeukan soslaia, okertua gorputza maletatzarra eusten zuen besoaren aldera, zorua zaintzen zuen aurrealdea baino gehiago. Zirudiena baino

gazteagoa izango zen. Asko ibiliarenak ematen zuten zimur haiek, haize askok erasandakoak. Zapatilla zarpail busti haiek zenbat kilometro egin eta zenbat herrialdetako hautsak eta hondartzak harrotu ote zituzten? Zenbat itsasotako urak ote zeuzkan gordeta maleta hartan?

Jakin-minak hartu ninduen, eta segika hasi nintzaion. Freskatua nintzen itsasoko haize-kirriaz, eta urrun mantendu nahi nuen tesi-defentsaren mamua. Bi kale gora eginez, eskuinekoarekin izkina egiten zuen tabernan sartu zen. Halaxe egin nuen nik ere, eta L bat egiten zuen barraren alde txikian zegoen taburetean eseri nintzen; handik aurrez aurre ikus nezakeen mutila. Lurrean utzia zuen maleta, tabernaria hurbildu zitzaionerako. Bi hitz egin zituzten. Whiski bat eskatu eta itsasoko urarekin nahastuta irentsiko zuela otu zitzaidan bat-batean. Trajedunari ezer atera baino lehen, ordea, niregana hurbildu zen tabernaria. Kafe hutsa eskatu nion, barraren gainean irekita zegoen aldizkari bat leitzeko itxurak egiten nituen bitartean.

Kafea martxan jarritakoan, komunen alboan zegoen giltzaz itxitako ate bat ireki zuen. Bertan utzi zuen maletatzarra trajedunak, eta kalera irten zen. Maleta

edo mutila, nori jarraitu zalantza egin nuen, baina eskatuta neukan kafea eta bertan geratu nintzen. Segapotoak tirrin egin zidan poltsikoan. Esames bat zen, koadrilako batena: “Anmo Xa2. Erria irkin. Puto amo aiz. Or izngo gatuk!”. Hankak dardarka jarri zitzaizkidan kolpean. Nola zeukaten nire tesi-defentsa aspergarria ikustera etortzeko lan-ordu libreak eskatzea? Putaseme horiek benetan urduri jartzea lortuko zuten. Koadrilakoak, gurasoak, anaia, aita-amaginarrebak, lankideak, emaztea, semea... Jendea etorriko zen azkenean. Jendaurrean mintzatzea gustatzen zitzaidanarekin... Hamar urte baino gehiago klaseak ematen, eta ez nintzen ohitu. Ordularia begiratu nuen. Ordu eta laurden geratzen zitzaidan. Whiski bat eskatzekotan egon nintzen... Kafe hutsarenak egin nituen.

– Zenbat da?

Semearen argazkiak kirika egin zidan kartera barrutik. Lau hilabete zituenekoa zen. Bere lehen barreak, egin nuen nirekiko. Zenbat jolas-ordu lapurtu ote zizkion nire tesiak? Zenbat barre gutxiago egin ote zuen nire umore petralarengatik? Dena aldatuko zen biharamunean.

– Lor ezak lan on bat lehendabizi –esan zidan aitak, karrera aukeratzekotan nintzela–. Gero egingo duk nahi duana.

Auschwitz-en jarri zuten hura bezala, ezta? Lanak egingo zaitu libre...

– Badakik zenbat idazle, zenbat margolari, zenbat aktore dauden barraren atzean?

Lan ona lortzear nintzen. 37 urte beteko nituen abenduan. Margotzeko edo idazteko astia azkenekoz noiz hartu nuen, horrekin ez nintzen gogoratzen.

Badu eskua, esan zion behin amak aitari etxeko sukaldean, nire margoetako bat eskuetan zuela. Musu eman zidan masailean, *baduzu eskua, bai*. Aitak zorrotz begiratu zuen marrazkia: ez onespenik, ez gaitzespenik. *Bai polita!,* esan zuen nire anaia txikiak. Bera nuen miresle sutsuena. Nire margolan guztiak gustatzen zitzaizkion. Ez nuen aitaren onespenik jaso, idazlanekin hasi nintzen arte. *Ez dago gaizki,* esan zidan literaturako irakasleak ikasgela guztiaren aurrean ozen leitutako eta goraipatutako idazlana irakurritakoan. Laudorio handia zen hura aita ezagututa. Baina hurrengo batean tutoreak deitu zien gurasoei, ikaskide guztiak akabatzen zituen hiltzailearen istorioa idatzi nuelako, lehen pertsonan. *Errealistegia eta*

gordinegia, horiexek izan ziren bere hitzak. Orduz geroztik marrazteko erraztasun guztiak eman zizkidaten. Nire abilidade hura Arkitektura edo ingeniaritzaren bat egiteko aprobetxatzea nahi zuten, baina Zuzenbide ikasketak aukeratu nituen, kontra egiteagatik bakarrik, Arte Ederrak aukera posibleen artean ez zeudelako.

– Zer arte eder eta zer kristo!

– Ba kazetaritza egingo dut!

– Ezta pentsatu ere! Ingeniaritzaren bat edo arkitektura!

Ez dakit nola bukatu nuen Zuzenbide ikasketak egiten. Erdi-bidearen tranpa, seguruenik: denak gustura eta denak triste uzteko modu bitxi hura.

Ipar-haizearekin nire birikak betetzera jo nuen berriz itsasaldera. Azken arnasa behar nuen fakultatera itzuli aurretik.

Sakelakoak jo zidan bidean.

– Maitea, non zaude? –emaztea zen, kezkatu antzera.

– Paseatzera irten naiz.

– Zure zuzendariak deitu du. Ez omen zaitu fakultatean aurkitu.

– Ordubete falta da.

– Ez al zenuke...

– Laster hurbilduko naiz.

Moto baten zaratak sega-potoa ez neukan belarria estaltzera behartu ninduen. Doi-doi iritsi zitzaidan emaztearen galdera:

– Ondo al zaude?

– Ni bai. Eta zu?

Isilunea egin zen telefonoz bestaldean.

– Dena ondo joango da –esan zidan azkenean–. Primeran egingo duzu. Seguru.

Nirea izan zen hurrengo isilunea. Hariaz bestaldetik ebaki zuen emazteak:

– Zurekin egoteko desiratzen nago.

Korapiloa egin zitzaidan eztarrian.

– Animo, maitea –jarraitu zuen–. Azken-azken txanpan zaude. Oraingoan bai. Hiruzpalau ordu barru libre izango zara.

Libre, errepikatu nion nire buruari. Libre margotzeko, libre idazteko, libre nahi nuena egiteko.

– Jardunaldi jarraitua egin dezakezu hemendik aurrera, eta arratsaldeak libre izango ditugu nahi duguna egiteko! Hirurok elkarrekin! Plan pila bat ditut buruan!

Sakon hartu nuen arnasa.

– Laster naiz fakultatean –esan nion, lasaia izan nahi zuen tonu sosegatu antzeko batekin.

– Animo, maitea.

Eten egin nuen deia.

Pausoa emanik pausoari, itsasertzean nengoen berriz. Birikak bete nituen fuerte, eta ahotik bota nuen arnasa. Bizpahiru aldiz errepikatu nuen prozesu hura. Geroz eta jende gehiago zegoen hondartzan, hamaikak pasatxo ziren horretan. Uda ematen zuen. Plano bat ezin interpretatuz zebilen turista bikote bat nekusan nigandik gertu. Hauek ere galduta, egin nuen nire artean. Azken begiratua bota nion hodeiertzari, fakultateko bidea hartu aitzin.

Ondo atera zen dena. Bikain - Cum Laude, txaloak, besarkadak eta musuak jaso nituen, eta hamaika zorion-mezu sakelakoan. Emaztea hunkituta ikusi nuen, begiak diz-diz. Semea ere irribarretsu zegoen, saltsa haren erdian protagonista bihurturik azkar asko. Hau da hau ero koadrila, pentsatuko zuen pentsatzerik balu. Lankideekin, familiarekin eta lagunekin cava pixka bat edan genuen garaipena ospatzeko. Garaipenaren gola nik sartu nuela ematen zuen.

Agudo abandonatu genuen herri xehea. Epaimahaikideekin eta zuzendariarekin *Bodegón Alejandro*n genuen oturuntza, doktore berriaren kontura: tesitxostena irakurri eta defentsara etortzeko sortutako eragozpenen truke egindako mesedea teorian, dena ondo joan dadin ziurtatzeko eroskeria praktikan. Bazkari aspergarriagorik!

Ardoa lodi edateko aprobetxatu nuen. Errazago ateratzen dira esker oneko hitzak, mingaina trapu ustel bat bezain latz duzunean. Whiski eta pattar onenak ere airean ibili ziren bazkalostean, etsairik handiena ere lagun bihurtzeraino. Handik elkar besarkatuta ez irtetea izan zen gehien harritu ninduena. Itsasertzeko haize kirriak ez zigula txarrik egingo deliberatu genuen.

Dezente ibili ginen. Izerdia egin genuen gutxienez: eguzkiak ez zuen tregoarik ematen eta gorputzak bazeukan zer kanporatua. Konturatzerako, goizean egona nintzen leku berean geunden, hodei-zinta berberari begira. Dar-dar egin zidan sega-potoak izter aldean. Emaztearen esamesa zen: “Zorionak maitea! Primeran egin duzu! Ondo ospatu! Hurrena gurekin, e! Desiratzen nago zurekin egoteko. Mz”.

– Beautiful –atera ninduen nire baitatik Irlandatik etorritako doktore ospetsuak, zerumuga miretsiz.

Whiskiaren filtroak argazki guztiak edertzen dituela esatekotan egon nintzen, baina ez zitzaizkidan ingeleseko hitzak ezpainetara etorri. Damutzeko gauza bat gutxiago biharamunean.

Baporetxo bat ikusi nuen urruntzen horizontean. Abesti bikain harekin gogoratu nintzen: *dena pasaten da, mina bezala, denbora bezala, bafor bat hodeizintan bezala.* Hantxe nengoen ni ere goizean, hodeiertzaren alde honetan, eta egina nuen egin beharrekoa, igaroa nintzen zerumugaren alde ezkutura. Bapore bat hodei-zintan bezala.

Zuzendariak hondartza ondoko kafetegia proposatu zigun:

– Lehorra diat eztarria –esan zidan barrez–. Gehiegi hitz egin diat orain ere!

– Hartuko dugu garagardo bat –onetsi nion.

Kafetegira gindoazela, goizean bisitatu nuen tabernarekin oroitu nintzen. Bi kale gorago zegoen.

– Segi zuek –esan nion zuzendariari–. Gauza bat jaso behar dut hemen, ondoko taberna batean. Eskatu nahi duzuena.

Nora nindoan galdetu zidan builaka epaimahaiko batek, baina lepoa jiratu orduko zuzendaria ikusi nuen azalpenak ematen, eta erantzunik eman gabe jo nuen aurrera.

– Kafe bat jarriko didazu, mesedez? –eskatu nion barraren atzean aurkitu nuen tabernari hanpatuari. Ehun kilotik gora izango zituen emakumeak, dena bular, dena izter, baina tenk zituen haragiak bere handian. Arin mugitzen zen barraren atzealdean, doi kabitzen bazen ere. *Amarcord*-eko botikaria berreskuratu nuen memoriaren zulo lizun batetik.

– Hutsa?

Baiezkoa egin nion buruaz.

– Kuriosoa da –esan nion, alkandorako azken botoia askatzen nuen bitartean–. Whiski bat eskatzen duzunean whiski hutsa nahi ote duzun inork ez dizu galdetzen. Hutsa edo izotzarekin? Inork ez dizu galdetzen. Kuriosoa, ezta?

– Whiski bat nahi duzu?

– Ez, ez.

Hura ez zen erretena, hura Pirinioetako balkoia zen.

– Tira, bai, jarri whiski bat.

– Hutsa edo izotzarekin?

– Izotz-koskor bakar batekin.

– J&B, Johnnie Walker, Ballantine’s, Macallan...?

– Ba al duzu Chivas?

– Ez.

– Johnnie Walker orduan.

– Kafea ere bai?

– Hutsa, mesedez. Baina betea.

Marmarka joan zen kafetera aldera. Itzali egin nuen sega-potoa. Bera eta ni besterik ez geunden tabernan, eta ilunantz hartan bazuen erotismo punturik emakumetzar hark. Jadanik urdaileratutako likido likits jariakor guztiek ere lagunduko zuten seguru asko. Barraren kontra nire egiten imajinatu nuen une batez. Berotu egin nintzen. Titietara disimulurik gabe begiratu nion, kafea ekarri zidanean. Berdin, whiskia gerturatu zidanean. Ohituta zegoela zirudien.

– Goizean izan naiz maleta batekin –hasi nintzaion Johnnie laguna besarkatu orduko.

– Zurea al da? Eskerrak etorri zaren! Oraintxe dira ekartzekoak zerbeza-kaxak, eta lekua egin behar nuen. Txolok esan dit laurak aldera etorriko zinela, eta ja ez nekien zer egin...

Maletatzarra gordeta zegoen atea ireki zuen.

– Hildako bat al daramazu? Behi batek baino gehiago pisatzen du...

– Utzi, utzi –bi eskuez heldu behar izan nuen barra aldera eramateko.

Taburetean eseri nintzen. Hiru gizonez osatutako taldetxo bat sartu berri zen, eta haiei hurreratu zitzaien tabernaria. Eskuetan hartu nuen whiski edalontzia, eta urrezko edabearen prismatik behatu nituen taberna-zulo hartako zokoak, hirukote sartu berria, nire bihotzeko zerbitzaria. 70. hamarkadako pelikula txar horietako baten baitan nengoela zirudien. Erotuta banengo bezala so egin zidaten hiru gizonek. Izotzkoskor bakartia urtzen ari zen edalontzian, hondora zihoan transatlantikoa legez. Arnasa hartu nuen, azkeneko aldia balitz bezala. Bukatzeko neukan whiskia. Irekitzeko maletatzarra. Zain nituen epaimahaikideak eta zuzendaria. Zain nituen emaztea eta semea. Lagunak, lankideak, etsaiak. Etxea, lantokia, herria.

Baina, eta zer maleta hura hartu eta berak egiteko zituen bidaiak egingo banitu? Berak eramandako lekuetara joango banintz? Itsaso urrunetan busti nire zapatak. Whiski gazituak edan konortea galtzeraino. Ordularirik gabe bizi. Euri azpian norabiderik gabe ibili. Maitale berriak seduzitu, ipuin zaharrak idatzi,

margotu eta margotu lo erori arte Parisko *chambre* ilun eta nazkagarri batean. Eta zer, ausartuko banintz?

Blink edan nuen whiskia. Hogei eurokoa utzi nuen barran. Hamar arte kontatu nuen taburetetik altxatu aurretik.

Korrika atera nintzen maletatzarra bertan utzita, eta ez nuen pausoa lasaitu harik eta hurrengo kale izkinara iritsi nintzen arte. Ihes betean. Zilegi balitz? Bi eskuez horman bermatuta egon nintzen, burua makur, arnasaren ohiko jario pausatua noiz berreskuratuko. Bihotz-taupadak bere onera etorritakoan soilik jaso nuen burua. Munduak bere horretan jarraitzen zuen jiraka. Artean, eguzkia zen nagusi asteazken buruzuri hartan. Jende-andana zebilen atzera eta aurrera. Begi-ertzetan txost zegiten malko-izpiak irentsi nituen arnasaldi luze batekin. Kopetako izerdia musuzapiarekin lehortu, alkandorako azken botoia lotu eta tira egin nion jakari paparretik eta behealdetik, zimurrak eta beldurrak uxatzeko.

Hondartzako tabernara abiatu nintzen. Ordaintzeko izango nituen epaimahaikoen garagardoak.

Ez da zinemazaleentzako herrialdea

Atzeko eserlekura zuzendu zituen begiak berriro. Hogei urte izango zituzten gutxi gorabehera, baina hamalaukoak zirela esango zukeen: ume mokoak! Xuxurlaka pelikula osoan!

Javier Bardemen plano amerikarrak betetzen zuen pantaila erraldoia. Autoa bide-bazterrean utzita, errepide ertzeko dendatxo horietako baterantz zihoan, bakerozko jaka eta kopeta estaltzen zion orrazkera psikopata harekin. Su-itzalgailu gorri arrunt bat zirudien tramankulu hura arma hilgarria zen bere eskuetan. Agure batek egin zion harrera:

– Kaixo, egun on. Zerbaitetan lagun zaitzaket?

Ferminek gibelera so egin zuen beste behin. Shshshsh, errieta eman zien hamaikagarren aldiz. Hiru neska ziren, eta haietako batek begirada desafiatzailea bota zion bueltan. Harroputz halakoa, esan zuen bere kabutan Ferminek, pelikularen hasieratik isiltzeko adierazi, eta haiek hala ere segi eta segi, txutxu-mutxuka aurrena, krispetak janez gero, barrez hu-

rrena... Coca-Cola lata bat ere ireki ez zuten ba pelikularen erdian!

Bardemek txanpona bota zuen airera.

– Aukeratu –agindu zion agureari.

Ferminen aldamenean, besaulkian hondoratuta zegoen bere emaztea, Bardem zoroarekin izututa, atzeko marmarrei entzungor. Bazekien, agureak txanponaren aldearekin asmatu edo ez, berbera izango zela emaitza. Berriz barreak sentitu zituen atzealdean Ferminek. Adrenalina zerion, baita belarriko zuloetatik ere, eta ez pelikularen eraginez preseski. Beti higuingarriren bat tokatu behar alboan, edo aurrean, edo atzean. Ez da zinemazaleentzako herrialdea!

Zerbait esango zien pelikula bukatutakoan. Ez zen posible. *Ez al duzue ikasi zineman ez dela hitz egiten!* Baina etxera bidean imajinatu zituen, metroan algaraka, ahots lodia jarrita bata besteari esanez burlaizearekin: *ez al duzue ikasi...*

Amaitu zen pelikula, piztu zituzten argiak. Besaulkitik jaiki eta, emazteari jaramonik egin gabe, desafioz gibelera begira geratu zen Fermin, panazko jaka jantzi bitartean. Filmaren bukaeraz ziharduten hiru neskatoek. Sumatzen zuten Ferminen begiratua gainean, bazekiten haserre zegoela, baina berdin zitzaien.

– Abisatu dizuet kakatzar bat zela bukaera –esan zien politena zen neskatoak beste biei.

Pelikularen amaiera kontatzen duten horietakoa, gainera. Borborka zeukan odola Ferminek.

– Buf –esan zion emazteak–, ez dut erdia ere ikusi.

– Ez dakit zergatik etortzen zaren. Bazenekien ezingo zenuela jasan.

Ez zuen pelikula ikusi eta ez zen atzekoekin izandako *pelikulaz* ohartu ere egin. Meritua behar zen, gero.

Berokiak jantzi eta kalerako bidea hartu zuten neskatoek. Fermini bizkarra eman aurretik, imintzio petral bat egin zion pinpirinak, zer begiratzen duk, izorratu hadi, esanaz bezala. Horixe bakarrik behar zuen...

– Zoaz etxera –esan zion emazteari.

– Baina...

– Segi etxera eta afaldu zuek.

– Bakarrik joan behar al dut ordu hauetan? –galdetu zion emazteak, Bardemen oxigeno-botila gogoan.

– Ez esan txorakeriarik. Haize pixka bat behar dut.

– Haize pixka bat? Erotuta zaude. Bihar lanera joan behar dugu. Nik ez dizut gauerdian afaria prestatuko. Haizea hartzera... Nori okurritzen zaio.

Hiru nesken atzetik abiatu ahala entzun zuen emaztearen purrustada, pausoz pauso gero eta ahulago.

Jende ugari zebilen zinemaren inguruetan, eta horrek hurbil samarretik jarraitzea ahalbidetu zion hasieran. Zinematik berrehun metro eskasera zegoen metro-geltoki zuloan geratu ziren une batez, farolaren argipean elkarri bi musu ematen.

– Ondo hasi astea.

– Ea hurrengoan zerbait politagoa ikustera eramaten nauzuen, ez dakit ba, zerbait erromantikoagoa.

Aitatxoren alabak, pentsatu zuen Ferminek. Pa eta pa.

– Ez ukatu Bardem benetan ikusgarri dagoela.

– Alkandora kendu duenean, ikusi duzu? Orrazkerarengatik ez balitz...

– Hurrengoan komedia bat, mesedez.

– Hori, hori.

Aurpegiera politeko neskatoa bakarrik sartu zen metro-zulora, eta Ferminek ez zuen zalantzarik egin. Gaueko hamarrak. Igandea. Lotara zihoan hiria. Hasierako jende saldoa barreiatu egin zen bideak banatzen joan ahala, eta neskaren arrastoa galtzeko beldurrik gabe egin zuen segikako bidea. Linea berderantz jo

zuen, eta halaxe egin zuen Ferminek. Geltokian, erabatekoa zen isiltasuna. Jendea astelehenerako zegoen astebururako bainoago, beren burutazioetan galduta denak, ezer esateko eta entzuteko gogorik gabe.

Segituan etorri zen trena, karranka eginez. Beste ate batetik baina bagoi berean sartu zen Fermin. Barruan, leku berera jo zuten biek, eta bagoi hartako koordenatu ezezagun batean gurutzatu ziren euren begiratuak une batez. Irribarre egin zion neskatoari. Ferminen soa ekidin nahian, beste norabait zuzendu zuen berea neskatoak. Kopeta belztu zitzaion, gizon hura non ikusi ote zuen gogoratu nahian. Eseri egin zen, eta baita Fermin ere parez pare. Haien artean bizpahiru pertsona zeuden zutik, ondo elkar ikustea eragozten zietenak.

Ferminen aldamenean azal beltzaraneko mutil gazte bat eseri zen. Ekuadortarra edo. Panazko jakatik berrogeita hamar euroko bi billete atera eta hari luzatu zizkion:

– Zure txaketa nirearen ordez, eta ehun euro hauek zuretzat.

Beltzaranak ez zuen bitan pentsatu. Ezin esan Ferminen panazko jakarekin ekuadortarra arraro samar ez zegoenik; batez ere, handi samar geratzen zitzaio-

lako. Xelebreagoa zen, ordea, Ferminen irudia, zilborreraino ozta-ozta iristen zitzaion bakerozko jakarekin.

Zutik zegoen jendearen desoreka eragiten zuten metroaren balantzek, eta halakoetan Ferminek aurpegiera politeko neskatoa ikus zezakeen –orain bai, orain ez– metroaren zanbuluen erritmora dantzan ari ziren gorputz anonimo haien artetik. Begiratuak gurutzatu zituzten bigarrenez, eta orduan bai, orduan ohartu zen bera nor zen igarri zuela neskak.

Betaurrekoak erantzi eta bakerozko jakaren poltsikoan sartu zituen. Hurrengo geltokian jende dezente atera zen; lotura zeukan bosgarren, zazpigarren eta hamargarren bideekin. Ateak ixtera zihoazela, salto batean jaiki eta bagoitik irten zen neskatoa. Ateekin borroka egin ostean soilik lortu zuen ateratzea Ferminek ere. Ozta-ozta.

Neskatoa ez zen geltoki hartatik mugitu. Hantxe geratu zen hurrengo trenaren zain. Fermin bi metro eskasera jarri zen, bere atzealdean. Ez zitzaion axola ikus zezan. Are, aldamenean zeukala igartzea nahi zuen, bere arnasa epel sentitzea kaskezurrean.

Neskatoak buelta eman zuen bat-batean:

– Zer nahi duzu!

– Zer? –esan zion Ferminek, harrituarena eginez.

– Barkamena eskatzea nahi duzu? Hori da, ezta?

– Elkar ezagutzen dugu?

– Erotuta zaude!

Metroa iritsi zen. Jada ez zekarren horrenbeste jende. Barrura sartu zen neskatoa. Fermin ere bai. Aurrez aurre eseri zen berriz ere Fermin. Betaurrekorik gabe ez zuen ezer askorik ikusten, baina neskatoak begirada ekiditen ziola nabaritzeko adina bai. Ez zait hain gaizki geratzen, pentsatu zuen Ferminek bere jaka berriari behealdetik tiraka. Garrantzitsuena falta zitzaion, dena dela: ilea! Lisoa zeukan Ferminek, baina albo batera orraztuta zeraman beti. Eskuarekin ilea kopetaren gainean zabaldu zuen, Paul McCartneyk hirurogeietako hamarkadan izan zuen tankeran. Atzean zeukan beiraren islan behatu zion bere burua-ri. Ez, ez zeukan Bardemen antzik batere, baina pelikula ikusi berri zuen bati gogorarazteko adina bai. Neskatoak begirada okertu zuen, higuinez.

Husten ari zen trena, geltokiz geltoki; hamar bat pertsona soilik geratzen ziren bagoian. Belarriak zulatzeko modukoak ziren metroaren arrantza mingarriak. Neskatoa urduri sumatu zuen, giharrak tenk, lurrera zuzendurik begiak. Ferminek irribarre egiten zion,

begi-zeharka begira zeukala sumatzen zuen bakoitzean.

Isiltasuna nagusitu zen hurrengo geltokira iritsi zirenean; takoi-hots bakarti baten soinua soilik estazio desertuan. Supituan eserlekutik altxatu eta aterantz jo zuen neskatoak, deabruak hartuta bezala. Adi zegoen Fermin, eta atzetik segitu zion. Bagoitik irten, geltokian metro batzuk lasterka egin eta hurrengo bagoira igo zen neskatoa. Gauza bera egin zuen Ferminek haren atzetik: bagoi barrura sartu zen, baina neskatoak hurrengo atera jo eta handik ihes egitea lortu zuen doi-doi, ateak itxi aurretik. Barruan geratu zen Fermin, itxi berria zen ateari ukabilkadak eta ostikoak ematen.

Metroa martxan jarri zen. Banatzen zituen kristalaren bestaldetik, oraindik arnasestuka, erdiko hatza erakutsi zion neskatoak, I-ZO-RRAI ahoskatzen zuen bitartean, ondo ahoskatu ere. Trenaren burdinazko oihu histrionikoek ere ezin izan zuten desitxuratu ezpainen lengoaia mutu hartan neskatoak bidalitako mezua, eta bere azalean zigilatutako morse-letrak bailiran sentitu zituen Ferminek banan-banan: I-ZO-RRAI! Astiro, abiadura hartu, eta tunelean desagertu zen metroa, ferietako beldurraren etxean barneratzen den orgaren moduan.

Neskatoa estazioko aulkian eseri zen, artean erabat laxatu gabe. Arimarik ez ezker-eskuin; fluoreszente zurien burrunba ahula soilik, erle temati galdu bat bezala. Gustura entzun zuen hurrengo metroa estaziora sartzen. Hamaikak hamar gutxi ziren. Badaezpada beste bi pasatzen utzi eta hirugarrenean igo zen. Aspaldi behar zuen etxean! Lasaitu egin zuen bospasei bidaiari bazirela ikusteak.

Tunelean barneratu zen trena. Kanpoko erreferentziarik gabe, airean zihoala zirudien, zulo beltz urrun horietako batean galdutako espazio-ontzi baten gisan. Argia ikusi zuen neskatoak: berearen aurreko geltokira sartzen ari ziren. Behar baino gehiago hondoratu zen besaulkian, bere burua ezkutatuz.

Hiru pertsona jaitsi ziren eta ez zen inor sartu. Arnasa hartu zuen, bozinak jo zuen, ateak itxi ziren. Hasperen egin zuen, lasaituta. Paranoiak jota zegoen: ez zeukan kezkatzeko motiborik. Etxera bueltan behar zuen astakirten hark; aspaldi joana izango zen. Ikusi zuen zineman: emazte bat zeukan zain, seme-alabak ere bai seguruenik. Amaitu zen jolasa. Galdu zuela onartzea, ez zeukan beste erremediorik. Zergatik, eta zineman isilik egon ez zirelako! Zoro demonioa!

Abiadura hartu zuen trenak. Berrogei bat urteko bi emakume zihoazen elkarren ondoan, isil antzean, bagoiaren ezkerraldean. Eskuinaldean, lo-zomorro zihoan agure bat. Luze egin zitzaion tunela neskatoari, baina ez bukatzea ere desiratu zuen. Geltokira sartzearekin batera iratzarri zen agurea –ezkutuko alarmaren bat balu legez–, eta non zegoen ikusirik, altxatu eta aterantz hurbildu zen. Linea berdeko azken hirugarren geltokia zen. Denak altxatu ziren, baita neskatoa bera ere: huraxe zuen helmuga, etxean zegoen ia. Estazio desertuan gora eta behera eraman zuen begiratua. Ez zen inor ikusten bertan, edo..., bai, gizon bat zegoen, han, geltokiaren erdian, aulki batean eserita. Gizon bat... Ez, ez zen posible. Ezin zitekeen bera izan. Nola zekien, nola daki...

Bakerozko jakadun gizona –begirada galdua– plastikozko aulki berde batean eserita dago. Ez da beste inor ageri geltoki mortuan. Halako batean, metroaren marru basatiek iratzarrita bezala, burua altxatu du gizonak, eta haren begiek topo egin dute metroaren barruan datorren neskarenekin. Aulkitik altxatzen ikusi du neskatoak, trena mantso-mantso geratzen ari den bitartean. Neskatoaren bagoia, broma txar bat bailitzan, bera dagoen pareraino iritsi da, patuaren jokaldi

ustel batek eramanda. Irribarre egin dio kristalaz bestaldetik gizonak, ile nazkagarri horrekin, eta ezkerretara bi urrats nahikoa izan ditu neskatoa zutik dagoen ate aurrean kokatzeko, justu trena geratu den une berean. Kristalaren bestaldean, zerbaitekin jolasten ari da gizona. Zerbait bota du airera. Txanpon bat. Txanpon bat da.

Ateak ireki eta irten egin dira agurea eta bi emakumeak, bakerozko jaka txikiegi batekin jantzitako gizon arraroari begi-zeharka so eginez. Neskatoa ere saiatu da.

– Et, et, et... Guk aurrera jarraitu behar dugu.

Bagoi barrura bultzatu du besoetatik zakar heldu-ta. Han ez dago beste inor. Trenak abiadura hartu du astiro-astiro. Estazioko argiek isla arraroak marraztu dituzte bagoi barruan, metroa tunelean barneratu arte. Oxigenorik gabeko kaxa huts bat bezalakoa da bagoia.

Begiak gorritu, aurpegia itxuragabetu zaio neskatoari, inoiz egindako iseka eta irribarre guztiak bertan behera deseginda:

– Zer nahi duzu –galdetu dio gizonari.

– Badakizu... –airean jarri du txanpona; zazpi, zortzi, bederatzi buelta eman ditu oxigenorik gabeko ba-

goiaren zeruan, berriz ahurrarekin jaso eta izter gainean paratu duen arte, eskuaren azpian.

Kurba erre baten erruz txirrio egin du metroak karrankaren gainetik. Destainazko irri-erdi bat bota dio Ferminek, Bardemen ezpainetatik erauzitako agindua eman aurretik:

– Aukeratu!

Laurak eta hodei

Manda huevos, murmurikatu zuen berekiko izerdiz blaitutako Ramirok, oinez igotzen zituen bitartean, beste erremediorik gabe, Alcobendasko Jarama kaleko bere etxerainoko 216 eskailera aluak, banan-banan, bat bestearen ondoren, zortzigarren pisuraino, octavo ce.

Berrogei urte baino gehiago Deco S.A. enpresarentzat lanean, dena konpontzen dugu, igogailuak, eskailera mekanikoak, igo eta jaitsi egiten den guztia, eta orain hura. Egun osoa igogailuak konpontzen jardun eta gero, laugarren eta bosgarren solairuen artean trabatu zirenak edo bigarren eta hirugarrenaren artean –zer axola dio–, eta baita eskailera mekanikoak ere, ez gora ez behera ez aurrera ez atzera, geratutakoak, bat-batean den-denak, ados jarri izan balira bezala, laurak eta laurden laurak eta hogei aldera, birus informatiko batek eraso balitu legez, horiek guztiak konpondu ondoren, hamabi ordu 40 gradutan lanean eman eta azkenean infernuko zulotik irten eta gero, etxera iritsi, hogar dulce hogar, eta berak, Ramiro zaharrak, oinez igo behar zortzigarren solairu de-

monioraino, hain zuzen igogailu madarikatua matxuratuta zegoelako, NO FUNCIONA.

Etxean, hori bai, dena zegoen bere lekuan: telebista, bolumena topera igota; loretxo horidun sofa urdinaren gaineko koadroa, okertuta, bertako belaontziak –enbataren aurka borroka egitearekin nahikoa ez eta– itsasoa maldan gora duela; Zaragozako loreontzi txinatarra, lorerik gabe; ezer ikusi nahi ez duen tximinoa, begiak bere eskuez estalita; Carmen; erositakoan zuria zen alfonbra grisa, horituta; Maria Dorada gaileta-kaxa hutsik, pinu txarrez egindako mahaitxoaren gainean; eztei-egunean Carmenen gurasoek oparitutako ordulari-termometroa –zoritxarrez primeran zebilena 35 urte geroago ere–, harrera-gela eta egongela banatzen zituen zutabean betirako iltzaturik, jaungoiko gurutziltzatu bat bailitzan: hogeita bederatzi gradu, bederatziak laurden gutxi, orratz handia orratz txikia estaltzen.

Ramirok ez zeukan denbora galtzeko gogorik. Biharkoa egun gogorra izango zen. Denda askotatik pasatu beharko zuen, etxe askotatik. Jende asko izango zuen zain, trabatuta hirugarren eta laugarren solairuen artean, ernegatutako madrildar anitz, 7:34ko metroa hartzeko eskailera mekanikoa izerditu behar

izango zutenak Lavapiesen edo Tirso de Molinan edo Tribunalen edo. Dutxatu egin zen. Koipearen usaina kendu nahi zuen gainetik, izerdi zahar eta lehor hura, ozpindutako aldarte txar aldagaitz hura. Mikrouhinean sartu zuen patata-tortilla, *Marca*ko izenburuak irakurri bitartean. TODOS A UNA. El Madrid sin Zidane, se la juega ante el Bayern.

– Lotara noa –esan zion Carmeni sukaldeko atetik.

Ez zen emaztearen agurraren zain nekatu.

Bero zegoen logelan ere. Leihoa ireki eta atea itxi zuen. Hatz puntekin uki zezakeen logelako aire lodia. Seietan jarri zuen iratzargailua. Hamarrak hamar gutxi ziren; orratz handiak orratz txikia estaltzen zuen.

Esnatu zenean, sei eta erdiak dira. Hori asmatu ahal izan du orratz txikia orratz handiaren atzean ezkutatzen dela konturatu ondoren. Janzten hasi da presaka, iratzargailuak seietan jo ez zezan zer arraio egingo zuen gaizki pentsatzen duen bitartean. Edo ez dabil ezer herri alu honetan...

Orraztu gabe atera hurbildu da, eta etxetik atera aurretik, a) enpresako Renault Kangoo zuri-zerriaren

giltzak hartu ditu –Deco S.A., denetarik konpontzen dugu, igogailuak, eskailera mekanikoak eta abar eta abar–, b) burua jiratu eta emazteari begiratu dio, sofaren luzapen horri, zeina lotan baitago, lasai asko, ohartu gabe, ene jainkoa!, Erroman, Italia, bero latza egingo duela gaur, zirimiria Florentzian eta ekaitza Milanen, c) dena hortz den italiar putaseme irribarretsua itzali du, 5:03an esnatzea axola izan ez balio bezala, ciao bambino!, eta d) harrera-gela eta egongela arteko zutabean iltzatuta dagoen ordulari-termometroa behatu du, zeinak primeran funtzionatu baitu bere aitaginarrebak oparitu zion zorigaiztoko 1971ko martxoaren 31 hartaz geroztik –¿sí, quiero?–, 7:35 direla egiaztatzeko (orratz handia berriz ere, bereak eta bi egiten!), eta ohartzeko, beraz, beste biktima bat eragin duela gaizki dabiltzan tresnen izurriteak –Madrilgo Alcobendas herriko Jarama kaleko 32. zenbakitik hasi eta, nork daki, Erromako eguraldi-gizon irribarretsuaren etxeraino zabaldu denak–. Eta ordularia izorratu izanak, betidanik honen ordez erosi nahi izan duen eguraldi-iragarle digitalaren oroitzapenari lotuta, poz apur bat ekarri dio, keinu arraro batean bilakatu dena eta –nondik begiratzen den– irribarre bat dirudiena,

zeina supituki desagertu baita ohartu denean oinez jaitsi behar dituela kalerainoko zortzi solairuak.

Callao kaleko El Corte Inglesera iristean, beroa iraingarria da, asfaltoa tolestu egiten da bere begiradapean. Normala eskailera mekanikoak izorratzea. Barruan, giro arraroa dago. Lasaiegi bezala, isilegi, bareegi. Ez da hari musikalik entzuten, ez bezeroen marmarrik, ezta besoak gurutzatuta dauden saltzaile urrien elkarrizketarik ere. Eta, noski, ez da entzuten eskailera mekanikoaren soinu urrun, antzemanezin baina nekagarri hori. Denbora gelditu balitz bezalakoxea da, pentsatu du Ramirok une batez. Arduradunak patxadaz mozorrotutako errieta batekin hartu du, soseguz hitz egin dio, jarraidazu mesedez, norbait esnatzeko beldur balitz bezala, lagungarria izan zaiona Ramirori, eta ez du aitzakia gisa bere zerbitzuaren zain dauden gainontzeko hogeita hiru lekuak aipatzeko beharrik sentitu.

Bidean, osagarrien ataletik igaro dira. Poltsak, zapiak, kapelak, eguzkitakoak, aterkiak. Horiek dituk horiek titiak, pentsatu du Ramirok, zinta berdedun lastozko txapel bat soilik daraman manikiaren albotik pasatzerakoan. Beherapenetan gaude, diotso arduradunak. Drogeriako sailetik igaro dira. Eguzkitik babeste-

ko kremak nonahi; *after sun* eta *sun* baino lehen. Koloniak, eau de toilette, gizonarentzat eta emakumearentzat, Hugo, your fragance. Bitxien atalean: perlazko lepokoak, konpromisorik gabeko eraztunak, zilarrezko belarritakoak, eskumuturreko ordulariak made in Switzerland, eta, han, horman iltzatuta, ordulari gehiago. Ordulari mordoa. Ordulari mordoa eta denak... Guztiak... Hamarrak hamar gutxiago jotzen! Hamarrak hamar gutxiago honetan, hamarrak hamar gutxiago beste urdin ilun hartan, hamarrak hamar gutxiago mespretxuz begiratzen dioten ia berrogeita hamar ordularietan. Orratz handiak jan du txikia!

Arduradunaren buruko puntu batean finkatu du begiratua. Ez da posible. Ez da posible. Ezin liteke. Eta kito. Saltzaile argi ustekoren bat izango zen, beste egitekorik ez eta, ordulari guztiak ordu berean eta orratz handiak txikia tapatzen duela jarriko zituena, libre dabilen inozenteren bati grazia egingo ziola sinetsita-edo. Ramiroren begirada sentitu balu legez, arduradunak buelta eman eta irribarre egin dio. Ziur bera izan dela.

Eskumuturreko ordularian egiaztatu du ordua. Hamaikak... Hamaikak bost gutxiago! Bere ordularia ere herren dago! Begibakarra da! Nahi gabe, hormako or-

dularietara doakio begirada. Hamaikak bost gutxiago dira mespretxuz, nazkaz, begiratzen dioten berrogeita hamar ordularietan. Lasai, Ramiro, lasai. Ordulariak soilik dira. Begibakarrak, baina ordulariak. Ingurura begiratu, eta ez du inor ikusi. Saltzailerik ez, bezerorik ez. Arduraduna bakarrik, zeinak oraintxe burua jiratu baitu, ia iritsi gara, irribarrea ezpainetan. Bitxien ataletik urruntzen ari diren bitartean, Ramirori iruditu zaio, errezeloa dauka, zelatan dituela berrogeita hamar ordulariak, begira dituela adi, garondoan iltzatuta balu bezala euren begirada begibakarra.

Ramirok zirrara hotz bat sentitu du bizkarrezurrean. Aire girotua izango da, pentsatu nahi du berak, zeina –harrapazak!– primeran baitabil. Ordulariekin gertatu berri zaiona ahazten saiatu da –zelatan dauden begibakarrak–, jazotakoa ezinezkotzat joz –zain dauden hildako erlojuak–, eta, burutapen inozook uxatzeko, arduradunaren urrats bakoitza gertutik behatzea izan du helburu bakar hari segika doan bitartean, harik eta hondatutako eskailera mekaniko madarikatura iritsi diren arte. Por fin. Arduradunak alde egin duenean, Ramirok trasteak lurrean utzi, ingurura begiratu –begi-zeharka– eta erlojurik ez dagoela egiazta-

tu du. Hasperen egin du inork ez igartzeko moduan, eta lanean hasi da.

Eskaileraren mekanismoa ezkutatzen duen tapa ireki orduko igarri du betiko pieza bera hondatu dela. Aldatu, eta martxan jarri da eskailera. Astiro-astiro doa gorantz. Gorrotatzen du egiten duen soinu nabarigaitza, ezin du eraman. Arduradunaren bila hasi da, baina ez du inondik inora aurkitzen. Ezerezetik bezala agertu da, trasteak jasotzen bukatu duen une berean. Oniritzia jasota, El Corte Inglesetik irten da, zapaltzen ari den lurra begiratzeari utzi gabe, kanpora daraman bide osoan barrena.

Kalean, zilborreraino sartzen zaio beroa. Baina zarata dago, behintzat. Autoak, jendea, zakurrak, obrak. Fox-terrier bat caniche baten uzkia usaintzen ari da. Arnasa sakon hartzen saiatu da, baina ezin du. Airea lodiegia da. Ez zaio eztarritik igarotzen. Eskumuturreko ordulariari begiratu dio, senak hala eskatuta. Ordu bata eta bost. Imajinatu itsasoa. Itsaso leun eta hotz bat. Itsaso bat Madrilgo igerileku baten barruan. Ez da gose, nahiz eta ez duen gosaldu... Beroa izango da. Ordu bata eta bost!, pentsatu du Ramirok berriz begiratzera ausartu gabe. Ez da gose. Egarri, bai. Ordu bata eta bost. Espaloia bigun sentitzen du hankapean.

Bi igerileku edango lituzke. Garagardozko bi igerileku. Imajinatu itsasoa.

Ordulariari begiratu dio berriz. Noraezean dabil batetik bestera. Me cago en la puta. Sakelakoa piztu behar luke, baina hogei leku baino gehiagotara joan beharra dauka. Zergatik ez zen bazkide egingo, aukera eman zioten egunean! Puta zaharrak baino lan gehiago egin behar honek gutxiago izorratuko luke... Me cago en dios. Ordu biak eta hamar! Zerbait jan behar luke, baina ez da gose! Ez da gose, egarri baizik. Itsasoa. Bi igerileku. Ordu biak eta hamar, joder, ordu biak eta hamar!

Preciados kalearen erdian geratu da. Jendea gora eta behera doa, ezer gertatuko ez balitz bezala. Artilezko beroki lodi batean bilduta, agure bat doa espaloitik, izerdi arrasto bat utziz. Bi ume, galtza motzekin eta kamiseta tiradunekin, atzetik doazkio barrez.

Astiro-astiro, ikusiko duenaren beldur, Ramirok eskua altxatu eta eskumuturra jiratu du leun-leun, agerian utziz bere Festina dotorea. Uhal beltzekoa da, eta esfera zuria du lau zenbaki erromatarrekin: III, VI, IX, XII. Dotorea baina informala, serioa eta era berean alaia, sinplea eta modernoa. 222 euro. Bere kapritxo bakarra sei urtean. Bizitza osoa iraungo dizu, jauna,

ziur egon zaitezke. Zeurea eta baita semeena ere. Eta orain begirada hau. Begibakarraren so hau. Trufaz begira daukan laurak eta hogei hau, harrokeriaz, irribarre alu handiusteko horrekin.

Ramirok bere ordularian finkatu du zorrotz begirada. Begiak kliskatu ere egin gabe. Azaldu beharra dauka! Lehenago edo geroago azaldu beharra dauka! Artega, segundoak erortzen utzi ditu. Bueltan-bueltan dator segundo-orratza, hirutik seira, seitik bederatzira. Tak, tak, tak, tak. Eta azkenean, hamabira.

Baina minutuen orratzak ez du aurrera egin. Ez da mugitu. Minutu-orratzak bertan jarraitzen du, begikeinu bat eginez bezala, Ramiroren lepotik barrez. Zegoen tokian geratu da, tinko, orratz txikia janez, orratz txikiari larrua joz, orratz txikia estaliz, orratz txikia bortxatuz. Bai, orratz txikia bortxatzen ari da, eta barre egiten dio Ramirori. Festina putasemeak barre egiten dio, bere lepotik barrez ari da, irribarre mendekari eta gupidagabe horrekin, te ha tocado, cabronazo.

Nahiz eta. Mugitu egin da. Mugitu behar izan du. Nahiz eta Ramirok ez duen ikusi, mugitu behar izan du, zeren bere Festinan jada bostak eta hogeita bost dira. Begiak kliskatzean mugitu behar izan du... Be-

giak kliskatzean! Dena dela. Dena dela, berdin dio. Berdin begiratzen dio begibakarrak, soarekin marraztutako irribarre maltzur horrekin. Irribarre higuingarri bera antzeman dezake orratz handiaren –begibakarraren irisaren– azpian dagoen orratz txikian –begi-ninian–, bere buruaren isla obalatu patetikoa ikus dezakeen horretan. Irribarre nazkagarri bera. Begibakarrek irribarre egin balezakete bezala.

Ramiro ihesi aterako da. Preciados kalean behera joango da korrika, zer ordu den galdetuz, zer ordu izango den, eta ez da geratuko. Ez da geratuko, ordua bai?, eta odolaren taupadak sentituko ditu zainetan, sei eta erdiak, segundoen erritmora doazen taupada beltzak, igarotzen ez den minutuaren segundo horien erritmora, ordua esango?, edo bat-batean orduz aldatzen den minutuaren erritmora, zazpiak eta hogeita hamabost, zortziak eta berrogei, eta gaua erortzen zaiola sentituko du begietara, betileetara, bederatziak eta berrogeita bost, ontzian irakiten ari den gau hori, hamarrak eta berrogeita hamar, eta nahi gabe goiza etorriko da, egunsentia, haizetsu argituko du eguna, eta gaua egingo da berriz. Egunsentia, ilunabarra,

egunsentia etorriko dira. Eta Ramirok, izututa, Carretas kalean behera jarraituko du korrika, non dago orratz txikia?, bere buruari xuxurlatuz non dago, non dagoen orratz txikia. Eta halako batean euria ariko du, euria ari du zinez, baina euriaren freskurak ez du bere mina arinduko, ezta hankazpietan sendoago, seguruago sentituko duen asfalto bustiak ere, nork dauka nire orratz txikia?, eta haizearen aurka egin beharko du, aterkiei ainguren funtzioa betetzen utziko ez dien haize horren aurka, zeru horretan non ez dagoen aingurarentzat heldulekurik, ez arrokarik ez hondarrik, orratz txikia lapurtu al didazu?, eta euri hori une nabarigaitz batean, non gorde duzu?, elur maluta txikietan bihurtuko da, lurrera astiro-astiro eroriko diren elurmalutak, non dago nire orratz txikia?, lur hori, mila orrialde zuri izango dena, nork arraio lapurtu dit?, orrialde zuriak, Ramirok soilik idatziko dituenak bere urratsen arrastoarekin, elurrak berriz ezaba ditzan, ezabatuz honela Ramiroren istorioa, Ramiroren arrastoa, non sartu zara?, ezabatuz Ramiroren orkatilak, non zaude?, ezabatuz belaunak, eta Ramirok, ezingo baitu korrika egin, hotza sentituko du, hotz zimela, eta lau urrats aurrerago, Jacinto Benavente plazatik gertu, lur jota, zerraldo eroriko da, buruz gora geldituz, elu-

rretan etzanda, eta bere gainean izango duen balkoian kikilduta egongo diren usoetan pausatuko du begirada, dardararik izango ez duten uso elurtu horietan, elurrak guztiz estaliko duen arte, bere istorioa, bere istorioaren amaiera, estaliz, desagerraraziz, justu Santa Cruz elizako kanpaiak hamabiak jotzen ariko diren une berean, orratz handiak jan egin du orratz txikia.

Ipuin perfektua

Ipuin perfektua egitea zen helburua. Ez zitzaion axola ipuin bakar bat uztea bere ondasun literario gisa. Ez zuen bere obraren kantitateak kezkatzen, kalitatea zen bilatzen zuena, kalitate gorena; erabateko perfekzioa zen jomuga, bizitza osoa ipuin perfektu bakar hura egiten igaro behar bazuen ere.

Argi zeukan kontatu nahi zuen istorioa. Zazpi urte igaro zituen buruan hari horri tiraka, eta erabakita zeukan zer kontatuko zuen. Baina horixe zen argi zeukan gauza bakarra. Eman istorio on bat idazle txar bati, eta akabo istorio ona. Nonbaiten noizbait entzundako esaera horrek izutu egiten zuen. Istorioa ona zen, baina nola kontatu zen kontua.

Idazle ofizioan hasi zenean –baziren hamar urte baino gehiago–, firin-faran idazten zituen ipuinak, kontuari bi buelta baino gehiago eman gabe. Eta ez ziren txarrak. Are, jendeari gustatu egiten zitzaizkion; lehen ipuin-liburuak hala-moduzko arrakasta izan zuen. Denborarekin, ordea, bere buruari geroz eta galdera gehiago egiten hasi zen: zergatik lehen pertsonan idatzi, zergatik lehenaldian, nola erabili elipsia, nondik

hasi istorio hura kontatzen, amaieratik, agian? Hainbeste gauza ziren erabaki beharrekoak... Ordura arte natural egin izan zuena, derrepente zalantza eta duda bihurtu zitzaion.

Oinarrira jotzea erabaki zuen horregatik, teorietara. Ipuingintzari buruzko hamaika liburu irakurri zituen, baina idazleengan aurkitu zuen azkenik erantzuna. Zaharra delako daki asko deabruak. Txekhov, Quiroga, Bolaño, Cortazar, Carver, Monterroso, Borges, Hemingway... Ipuingintzan maisutzat zituen idazle guztiek zuten distantzia laburreko arteari buruzko gogoetaren bat argitaratuta, baita iritzi kontrajarriak ere tartean.

Bolañoren dekalogo sarkastikoa gustatu zitzaion asko. Laugarren manamenduak autore batzuk gomendatzen zituen –Quiroga, Rulfo, Monterroso, Garcia Marquez, Cortazar...–, baina batez ere beste batzuk ez irakurtzeko erregutzen zuen: *un cuentista que tenga un poco de aprecio por su obra no leerá jamás a Cela ni a Umbral.* Eta bosgarren manamenduarekin borobiltzen zuen aurrekoa: *a Cela y a Umbral, ni en pintura.*

Monterrosok ere bazeukan zer esana. Bere iritziz ipuingile batek inoiz ez du ezagutu behar ipuin on bat idazteko formula. Ezagutuko balu, bigarren ipuinean

igarriko litzaioke, eta aspergarria, faltsua bihurtuko litzateke dena.

Soberan dagoen guztia kendu egin behar da, esana zuen Cortazar handiak. Soberan dagoen guztia, kendu. Erraza zen esaten! Zer zen, ordea, soberan zegoena?

Denak irakurri zituen, eta banan-banan barneratzen saiatu zen, baina badaezpada laburpen-eskema moduko bat egin zuen aholku guztiekin eta ordenagailu-pantailaren atzeko horman itsatsi. Prest zegoen lanerako, edo hori uste zuen, eta ipuinaren hasiera moduko bat entseatu zuen:

“Gortina zaharrak erretiratu eta leihoa ireki zuen. Haizea ufaka zebilen; ekaitza zetorren mendietatik. Hasperen egin zuen, haize-bolada batek bere birikak bete eta horretara behartu izan balu bezala”.

Hamar aldiz irakurri zituen lerrook. Hasiera zen, ipuinaren hasiera, eta izugarrizko garrantzia du hasierak. Quirogari irakurria zion: *Ez hasi idazten, nora zoazen jakin gabe. Ipuin on batean, lehen hiru lerroak azken hirurak bezain garrantzitsuak dira.*

Cortazar are gogorragoa zen: *Har ezazue edozein ipuin bikain eta azter ezazue lehen orrialdea; harritu-*

ko nintzateke apaingarri hutsak diren osagaiak aurkituko bazenituzte.

Amos Ozen iritziz, hasiera on bat egitea, jatetxe batera sartu eta topatzen duzun lehenengoarekin zita bat lortzea bezalakoa da.

Berriz irakurri zituen idatzitako lehen hiru lerro haiek, manamendu horien guztien pisua sentituz bihotz-taupada bakoitzarekin. *Ipuin on batean, lehen hiru lerroak azken hirurak bezain...* Oihartzuna egiten zioten hitz hauek, bere garuna zen belarritik belarrirako zulo huts eta ilun hartan. Hasierako lerro haietan bazen zerbait konbentzitzen ez zuena. Ozen irakurri zituen. Bere estudioan ez zegoen inor, eta ordenagailu-pantailari errezitatzen ari zitzaiola zirudien. Sagua mugituz aldaketa pare bat egin zituen hasieratzat idatzitako lerro haietan. *Haizea ufaka zebilen, ekaitza zetorren mendietatik*, jarri zuen hasteko, bi esaldien artean koma bat jarriz, hasiera batean idatzitako puntu eta komaren ordez. *Askoz hobeto, bai*, esan zion bere buruari, egindako aldaketarekin pozik.

Atseden hartu zuen. Pixa egin zuen. Azken tantak erortzeko zakilari astinduak ematen ari zela, kanpaia jotzekotan egon zen, baina kontrakoa erabaki zuen: ez zitzaion gehiegi erlaxatzea komeni, behar zuen

tentsio apur bat. Sukaldera jo eta txokolate ontza pare bat hartu zituen frigorifikotik. Apartekoa zen laranjazko zapore urrun horrek trufa beltzarekin osatzen zuen konbinazioa. Sinesgaitza iruditzen zitzaion bi zapore hain desberdin elkarren ondoan jarrita horrelako emaitza lortzea. Gogoeta egin zuen: modu hartan uztartu behar zituen bere ipuineko elementu guztiak, azken emaitzaren mesedetan jarri behar zuen hitz bakoitza, koma bakoitza.

Ipuinaren hasiera irakurri zuen berriz ere, eta begiz jo zuen hitz bat. Gortina *zaharrak* idatzia zuen. *Zaharrak*: adjektibo bat, adjektibo *hura* jarria zien gortinei. Testua berrirakurri eta hiru lerroetan zegoen adjektibo bakarra zela ziurtatu zuen. Zergatik idatzi zuen gortina haiek *zaharrak* zirela? Funtzioren bat al zeukan adjektibo hark? Etxe horretan bizi zirenak ez zirela aberatsak esan nahi al zuen gortinei berritasunaren aukera kenduta? Edo aberatsak ziren arren ez zietela gortinei behar bezala erreparatzen? Edo aspaldian inor bizi ez zen etxe bat zen, akaso, eta horregatik ziren gortinak hain zaharrak? Eta arrazoi berberarengatik ireki ote zituen leihoak? Etxeko itxi usain hura desagerrarazteko? Esku artean zeukan istorioan ez zuen aukera horietan guztietan pentsatu, baina adjek-

tibo hark iradoki zion azken hipotesi hura –etxea aspalditik hutsa egotearena–, gustatu egin zitzaion. Baina benetan beharrezkoa al zen adjektibo hura? Etxea luzaro hutsa egon zela adierazteko ez al zen hobea gortinak horituta zeudela esatea. Eta adjektibo bat behar al zuen hura guztia adierazteko edo iradokitzeko? Baina benetan nahi al zuen hura guztia iradoki?

Quirogaren zazpigarren manamenduarekin oroitu zen: *Ez jarri adjektiboak beharrik gabe. Alferrikakoak izango dira izen ahul bati jartzen dizkiozun kolorezko isats guztiak. Substantibo zehatza aurkituz gero, berak bakarrik izango du kolore ezin ederragoa. Baina aurkitu egin behar da.*

Quirogaren manamenduari buruz hausnartu zuen. Nahiko sendoak ote ziren jarritako substantiboak? Jarritako adjektiboaren ordez, substantibo indartsuago baten bila ibili zen. Bere garunaren bidegurutze eta espaloietan arakatu arren, ez zuen *gortina zaharrak* edo *gortina horituak* ordezkatuko zukeen ezer egokiagorik aurkitu. Hasierari buelta gehiegi ematen ez ote zen ari galdetu zion bere buruari, baina ezetz erabaki zuen, egun bakar batean ipuin perfektuarentzat hasiera perfektua idaztea nahikoa bazela iritzita. Ez zegoen

erabat aseta, dena dela. Astiro berrirakurri zuen idatzitakoa. Zerbait ez zebilen behar bezain egoki hasierako lerro haietan. Aukeratu zituen substantiboei erreparatu zien. Idatzi zituenean, berez atera zitzaizkion. Izen haiek, aditz haiek bururatu zitzaizkion, natural-natural. Baina ziur al zegoen ez zela beste izenik, beste aditzik, esan nahi zuena egokiago, modu zehatzago batean adierazten zutenak? Iruditu zitzaion bere burmuina ez zela gai txoko guztietan begiratzeko, edo gutxienez ez zuela gaitasun bera ezkutuan edo itzalean zeuden zuloak aurkitzeko, eta errazkerietara jotzen zuela denontzat ikusgarri dauden hitz arruntenak aukeratuz, supermerkatu batean begien aurrean jartzen dizutena erosten duzunean bezala.

Ez zen posible, ezin zuen hitz bat aukeratu burura etortzen zitzaion lehena izateagatik, eta horren aurka egiteko modu onenaren bila hasi zen. Azkenean, lasai utziko zuen modu bakarraren alde egin zuen: hiztegia goitik behera irakurtzea, hain zuzen. Han zegoen dena, han zeuden hitz guztiak. Gogoratzen ez zuen norbaitek idatzi moduan: *Hiztegia den kutxa handi horretako elementuen konbinazio ezberdinak besterik ez dira ipuinak, nobelak eta poemak. Konbinazio bat bestea baino hobea zergatik den, inoiz ebatziko ez dugun*

misterio matematikoa baino ez da. Beraz, dena idatzita dagoela esatea zilegi da, hiztegietan egon baitago. Hitz horien ordena egokia aurkitzera mugatzen da ekuazioa.

Gainera, pentsatu zuen hiztegi potoloa eskuetan hartuta, hemen hitz guztiek aukera berdinak dituzte. Alegia, eror zitekeen bere begiratua *e* letran, eta *etxe* bezalako hitz arrunt bat irakurri adibidez, baina modu berdintsuan ireki zezakeen hiztegia *o* letran eta *omoplato* bezalako hitz eder bezain ezkutu bat aurkitu. Hiztegiak ez zuen inolako hierarkiarik; hitzen erabateko demokrazia bultzatzen zuen.

A letratik hastea deliberatu zuen, nonbaitetik hasi behar-eta. Baina iruditu zitzaion letren artean ezarrita zegoen ordena horixe zela, hain zuzen ere, hiztegi batean hitzen arteko berdintasun-erlazioa hausten zuen alderdi bakarra. Argi zegoen lehendabizi irakurtzen zuen hitzak ez ziola azkenaren inpresio bera egingo. Zergatik ez zituzten, bada, *aarondar* eta *Zwingli* hitzek aukera berdinak izango? Zoriz berrordenatu zuen hortaz alfabetoa, hiztegia aztertzeko ordena berri bat eraikiz: w g h d o v s b x a r c k m j z t i f n e p u y q l. Hizki bakoitzean, hala ere, ordena tradizionala jarraitzea erabaki zuen, erotuko ez bazen.

W, walabi, walkie-talkie, walkiria, walkman, waloi, waloiera, wapiti, Washington, water-polo, watt, wattmetro, web, weber, welter, western, Westfalia, westfaliar, whiski, whiskitegi, winchester, windsurf, windsurflari, wolframio, wolframita, wombat.

Horiek ziren euskaraz *w* hizkiarekin hasten ziren hitz guztiak. Ez ziren asko, eta ez zitzaizkion egokiak iruditu egiten ari zen ipuinerako. Hala ere, batzuk bere libretatxoan apuntatu zituen:

Washington: zer soinu polita duen hitz honek.

Winchester: inoiz armarik erosten badut, Winchester bat izango da, noski.

Wolframio: izen bikaina ipuin bateko pertsonaia batentzat, edo zakur batentzat. Wolframio, etor hadi hona! Eseri! Wolframio! Eseri!

Uste baino azkarrago –bost astean– irakurri zuen hiztegi osoa. Gezurra badirudi ere, nahiko azkar leitzen da, horretara jarriz gero. Gustura zegoen emaitzarekin. Berrehun eta hirurogeita sei hitz apuntatu zituen, bere istoriorako egokiak eta nahiko zehatzak izango zirelakoan. Ez zitzaizkion hitz gehiegi iruditzen, baina zertarako gehiago, soberan zegoen guztia kendu beharra baldin bazegoen... Monterrosok esana zuen, dinosauro zaharren jakintzaz: *ehun hitzekin*

esan dezakezuna, esan ezazu ehun hitzekin; hitz batekin esan dezakezuna, batekin. Txekhovi ere irakurtzen zuen ezer ez zitzaion behar bezain laburra iruditzen...

Jarri zen ipuina berridazten, baina beste zalantza batek hartu zuen, agudo. *Elhuyar* hiztegia irakurri zuen hitz egokienen bila. Berarentzat hiztegi hori zen euskarazko hiztegi onena, osoena. Baina horrek ez zuen esan nahi hutsuneak ez zituenik. Zein hiztegik ez dauka hutsunerik? Ipuina berridazten jarri aurretik, euskarazko beste hiztegiak ere irakurri behar zituzkeela pentsatu zuen, gero idatzitakoa *berberridaztea* zailagoa izango zela iritzita. Hiztegi Batua, Hiztegia 3000, Orotariko Euskal Hiztegia, Sinonimoen Hiztegia, Hiztegi Terminologikoa... Ezagutzen zituen guztiak irakurri zituen bakoitzetik interesgarriak iruditu zitzaizkion hitzak apuntatzen zituen bitartean. Hasierako zerrenda ez zen asko luzatu hala eta guztiz, eta gehitu zituen hitzak, irakurritako lehen aldian ez, baina bigarrenean edo hirugarrenean egokiak iruditutakoak izan ziren gehienak, eta ez aurreko hiztegietan azaltzen ez zirenak. Bitxia zen –ondorioztatu zuen– hitz batek ezer ez esatea irakurritako lehen aldian, baina bigarrenean edo hirugarrenean hamaika leiho zabaltzeko gai iza-

tea. Kontuak kontu, hirurehun eta hogeita hamaika hitz bildu zituen guztira prozesu haren amaieran, sei hilabeteko irakurketa-lan neketsuaren ondoren. *Tristura*, *guraize*, *ubeldu*, *aspirina* gisako izenak zeuden zerrenda horretan, baina baita *biziki* edo *akaso* bezalako adberbioak edota *pausatu*, *usteldu* eta *lausotu* moduko aditzak ere. Denetarik zegoen.

Eseri zen orduan ordenagailuaren aurrean, eta ipuinaren hasiera berridazteari ekin zion: *Haizea ufaka zebilen; ekaitza zetorren mendietatik.* Bai, koma hura ez zegoen guztiz ondo; puntu eta koma behar zuen zalantzarik gabe. Barre egin zuen horrenbeste kostatu zitzaion erabakia berriz atzera bota behar izanaz, eta egun osoa testu bat lantzen eman ondoren koma bat soilik kendu zuen Oscar Wilderekin oroitu zen, testua hartu zuen hurrengo aldian kendutako koma hura berreskuratu baitzuen hark ere. Alfred Hitchcock berak ere badu argazki bat, plano bat 167. aldiz errepikatzen ari dela salatzen duena. Horien aldean, huskeria galanta zen bere perfekzionismoa!

Hiztegietatik lortutako hitzen zerrenda errepasatu zuen. Hor zeuzkan elementuak, haiek ziren errezetarako behar zituen osagaiak. Jaki gutiziatua prestatzea

besterik ez zen falta. Gortinei adjektiboa aldatu eta ordura arte idatzitakoa berrirakurri zuen:

“Gortina horituak erretiratu eta leihoa ireki zuen. Haizea ufaka zebilen; ekaitza zetorren mendietatik. Hasperen egin zuen, haize-bolada batek bere birikak bete eta horretara behartu izan balu bezala”.

Gero, eskuak teklatuaren gainean kokatuz, esaldi hau gaineratu zuen, tekla bakoitza kontu handiz sakatuz:

“*Hasperena, pentsatu zuen gereziondoaren gainean pausatu berri ziren kardantxiloei begira, hasperena baita tristuraren aurkako aspirina”.*

Aulkitik altxatu zen bortizki. Esaldia ondo zegoen. Penaren aurkako aspirina, tristuraren kontrako medizina, hasperena. Polita zen. Gainera, esaldiak zeukan esanahiaren indarraz aparte, aliterazioa lortu zuen aspirina eta hasperena hitzen soinu-antzekotasuna baliatuta. Horrek oraindik hobea egiten zuen esaldia, ala ez, ez zegoen seguru, baina arazo bat azaleratzen zion: testu baten zolitasunak –musikak, alegia– garrantzia baldin bazeukan –eta argi zegoen bazeukala– zergatik idatzi euskaraz? Edo beste modu batera esanda, zergatik idatzi euskaraz *bakarrik*? Milaka hizkuntza daude munduan. Zergatik mugatu behar zuen

bere ama-hizkuntzara? Zer demontrek galarazten zion beste hizkuntza bat erabiltzea? Zergatik ez zituen gaztelania, frantsesa, ingelesa edota italierazko hitzak ere erabiliko? Hizkuntza bereko hitzekin halako doinu berezi bat lortu bazuen, zer gehiago lor zezakeen hizkuntza desberdinetako hitzak uztartuz? Gainera, badira hitzak hizkuntza batean soilik existitzen direnak, eta beste batean ez. Hizkuntza batenak direnak, berezkoak. Nola adierazi gaztelaniaz gizon hura *petralduta* dagoela? Zein da ingelesezko *jazz* hitzaren euskarazko ordaina? Eta existitu arren, hizkuntza batean hitz batek daukan indarra ez da hitz horren itzulpenak daukanaren laurdena. Gaztelaniazko *angustia* hitzaren larritasunaren erdia soilik zergatik adierazten du euskarazko *estutasun* hitzak? Kardantxiloa gerezindoan pausatzea zergatik da *el jilguero se posó en el cerezo* baino ederragoa?

Zapatak jantzi eta kalera irten zen ziztuan. Ez zeukan denbora galtzerik. Ohiko liburu-dendara joan zen bere Opel Kadett zaharkituan. Frantsesa-Gaztelania, Ingelesa-Gaztelania, Ingelesa-Euskara, Italiera-Gaztelania... Hiztegi elebidun mordoa eta hizkuntza bakoitzeko sinonimo-hiztegiak erosi zituen, eta autoa ondo kargatuta itzuli zen etxera.

Hurrengo hilabeteak hiztegiok irakurtzen eman zituen, bazkaltzeko ere etenik egin gabe. Hiztegia alboan zuela irensten zituen, nola latako sardinak, hala sobreko zopak, poteko zainzuriak edo etxera ekartzen zizkioten lau gaztako pizzak. Bere lanari zeharo emana bizi zen. Lo ere doi-doi egiten zuen, errendituta hiztegien gainera aurpegia erortzen zitzaionean soilik.

Bederatzi hilabete iraun zuen azterketa honek –haurdunaldi bat–, eta ia mila hitz berri apuntatu zituen bere libretatxoan: *jump*, *affaire*, *macabro*, *luxemburgués*, *bollocks*, *truly*, *empty*, *avec*, *mercenario*... Azterketa zabala eta sakona izan zen, osoa eta hutsunerik gabea, eta betiere hasierako helburuak gidatutakoa: ipuin perfektua osatzeko hitz egokienak eta zehatzenak topatzea.

Azken hiztegiaren azterketa amaitzen ari zela, ordea, beste ideia *inozo* bat izan zuen, bere zoritxarrerako (edo zorionerako, ez zegoen guztiz ziur). Egia zen, bai: irakurri zituen, irentsi zituen ezagutzen zituen hizkuntza guztietako hiztegiak, aukeratuak zituen egokienak iruditu zitzaizkion hitzak, baina ez ote zen akademikoegia izan, ez ote zen zintzoegia izan, inuzenteegia alegia, edonork aurki zitzakeen hitzak

harturik soilik kontuan. Eta beste norbaitek –kasualitatez bazen ere– hitz berberak aukeratzen bazituen! Hor zeuden! Hiztegietan zeuden! Edonoren esku! Eta are okerragoa zena: hiztegietako hitzak zoriz aukeratuz norbaitek berea baino ipuin hobea osatzen bazuen, zer! Izan ere, argi zeukan erabiltzen ari zen metodoa zela-eta, horretara jarrita, ipuin bat modu tradizionalean egitera jarrita alegia, ez zuela inork berea baino hobea idatziko: ezinezkoa zen! Baina zoria zer! Zoria izan zitekeen bera baino idazle hobea, zalantzarik gabe. Are, zoriaren bidez soilik osa zezakeen norbaitek, bera egitera zihoan ipuina baino hobea... Urteak beharko ziren, mendeak akaso. Edo agian ez; agian, bere ipuin ustez perfektua argitaratu eta biharamunean lor zezakeen norbaitek konbinazio *perfektuagoa*. Denbora kontua, edozein modutan. Garbi zegoen, lehenago edo geroago, izango zuela zorte hori inuzenteren batek. Eta ipuin bat ez da perfektua, beste bat hobea egiterik baldin badago. Inoiz egin den ipuinik onena behar zuen bereak, eta sekulan hoberik izango ez zuena. Zoriari berea hobetzeko aukera txikiena uztea, arriskutsuegia iruditzen zitzaion, hitzen konbinazio perfektua lortzearen probabilitatea txikia izanagatik ere. Beldurtu egin zuen bi dado botatzen zekien

edonor idazle izan zitekeela pentsatze hutsak: zenbat eta idazle gehiago, orduan eta ipuin gehiago, gero eta aukera zabalagoa berea baino hobea zen lan batek argia ikus zezan.

Hutsera murriztu behar zituen zoriaren aukerak, eta modu bakarra zegoen horretarako: zoriak aukeratu ezingo zituzkeen hitzak sortzea eta erabiltzea. Horregatik erabaki zuen –esperantoa gogoan– hizkuntza berri eta propio bat garatzea, edo gutxien-gutxienez inongo hiztegietan egongo ez ziren hitzak asmatzea. Anjel Lertxundiren *hiztripu*arekin gogoratu zen. Euskaraz hain usu egiten ziren ortografia akatsak izendatzeko eta akats horien ondorioz hitz batek har zezakeen bigarren zentzua adierazteko erabiltzen zuen euskal idazleak hitz hori. *Hitza* eta *istripuaren* arteko ebakidura ero hura bera zen, gainera, adierazten zuenaren adibiderik onena. Bi hitz arrunt konbinatzetik lor zitezkeen, beraz, hitz berri inoiz entzungabeak. Bi edo hiru hizkuntzatako hitzak nahastea zen beste aukera bat. *Mentirotso* inozoa bururatu zitzaion, horrela, bote lasterrean, *mentiroso* eta *otso* hitzak uztartuz, politikarien burla-izen gisa. *Gezurhouse* izan zitekeen parlamentua... Ez zirudien oso zaila hitz berriak asmatzeak.

Hala eta guztiz ere, behin horretan jarrita, ondo egin nahi zuen lana, errazkerietan erori gabe eta behar adina denbora hartuta. Sorkuntza deuseztatzen baitu presak. Lau urte eta erdi jardun zuen zeregin neketsu horretan, eta alfabeto berri bat ez ezik, hiztegi berri bat eta sintaxi propio bat ere sortu zituen. *Mine umbrero dagos portichello*, idatz zezakeen orduan, esaterako; edo *Zainperan garrantziall zakustvi.* Gainera, behin ipuin perfektua idatzitakoan, asmatutako hizkuntza berri haren hiztegi eta gramatika guztiak deuseztatuko zituen: ziur egon zitekeen beste inork ez zuela antzekorik idatziko, ezta zoriak berak ere. Bere obra handiaz kontent, erabat goibeldu zen bat-batean, konturatu zenean berak baizik ez zuela ulertuko hizkuntza hartan idatzitako zernahi.

Lurrera bota zituen mahai gainean zituen paper eta apunte guztiak. Bere egoskorkeria madarikatu zuen, den-dena beti perfekzio akatsik gabeaz egiteko hezurretan errotuta zeukan behar hori, gaitz hori. Gaixotasuna baitzen berea, ezer izatekotan.

Baina, eta zer?, pentsatu zuen derrepente burua mahaitik altxatuta, eta zer inork ez bazuen bere ipuin perfektua ulertzen ahal? Norentzat idazten zuen, bada, bere buruarentzat ez bazen? Zer axola zion inor

ez konturatzea ipuin perfektua idatzi zuela? Ez al zen are zirraragarriagoa? Ipuin perfektua, ebatzi beharreko hieroglifiko bihurtua! Ipuin perfektua, denen begi aurrean, baina inorentzat ez eskuragarri. Ipuin perfektua, irakurle perfektuarentzat soilik sortutakoa. Iritsia zen azkenean idazten jartzeko eguna!

Egindako lan eskergaren ostean, ordea, ahituta sentitu zen zeharo, ezer idazteko indarrik gabe, eta urte beteko atsedena hartzea erabaki zuen. Haize freskoa hartu, bapo lo egin, taxuz jan... Ondo etorriko zitzaion, eta ipuinari berrekiteko behar-beharrezkoa zitzaion kemena suspertuko zuen. Harrezkero, beste urtebete itxarotea ez zen horrenbesterakoa.

Igaro zen urtea, eta baita bigarrena ere ia-ia. Ez zen ordenagailuaren aurrean esertzera ausartzen. Bere helburua lortzeko falta zitzaion azken urratsari aurre egin beharrak gihar denak tenkatzen zizkion. Dar-dar batean jartzen zitzaion gorputza *beno, bihar bai, bihar hasiko naiz* bere buruari esaten zion bakoitzean. Bihar ez zen inoiz gaur. Beherakoak eta sukarrak jota, maiz ohean geratu behar izaten zuen ezinbestean.

Udako egun bero batean, ordea, gaur behar zuen bihar horietako batean, goitik eta behetik libratu be-

harrekoak komuneko zulotik bota ondoren, izerdi hotza kentzeko dutxa bero bat hartu eta ordenagailuaren aurrean eseri zen, eta idazle orok pantaila zuriaren aurrean behar duen ausardia puntu hori sentitzen ez bazuen ere, teklatuari eragiteko prest jarri zen, aurrez landutako zerrenda altzoan hartuta. *Ipuingileak ausarta izan beharra dauka; tristea da aitortzea, baina hala da*, zioen Bolañoren seigarren manamenduak, eta pantaila zuria behatzera behartu zuen bere burua, zeharka izan arren. Ausarta izan beharra daukat, ausarta izan beharra daukat, errepikatzen zuen xuxurlaka.

Orduan, hasperen egin, eta hatzak teklatuan astiro-astiro pausatuz, libretatxo horituan idatzita zeuzkan hitzen konbinazio anitzen artean, honakoa aukeratu zuen:

“*Subito el window fermé, eta aspirin egin zuen*”.

Dardara leun batek zeharkatu zion bizkarrezurra, ileak tente arraio jartzeraino, hitzak ezarian-ezarian pantailan agertzen zihoazen bitartean. Begiak itxi zituen, oilo-ipurdiak eragindako sentipen gozo hura gorputzeko zelula bakoitzarekin, ahalik eta denbora luzeenean, sentitu nahi balu bezala. Minutu bat kasik

iraun zuen estasi moduko hark. Gero, begiak ireki, eta aulkitik altxatu zen mugimendu bortitz batekin.

Egina zegoen. Dena esanda zegoen esaldi bakar perfektu harekin, edo alderantziz, esaldi perfektu hark irekitzen zituen leiho guztiak.

Ez al zen ipuina izeberg bat bezalakoa? Ez al zuen erakusten zuena halako hamar ezkutatu behar?

Aurpegira zuzen begiratu ezin zaion zerbait omen da ipuina. Idatzi berri zuen hari, hurbildu ere ezin zitzaion egin.

Ordenagailua itzali eta sandaliak jantzi zituen. Jatetxe batera sartu eta topatu zuen lehenengoarekin, mahai gainean, denen aurrean, larrutan egin izan balu bezain kontent sentitzen zen. Kalera jaitsi zen, pijama eranzteaz ahaztuta. Historiako ipuin onenak merezi zuen zerbezatxo bat, zer arraio!

Bye

– Bai?

– ¿Don Fidel Mentxaka?

– Bai.

– Al aparato Andrés Roberto Mendoza, de Movistar Telefónica.

– Disculpe. No me interesa...

– En Movistar venimos ofreciendo un contrato que se ajusta perfectamente a su perfil de...

– No me interesa.

– Si no me equivoco, actualmente usted tiene contrato con Orange, ¿cierto?

– Disculpe, pero...

– Usted perdone, Don Fidel, pero el contrato que le ofrecemos tiene ventajas sustanciales sobre...

– No me interesa. Estoy contento con...

– El contrato WeekEnd de Movistar le ofrece todas las llamadas de fin de semana gratis y la opción de...

Kiroldegiko atea ireki nuen, sakelakoa itzaltzearekin batera. Telefono-zenbakia ezkutuan zuten deiak ez hartzeko erabaki zuhurra berreskuratzeko gogoz nengoen, baina ezin, Saioak ere *zenbaki pribatua* zeu-

kan-eta. Nola gorrotatzen nuen telefonoa hartu eta Kolonbiako edo Venezuelako edo Ekuadorreko gizajo horietako bat tokatzea, ahots kantari xelebre bat entzutea, nire Saioaren ahotsa espero nuenean... Hori ez, konpai, hori ez da egiten.

Txaparroa jantzi nuen, txanoa, txankletak. Eskuan hartu nituen igeri egiteko betaurrekoak eta esku-oihala. Ariketa fisikoa behar nuen, askatu behar nuen barruan neraman ezinegona, bortizkeria. Deabruaren koskabiloak! Horixe! Koskabiloetaraino nengoen inork ezin ulertzeaz, nik neuk ere nire burua ez konprenitzeaz, nire ekintzek eta pentsamenduek zeramaten bide elkarren aurkakoaz. Ez zen posible horrela jarraitzea.

Murgil egin nuen uretara; dena garbitzen omen du urak, erruduntasun sentipena izan ezik. Liberatuta sentitu nintzen, hala ere, hasieran. Ur hotzaren laztana azalean, soinurik eza ur azpian, burbuila baten barruan sentitzearen topikoa nire-nirea nuen igerilekura joaten nintzen bakoitzean. Hasierako ameskeria besterik ez zen izan, ordea; hirugarren luzerako buruari bueltak ematen ari nintzen, garuneko neuronak harathonat semafororik gabe, Saioa eta fideltasuna antonimo gisa ulertzen... Gloria ikusten nuen egongelako

besaulkian eserita, kopetilun, galdezka: “Nor da fideltasunaren antonimoa, esan! Nor da Gloria baino atseginago duzun emagalduaren sinonimoa?”. Igerilekuetan pentsamendu arraroak etortzen zitzaizkidan, auskalo zergatik, Gloriak ez baitzukeen sekula hala hitz egingo. “Norekin jarri dizkidak adarrak, putakumea? Akabatu egingo diat *puttana* hori!”. Ondo ezagutzen nuen. Ez zen italiarra, eta ez zuen *puttana* esango, baina napolitarrik grinatsuena bezain odol berokoa zen.

– Eta hori? –esan zidan Saioak, begi ondoan neukan harramazka seinalatuz–. Maitale sutsuren bat? Edo haserreturen bat, akaso?

Saioaren irribarrean antzematen zen gustura ari zela saguaren eta katuaren jolasean. Unibertsitate inguruan egin genuen topo, etxerako autobusa hartzera nindoanean. Flirteoaren hasiera zen, baina ez lehenengo aldia... Urdinez margotuta zituen azazkalak. Hain guapa zegoen...

– Ez bat, ez bestea –erantzun nion, eskuarekin Iñakiren semeak egindako harramazka laztanduz–.

Nahiago bai nik azkazal urdineko neska lirainen baten atximurka grinatsua balitz!

Burua jaitsi zuen, lotsatuta, baina irribarrea galdu gabe. Bataila bat irabazita, pentsatu nuen nire artean; zailagoa izango zen gerra irabaztea.

Buruan neukan zurrunbiloa askatzeko igeri asko egin behar nuen, zurrunbiloetatik ateratzeko lehendabizi zure burua barruraino erortzen uztea komeni dela dioten arren... Hori izan zitekeen soluzioa: eramaten utzi, erortzen utzi. Amildegiari hortzak erakutsi beharrean, hegan egin beldurrik gabe, hegan egin erortzen ari zarela onartu gabe, zeure burua engainatu eta hegan ari zarela sinetsarazi, erortzen ari zarela jakinda ere. Edota, erortzen ari zarela onarturik, gutxienez hegaldiaz gozatu, nahiz eta jakin, nahiz eta zalantzarik izan ez, hegan egiten duzun azken aldia izango dela.

Garai ederrean jarri zidaten gurasoek izena. Bazekiten haiek zerbait. Egiari zor, aspalditik nengoen nazka-nazka eginda fidel izan beharraz. Gloria eta bion artekoa ondo zebilen Saioa agertu zenean, baina ez zen hori kontua. Erregularki egiten genuen larru-

tan, erregularregi agian, eta polito moldatzen ginen ohetik kanpo. Antzeko zaletasunak izanik, elkarrekin afaltzera joaten ginenetan benetan gozatzen genuen; solasaldi bikaineko emakumea zen, ahobero samarra izan arren, baina nork ez du akats inozoren bat. Banituen nik handiagoak!

Eta hala eta guztiz, gizonen zera hori zela-eta, edo nirea bakarrik ote da, kalean ikusten nituen emakume ia denak desio nituen, eta nire ikasleak zer esanik ez. Lodixeagoak, argaltxoak, titi handiak, ipurdi ederrekoak edo ez, ezpain haragitsukoak, begi urdinak, sudur zorroztunak, sudur-zulorik gabeak! Denak! Tira, batez ere, gazteak. Berrogei urteen krisia, deitzen diote batzuek.

Hirugarren ilaran esertzen ziren hogei urteko haiek ziren nire ahuldaderik handiena. Irakaslearen pulpitutik hitz egitean, han goitik, eroso sentitzen nintzen haien aurrean, harro. Nire buruari entzutea gustatzen zait, irakasle gehienei bezala, eta halako audientzia ederrarekin are gehiago. Gozatu egiten nuen klaseak ematen, oilartu egiten nintzen dena ikasteko zeukaten haiei nekien guztia irakatsi beharraz. Baina nori interesatzen zaizkio atomoak, molekulak, sistema

periodikoa? Kimikako kontu txatxuak baino, bizitzaren formulak erakutsi nahi nizkien.

– Ez al zaizu iruditzen, bizitzeko formularik onena formularik gabe bizitzea dela? –esan nion Saioari, lehendabiziko aldiz larrua jo eta artean ohean ginela. Nire esaldi kuttunetakoa zen: ikasle gaxteak liluratzeko gezi zuzen eta ziurra. Diz-diz egin zioten begiek hogei urteko neskatoari; nire bularrean pausatu zuen burua, besoarekin besarkatzen ninduen bitartean.

Azken ilarako ikaslea zen Saioa. Berandu iritsi eta goiz joaten zena. Neska argal eta luzea, bazen metro laurogei baino gehiago. Motz uzten ninduen, baina bere hanka luzeek katramilatzea desiratu nuen, klasera presaka eta berandu azaldu zen lehen egunetik. Nahiz eta isil eta lotsatia zirudien, neskatila xalo eta maitekorra zen aurrez aurrekoan: ahal zuen guztietan eskua edo besoa edo sorbalda ukitzen zidan, sotilki bazen ere. Itxura eta egiaren arteko kontraesan hark hasieratik harrapatu ninduen. Geroxeago ohartu nintzen laztan arin haiek niri soilik egiten zizkidala, eta horrek azalpen bakarra –eta argia– zeukan: Saioak desio ninduen, ikasle batek irakasle bat desiratzea baino gauza naturalagorik eta arruntagorik ez dagoen modu horretan. Gizon batek hainbat emakume maita-

tzea bezain naturala, baina hain gutxitan gauzatzen dena... Irabazteko denak nituen hala nahi izanez gero, botere-harreman horrek berez zeukan erakargarritasunarengatik, egungo neska gazteek aspaldi gainditu-ta zituztelako aurrejuzgu inozoak, sexuaren tabua zelako sexuaz ezagutzen ez zuten gauza bakarra. Biok sentitzen genuen desio hura gauzatzeko erabakia hartzea zen zailena niretzat, gizartearen kontrako bidetik gidatzeko ausardia biltzea. Bai, bikotekide egonkorra nuen, eta zer? Bai, nire ikaslea zen, eta zer? Bai, hogei urte gazteagoa zen, ETA ZER? Zenbatekoa da isuna? Gona motzarekin eta pantiekin etortzen zenean, urtarril gorrian, ez nion besterik errepikatzen nire buruari: ETA ZER? ETA ZER? Zenbat puntu ken zitzaketen horregatik? Legeak ez al dira apurtzeko egiten? Bizitzeko formularik onena ez al zen..., eta abar eta abar.

Katarroarekin nenbilen eta mukizapiari gogor eragin ondoren jo nuen Saioaren ikasle-pisuko txirrina. Dominiskiku egiten ari nintzen une berean ireki zidan atea. “Osasuna!” esan zuen, sartzera gonbidatzearekin bat. Lau ikasleko etxean bakarrik geratua zen, Konstituzioko zubiaren jai-egun bezpera izanik alde

egin baitzuten gainontzekoek euren herrietara, edo eskiatzera, edo noranahi. Ez zen alferrik galtzeko aukera!

– Cola Cao bat, orduan? –eskaini zidan Saioak, eta baiezkoaren ondoren esnea berotzen jartzen ari zela atzetik joan eta besarkatu egin nuen, berrogei urteek ematen duten lotsagabekeriaz.

Esne *hura* sutan jartzeko denborarik gabe eman zuen buelta Saioak. Jokoan jarri genituen mingainak. Sukaldeko barran apur bat bermatuta zegoen bera, makurtu antzera, nire parean ondo egokitzeko.

Alkandora laxatu nion, botoiz botoi, pausoz pauso, eta musu eman nion lepoan, paparrean, eta beherago, eta beherago. Bularretako beltz fin hura kendu ez kendu egon nintzen, baina Saioaren beso artetik irrist, belaunikatzeraino makurtu nintzen. Ezin izan nion eutsi alua galtzen gainetik usaintzeko tentazioari, sudur puntarekin laztantzeko grinari. Hortzekin jaitsi nion kremailera. Ez pentsa, abilidadea behar da. Galtzak kentzean iritsi zen lehen sari handia: alutxoa ozta-ozta estaltzen zion tanga beltz bat zeraman. Musu eman nion izter-barrenetan.

– Ez dakit hau egin behar genukeen –esan zidan Saioak, ederrago egiten zuen azken uneko urduritasun erdi harekin.

– Arrazoi duzu –erantzun nion, tanga sotil hura atzamar puntekin heldu eta ahal bezain astiro kentzen nion bitartean–. Ez nizuke katarroa kutsatu nahi...

Igeri egitearen beste alde ona horixe da, erekzio bat duzunean ez dela inor konturatzen, ez behintzat nik eramaten ditudan txaparro zabal hauekin. Gainera, gila jarrita errazagoa da kalea mantentzea. Lau luze gehiago egin behar izan nituen, odola bere onera hozteko. Ederra nengoen! Zurrunbilotik nola atera hausnartzera joan eta Saioarekin pentsatzen zakila hanpatuta bukatu! Gure bulkadei kontra egiten dakigulako omen gara gizakiak (Freud dixit), horrela sortzen omen dira gizarteak, baina baita bortitz eta zorigaiztoko egiten gaituzten frustrazio handienak ere.

– ¿Don Fidel Mentxaka?

– Al aparato.

– Le llama Roberto Carlos Rodríguez Fuentes, de Movistar Telefónica.

– Encantado de conocerle Roberto Carlos Rodríguez Fuentes. Yo soy Fidel Mentxaka Gerrikagogaskoa.

– Encantado Don Fidel Mentxaka Gerrika... Encantado de conocerle, Don Fidel.

– Dígame Don Roberto Carlos. ¿Qué desea?

– En Movistar Telefónica le ofrecemos un contrato con innumerables ventajas.

– ¿De qué se trata, Don Roberto Carlos?

– Si no me equivoco usted tiene contrato con Orange en el aparato móvil y con Euskaltel en el fijo. ¿Es correcto, Don Fidel?

– Correcto.

– Bien. Si usted se cambia a Movistar, tanto en el aparato móvil como en el fijo, le ofreceremos una tarifa plana, contrato DUO, que incluye todas las llamadas nacionales, tanto de móvil como de fijo, a sólo 20 € por mes. ¿Qué le parece, Don Fidel?

– Me parece fantástico, Don Roberto Carlos.

– ¿Querría proceder a contratarlo, Don Fidel?

– No, gracias.

– Dese usted cuenta que lo que le vengo ofreciendo no lo va a tener usted en ninguna otra compañía, Don Fidel.

– Me doy perfecta cuenta, Don Roberto Carlos. No me interesa.

– El contrato DUO que le ofrezco tiene grandes ventajas...

Piiiii.

– Gustura al habil igerian? –galdetu zidan Iñakik.

– Oso. Hasieran ezinean ibiltzen ninduan, arnasarik gabe beti; baina bizkarka ikasi diat, eta primeran moldatzen nauk orain.

– Zenbat luze egiten dituk?

– Berrogei bat.

– Egun berean?

– Lau egunetan, no te jode! Zer nahi duk?

– Kaña bat.

– Bi kaña, mesedez –eskatu nion barrara gerturatu berri zen zerbitzariari–. Hik ez al duk batere kirolik egiten?

– Larrua jotzeaz aparte, esan nahi duk?

– Bi umerekin, eta topatzen duzue tartea, e!

– Askorik ez –zintzotu zen Iñaki–. Gogorik ere ez..., ez ezak pentsa. Tarte bat dugunean egunkaria iraku-

rri edo lasai egon, besterik ez diagu egin nahi izaten... Hik jo eta ke jarraituko duk Gloriarekin, kabroia!

– Ez nauk kexatzen.

– Astean behin bai?

– Dena esan behar al da?

– Beno, beno... –tragoa eman zion Iñakik garagardoari. Beste horrenbeste egin nuen nik–. Ondo, orduan, Gloriarekin?

– Bai, ondo –esan nion, konbentzimendu handirik gabe nonbait.

– Baina...

– Ez zagok bainarik. Polito moldatzen gaituk.

– Beste norbait zagok... –Iñaki putakume hark bazuen nire barruak ikusteko abilidade alua.

Isilik geratu nintzen. Tragoa eman nion garagardoari, denbora irabaztearren.

– Zerria! Beste norbait zagok!

– Bai.

– Ikasle bat!

– Bai –aitortu nion. Nola arraio ote zekien.

– Putakumea!

– Bazakiat. Ez diat barkamenik merezi.

– Barkamenik? Kabroi galanta eginda hago!

Beste trago bat eman nion garagardoari. Zur eta lur begiratzen zidan Iñakik.

– Sekulako neska puska izango duk, gainera!

– Ba bai.

– Hi haiz hi kabroia. Hemeretzi urte?

– Hogei.

– Titi handiak?

– Bai, tira... Handi samarrak.

– Zerri alua! Eta Gloriak ez zakik ezer, noski.

– Ez. Ez diat uste. Ezetz espero diat.

– Ez duk uste, ez duk espero, ala ez?

– Ez. Ez zakiat. Nik dakidala ez. Ez zidak ezer esan behintzat.

– Zer nahi duk esatea! –tragoa eman zion Iñakik garagardoari, lasaitu nahian bezala–. Eta zer egin behar duk?

– Batzuetan pentsatzen diat dena...

– Hemeretzi urte! Hi haiz hi putasemea!

– Hogei.

– Zer?

– Hogei dituela.

– Hemeretzi, hogei... Zer axola ziok! Zer duk, beroaldi bat, ezta?

Odola irakiten hasia neukan, damututa nengoen harrezkero aitorpena egin izanaz. Halako garrasiekin inguruko guztiak jakinaren gainean jarriak zituen Iñaki kaikuak. Urduri begiratu nuen aldamenera, nor edo nor ezaguna ikusteko beldurrez.

– Ez duk maitasuna izango, ezta? –galdetu zidan Iñakik, erantzuten ez niola ikusita–. Maite duk ala larru-jotze on baten bila ari haiz?

– Joan hadi popatik hartzera! Maitasuna?! Beroaldia?! Nik ba al zakiat! –aztoratu nintzen–. Biak akaso. Hau zer duk, galdeketa bat? Noiz azalduko duk polizia zintzoa?

– Bale, bale... Lagundu besterik ez diat egin nahi.

– Ba ez zirudik.

– Laguntzeko informazioa behar diat.

– Zer duk hiretzat maitasuna?

– Joder, Fidel...

– Errazena galdetzea duk, ostia!

– Ez hadi horrela jarri...

– Hirea Arantxarekin zer duk, maitasuna ala ohitura?

– Joder, Fidel...

– Joder, Iñaki!

Inbidia apur bat ere izango zuen akaso.

– Arrazoi duk –xumetu zen, eta trago bat kendu zion garagardoari–. Sekulako inbidia ematen didak, alde batetik, ez ezak pentsa.

– Inbidia? –galdetu nuen, baina *alde batetik?* pentsatu nuen.

– Bai, motel! 20 urteko neska batekin...! Ostia, kanpaia jotzearekin potroetaraino nagok!

Hori zen, orduan.

– Eta zer egingo duk? –galdetu zidan lasaiago.

– Ez zakiat. Nik Gloria maite diat...

– Gloria maite duk, baina... Nola izena dik hire...?

– Saioa.

– Baina Saioarekin larrua jotzea bezalakorik ez zagok, ezta?

– Hori duk. Beroaldia izango duk, deitu egiok nahi duan moduan, baina une honetan berarekin larrua jo besterik ez diat egin nahi. Hori ere maitasuna izango duk, ba!

– Nik beste gauza bati deitzen zioat maitasuna.

– Zer duk hiretzat maitasuna?

– Maitasuna? Ez zakiat. Norbaiten alboan betirako egoteko gogoa izatea, haren laguna eta maitalea izatea, gehien behar hauenean bere alboan izatea.

– Ba orduan maite diat.

– Maiteminduta hago! –harritu zen Iñaki–. Berrogei urterekin!

– Ostia, Iñaki! Berrogei urterekin bat ezin al da, ba, maitemindu?!

– Ostia, Fidel! Bai noski, baina... –aldamenera begiratu zuen, eta ahots-tonua jaitsi–. Maiteminduta al hago, benetan? –eta enfasia eman zion azken hitzari.

– Maitemina, maitasuna, beroaldia... Zein da aldea?

– Ez zekiat, Fidel. Maiteminduta egotea duk sentitzea norbaiten alboan egon eta ez duala sekula santan banandu nahi, ezta komunera joateko ere. Ondo asko dakik, norbaitekin harreman bat hastean lehen urtean-edo pasatzen zaian hori... Denok bizi izan diagu... Beste kontu bat duk, gau bateko beroaldian, *aquí te pillo, aquí te mato* hori... Ulertzen didak.

– Ez duk gau bateko kontua... Harrapatuta nagok oraintxe. Maiteminduta, ez zekiat... Ba bai. Maiteminduta. Ez diat buruan besterik.

– Eta Gloria?

– Gloria ere maite diat.

– Baina Fidel... Nola nahi duk...

– Bazakiat, ostia! Baina, zergatik ez, joder?

– Eskuetan lehertuko zaik esperimentua.

– Bazakiat... –esan nion, burua makurtzeaz bat.

Garagardoari lotu gintzaizkion.

– Ez zauzkaagu hogei urte –esan zidan.

– Bazakiat, joder.

Hasperen egin nuen.

– Nik ere izaten ditiat halako tentazioak –jarraitu zuen xumeki–, askotan gainera, baina...

– Baina ez dituk gauzatzen.

Buruarekin baiezkoa egin zidan. Ez zituen aurrera eramaten, ez. Baina ez zuelako nahi ala ezin zuelako? Lagunarteko afarietan-eta ikusia nuen nexka gazteei arrimatzen... Ez zen atzean geratzen zen horietakoa... Ezina ekinez *ezina* zen Iñakirena, argi zegoen.

– Horrenbeste konplikatzen gaituk kontu hauekin... –esan zuen nire aldera lerratuz–. Zer duk azkenean txortaldi bat?

– Txortaldi bat? Larru-jotze bat...

– Bai, baina zer duk larru-jotze bat?

– Ez zakiat zer esan nahi duan.

– Joango gaituk masaje bat hartzera, laztanduko ziguk gorputz osoa ezezagun batek, eta ez duk ezer pasatzen –esan zidan.

– Ja...

– Sartu egiok zulotxoan mingaina, zer mingaina!, hatz punta!, eta kito!, hireak egin dik. Ez zaukak zentzurik. Ondo begiratuz gero, ez zaukak inongo zentzurik.

– Baina arau hauekin bizi gaituk.

– Horixe. Arauak...

– Arau madarikatuak.

Topa egin genuen, klask, elkarren kontra garagardo-edalontziak.

– Lehengoan igerilekuan kristoren zakila zeukan tipo batekin egin nian topo dutxetan –esan nion.

– Kristoren zakila?

– Bai, ikaragarria. Parabola perfektu bat egiten zian, kurba handi bat. Lurrerantz zuzen erortzen zen zintzilikario bat izan beharrean, banana bat ematen zian.

Marrazkia egin nuen airean, besoarekin.

– Zakila ez, arrautzak zizkian handiak orduan! –ebatzi zuen Iñakik.

Barre egin genuen.

– Polita al dik? –galdetu zidan.

– Zer?

– Alutxoa. Polita al dik?

– Ostia, Iñaki...

– Polita al dik?

Trago luze bat eman nion garagardoari, nire begiak Iñakirenetan pausatu aurretik.

– Zoragarria –erantzun nion.

– Hi haiz hi putakumea!

– ¿Don Fidel Mentxaka?

– Bai, ni naiz. Baina ez dut jakin-minik eskaintzen didazun horretan...

– Disculpe, ¿Don Fidel? Le llamo de Movistar Telefónica, mi nombre es...

– Eskerrik asko, baina ez dut ulertzen. Euskaraz hitz egiterik bai?

– ¿Disculpe? ¿Habla usted español?

– Eta zuk, euskaraz badakizu?

– Disculpe, señor. ¿No habla usted español?

– Barkatu?

Piiiii.

Izan ere, hain ezaugarri on eta desiratua al da fideltasuna?, galdetu nion neure buruari, igerilekuko hirugarren kalean barneratzen nintzen bitartean. Zer da,

bada, fideltasuna, gizakiok hainbeste gurtu dezagun? Hainbeste zaindu dezagun? Horrenbesteko errezeloz begira diezaiogun? Fideltasuna, leialtasuna, zintzotasuna. Pertsona batekiko denean, harekin zintzoa izatea, ez engainatzea. Ez engainatzea? Zertan? Beste batekin larrua jotzea engainatzea al da? Eta beste batekin fantasiak izatea edo amestea ez? Eta beste batekin oheratzen ez dena leiala al da beti? Baina, eta norberaren desioekiko zintzotasuna? Desira haiek guztiak erreprimitzean al datza leialtasuna? Ez al da, orduan, fideltasuna fidelkeria bihurtzen? Are, zer da zintzoagoa, norberaren desirei men egin eta egindakoa ezkutatzea ohiko bikoteari minik ez egitearren, ala norberaren desirak albo batera utzi eta batekin txortan ari zarela bigarrenarekin pentsatzea? Leialtasuna da hori? Eta zer da garrantzitsuagoa, zure bikotekidearekin zintzoa izatea, ala zure buruarekin?

Ai, Saioa, ai. Ai, Gloria, ai. Biak maite nituen, bakoitza era batera, baina biak. Saioak flirteoa eskaintzen zidan, larru berriaren arnasa, sentsazio zaharrak –ia ahaztuak– berreskuratzeko aukera, nostalgiari leiho bat irekitzea, maiteminaren egonezina, sabelaldeko berotasun erregarri hura... Gloriak egonkortasuna ematen zidan, maitalearen adiskidetasuna, segur-

tasuna, bidelagun samurrenaren babesa, maitasuna. Hitz handiak ziren haiek. Ez al zen posible? Gizarteak ezetz esaten zidan, eta hori, zalantzarik gabe, pisu handia zen. Baina men egin behar al zaio beti gizarteak dioenari? Eta hura aldatzeko aukera galdu?

– Jarriko al diguk beste bat? –eskatu zion Iñakik zerbitzariari–. Gizarte honen armiarma-sarean ezinezkoa duk...

– Ezinezkoa? Ez didak esango bi emakumerekin dabilen lehenengoa naizela!

Beste bi garagardo ekarri zituen zerbitzariak.

– Eta zer egin behar duk? Ezkutuan mantendu?

– Noski! Zer nahi duk, Gloriari min egitea?

– Eta non zagok orduan gizartea aldatzeko nahia?

– Joan hadi popatik hartzera!

– Ez baduk egiten duana zabaltzen, ez haiz gizartean aldaketa bat eragiten ari... Hire burua engainatzen baizik.

– Esan al diat popatik hartzera joateko?

– Deitu egiok zakil kurbatuko arrautza handi hari, hark ederki emango zidak-eta.

– Nik ere badiat abilidadea.

– Bistan zagok, bistan zagok...

Gloriaren larruan jarri nintzen une batez. Saioarenean. Enpatiaren kontu hura guztia. Nola biziko nuke, maite nuen norbait horrek, ni maitatzeaz gain, beste norbait ere maite balu? Ni maite ninduen bezainbeste edo gehiago maite balu bigarren pertsona hori? Maite al daiteke, benetan, asko edo gutxi? Neurgarria al da maitasuna? Edo larrua norekin jotzen den, hori da kontua? Gure bikotea besteren zakilak miazkatzen ibiltzea, horrek izorratzen al gaitu? Burua atera nuen ur azpitik eta justu une horretan aldamenekoak hankarekin igorritako zipriztin guztiak irentsi nuen: galdera guztiak ito zizkidan erantzuna. Harrezkero, zalantzan nengoen igeri egiteak on edo kalte egiten ote zidan, ez ote neukan pentsatzeko denbora gehiegitxo igeri egiten nuen bitartean... Nirekin dagoenean ni maite banau, ni laztantzen banau, ni goxatzen banau, nirekin dagoenean nirekin egon nahi badu eta nirekin badago, zer gehiago eska nezake? Zer axola dio nirekin ez dagoenean egiten duenak? Pertsonak –ondasunen tankeran– norbaitenak balira bezala! Nire neska, nire emaztea, nire bikotea... Nirea eta ez beste inore-

na? Zer ote dago horren atzean? Maite duzun hori galtzeko beldurra? Txikitan maitasun eta kontaktu nahikoa jaso ez izana? Erlijioek kutsatutako gizarte gaixoek urteen poderioz bizkar gainean kargatutako motxilaren zama eta honek sortzen digun beldurra? Uretatik atera nintzen. Igerian gehiago egiteagatik ez nituen beldurrak errazago uxatuko.

Puskak bildu nituen 112 zenbakidun armairutik. 112, ohartu nintzen. Ostia, 112. SOS. Zenbaki hartara deitu eta norbaitek lagunduko banindu. Hain erraza balitz. “Arazo larri bat dut, bi emakume maite ditut, eta inork ez nau ulertzen”. Ostia! Bi emakumek maite naute! Ez al zen zoragarria? Bi emakumek maite naute, baina beste guztiek gorroto! 112. Bat gehi bat berdin bi?

– ¿Don Fidel Mentxaka? Al aparato Jesús Pablo Gutiérrez.

– Eusko gudariak gara, euskadi askatzeeekooooo. Gerturik daukagu odola bere alde ematekooo. Irrintzi bat entzun da, mendi tontorreaaaaan...

Piiiii.

– Zer moduz eguna? –galdetu nion.

Muturbeltz sumatu nuen Gloria.

– Ondo –erantzun zidan gogotxarturik.

– Lanean ondo?

– Bai –entsalada prestatzen ari zen, letxuga garbitzen, hostoak banan-banan uretatik pasatzen, ur-iragazgailura amorruz botatzen.

Zakarrontzira bota zituen kondarrak.

– Joder, Fidel! Ez duzu zaborra atera!

– Barkatu. Oraintxe eramango dut.

– Eres la hostia, Fidel! Ez dakit non daukazun burua –zabor-poltsari korapiloa egiten saiatu zen, baina beteegia zegoen. Lurrera erori ziren bota berri zituen kondarrak.

– Kaka zaharra!

– Utzi, utzi...

Banekien elkarrizketa nola bukatuko zen. Berdin zion zer esaten nuen. Ez neukan ihesbiderik. Hanka gehiegi ez sartzea zen egin nezakeen onena.

– Ekarri tipula.

Iñakirekin izan nuen elkarrizketa etorri zitzaidan gogora, Saioaren alutxoaz egin zidan galdera. Saioari tanga beltz ahantzezin hura jaitsi nion unea, Saioaren

alua, alu zoragarri hura nire mihiaren usainera parez pare irekitzen.

– Fidel!

– Bai?

– Tipula!

– Zer?

– Tipula!

– Tori.

Uste nuena baino haserreago zegoen. Zaborra botatzera joatea izango zen onena.

– Ez dut entsaladarik jango –esan nion, zabor-poltsa hartzearekin batera.

– Niretzat da.

Ia egunero joaten nintzen igerilekura. Arnasbidea nuen berez, aterabidea, ihesbidea, baina zurrunbilo handiegitan ez ote nintzen sartzen, zalantza horixe nuen azkenaldian, eta nire burua lasaitzeko asmoz, igeri egiteari baino, behinola yogan ikasitako arnasa-ariketak praktikatzeari eman nintzaion, ura belaunetaraino iristen ez zen umeen igerilekuan. Hildakoaren antzera buruz gora jartzen nintzen, besoak zabalduta, igeritako betaurreko eta guzti. Arnasa sakon hartu eta

birikak puzten zirenean, uretatik kanpora irteten zitzaidan gorputz-enborra, eta pixkana-pixkana botatzen nuen airea ahotik, modu konstante batean baina ahalik eta mantsoen, ahalik eta gehien luzatuz biriketatik kanpora airea botatzeko eta hala gorputza urperatzeko prozesu hura, aurpegiko atal bakoitza uretan nola hondoratzen zen sentituz, belarriak lehenbizi, kokotsa, begiak eta masailak gero, eta azkenik, ahoa ur azpira sartzera zihoanean, ahoa ur azpira sartu baino lehentxeago, arnasa sakon hartu berriz, birikak bete poliki, gorputza pixkanaka berriz ur azalera aterarazi, prozesu guztia behin eta berriz hasteko. Funtzionatzen zuen. Benetan erlaxatzen ninduen, eta arnasaren jarioan kontzentratu behar horrek distraituta mantentzen zuen nire gogo nekaezina.

– Don Fidel Mentxaka. Al habla Timothy Andres Morales.

– No me interesa.

– ¡Cómo que no te interesa, malparido! ¡Si todavía no te he dicho lo que te ofrezco, socabrón!

– ¿Cómo has dicho que te llamas?

– Me cago en tu puta madre arroba hijoputa punto com.

Piiiii.

Txatean ari nintzen Saioarekin. Flirteoaren hasiera aldera-edo... Baina ez nengoen denbora galtzeko:

– Gaur zurekin egin dut amets.

– Ez da egia!

– Baietz ba! Biolontxeloa jotzen ari zinen.

– Biolontxeloa?

– Soineko urdin bat zeneraman, eta azazkalak ere urdinez margotuta.

– Bai zera!

– Baietz ba! Ez al duzu instrumenturik jotzen?

– Bateria jotzen dut.

– Harpa jotzen?

– Baietz ba!

– Ja, ja, ja –idatzi nion–. Ez dut zu bezalako neska fin bat bateria jotzen imajinatzen.

– Ogia zuk erosiko? –Gloria zen une berean, beste txat bat egiten ari zitzaidana.

– Nire kontu –jarri nituen dantzan teklak.

– Zergatik ez? –galdetu zidan Saioak–. Nik bezalako neskek pianoa eta biolontxeloa soilik jo al dezakete ba?

– Zer ordutan iritsiko zara? –Gloriak–. Beti bezala?

– Ez, ez –erantzun nion Gloriari, Saioari idatzi nahi izan niona.

– Beranduago? –Gloriak.

– Beranduxeago –erantzun nion, hanka-sartzeari estaldura ematearren.

– Ez, neska –erantzun nion Saioari segidan.

Lana pilatzen ari zitzaidan.

– Baina ez ukatu neska gutxi ikusten direla bateria jotzen.

– Bazkaltzeko itxoingo dizut? –Gloriak.

– Estresa uxatzeko bikaina da! –Saioak.

– Ez. Bazkaldu zuk –Gloriari.

– Ondo da. Mx –eten zuen Gloriak komunikazioa, eta arnasa hartu nuen.

– Izerdi ederrak egiten ditut –jarraitzen zuen Saioak berearekin.

Nik ere bai txat kontu hauekin... Arnasa sakon hartu nuen erantzun aurretik.

– Sinesten dizut –idatzi nion, izerdi hotzetan Saioa izerditan imajinatze hutsarekin–. Nik beste era batean egiten dut izerdia...

– A bai? –interesatu zen.

– Kirolarekin, esan nahi nuen.

Hogei urte nituenean bezala sentitzen nintzen. Nola gustatzen zitzaidan flirteatzea!

– Eta zer gertatzen zen gero? –Saioak.

– ??? –idatzi nion ulergaitz.

– Ametsean...

– A! Gogoratzen zure soineko urdina?

– Azazkalen kolore berekoa...

– Hain ondo gelditzen zitzaizun huraxe bera, bai! Ba, une batetik bestera, ez zeneraman gainean.

Saioaren erantzunaren zain egon nintzen, atrebituegia ez ote nintzen izan zalantzan. Ez zegoen atzera bueltarik, ordea.

– Noiz gonbidatuko nauzu kafe bat hartzera? –aurreratu nintzen, bere erantzuna iritsi baino lehen, kartutxo denak gastatzeko beldur apur batekin–. Zure ikasle-etxe horretara, esan nahi dut.

– Ez dugu kafeterarik. Ikasle-pisuak, badakizu...

Ikasle-pisu bat kafeterarik gabe? Nola aldatzen diren gauzak.

– Egia esan, kafea ez zait gehiegi gustatzen –idatzi nion hala ere–. Hartuko dut Cola Cao bat.

– Jende asko gara... Beti dago norbait bueltaka...

– Eta ez dagoenean?

Beste isilune bat txat bidezko elkarrizketa isilean. Teklen soinua soilik alde bietan.

– Idatziko dizut –jarri zidan Saioak azkenean–. Joan beharra daukat.

– Plazer bat izan da –erantzun nion, baina berandutxo, etena baitzuen komunikazioa.

Zalantzarekin geratu nintzen, ausarkeria ez ote nuen garestiegi ordainduko... Gazte-denboran koldarregia izateagatik irteten ziren ihesi enarak, mantsoegia izateagatik asper-asper eginda alde egiten zuten hegan; berrogei urteek emandako eskarmentuarekin, taktika aldatua nuen, baina orduko hartan ez ote nintzen goizegi hasi tiroka, enarak artean urrunegi zeudenean... Funtsik gabeko beldurrak, geroago jakin ahal izan nuenez...

– Haurrak ere bai?! –muturtu da Gloria.

– Bai.

– Me cago en la puta, Fidel. Eta zergatik ez didazu orain arte ezer esan? Nik Iñakirekin eta Arantxarekin egoteko gogoa neukan.

– Eta egongo zara.

– Kaka! Azalorea ere etorriko da? –horrela deitzen dio Segurolari, azalorea bezain motela delako. Kiloka gatz behar omen du–. Bikotea ere ekarriko du, noski... Nola izena du?

– Sandra.

– Neohippyak agoantatzearekin gutxi, eta sorta guztiarekin geratu behar!

Mayo eta Agurtzane dira neohippyak, hippy desitxuratuak Gloriaren ustez. Asko maite ditu, urrun daudenean.

Muturtuta dago beste behin Gloria, haserre dauka Fidelek –ez daki zergatik–, botila-ardoa eskuan Iñakiren etxeko tinbrea jo dutenerako.

– Gabon, parea! –ireki die atea Iñakik.

Agur ziztrin bat esan gabe sartu da Gloria. Sukaldera bideratu ditu urratsak, eta Arantxari kopa bat ardo eskatzen entzutea iruditu zaio Fideli; “Ardo bat behar dinat”, uste du esan diola, eta kezka lauso bat txertatu zaio gogoan.

– Zer du? –galdetu dio Iñakik.

– Nik ahal dakit, ba!

– Ez zen hireaz...

Isiltzeko agindu dio haserre, keinu argi batekin.

– Lasai, motel! –esan dio, bi gizonek euren urratsak egongelara zuzentzen dituzten bitartean–. Azkenak zarete.

– Gora Fidel! –egin du betiko txistea Mayok. Gizajoa ez da inoiz aldatuko.

– Gora! –errepikatu dute denek, eta barre egin dute umeek, ezer ulertu gabe.

Bost haur daude; bikoteko bina, eta Segurolari Sandraren *herentzian* tokatutakoa.

– Eta Gloria? –galdetu dio Agurtzanek, Mayoren bikoteak, Fideli.

– Sukaldean kateatuta geratu dela uste dinat. Arantxarekin.

Harantz egin du Agurtzanek, eta bere atzetik baita Sandrak ere. Andaluziarra da Segurolaren bikotea, Jaengoa, eta euskaraz egiten ez duenez, intuizioz mugitzen da sarritan.

– Kattalin! Erakutsi lagunei jostailuak, tira! –Iñakiren esana bete eta korrika alde egin dute umeek, jostetan.

– Zer moduz, aspaldikoa! –bota dio Segurolak etorri berriari.

– Ondo. Zuek ere bai? –Fidelek.

– Ez hi bezain ondo, seguru –erantzun dio Mayok, maltzur antzera, iruditu zaio Fideli, nahiz eta askotan esana dion antzekorik, bere irakasle bizitza Mayoren iritziz ezin hobearen aitzakian. Oraingoan, ordea, desberdina iruditu zaio tonua.

– Zer nahi duk? –eskaini dio edatekoa Iñakik.

– Zerekin ari zarete?

Botila-ardo dotorea erakutsi diote.

– Vega, erreserbakoa! Kontxo! Ez zagok gaizki!

– Kopatxo bat?

– Jarri, jarri.

– Dena ondo? –galdetu dio Mayok.

Iñaki putakume arraioa... Ezin mingaina geldirik izan... Begi-zeharka begiratu dio Fidelek, baina ezer ez dakienaren aurpegia bueltatu dio.

– Ondo, ondo –erantzun du Fidelek–. Zuek ere bai? Umeak eta? Beno, begi bistakoa da.

– Ez itzak inoiz izan! –esan du Iñakik edalontzia Fidelenera gerturatuz–. Gugatik!

– Gora gu! –egin du topa Segurolak ere.

– Eta gora maite gaituzten emakumeak! –bota du Mayo kabroiak.

Argi dago Iñaki putakume horrek Gabriella Fox porno-izarrak baino mingain dantzariagoa duela.

– Osasuna! –esan du Segurolak–. Por la paz mundial!

– Gu gabe topa egiten? –galdetu du Arantxak. Bueltan dira emakumeak.

– Baina zuen omenez! –harrotu da Segurola, eta musu eman dio Sandrari, hasiberrien grinarekin. Zer den maitemina!

– Por la paz mundial? –harritu da Sandra, gaztelaniaz esan duten esaldi bakarrari traza ezin hartuta. Gainditu gabe dauka, artean, Phil marmotaren ikasgaia.

Irribarre egin du Mayok.

– Jarriko al gara mahaian?

Fideli eta Gloriari ez zaie leku aproposegia tokatu. Umerik ez duten bakarrak izanik, umeen aurrean egokitu zaie, edo jarri dituzte. “¡A ver si te viene el instinto!”, esan dio Sandrak barrez, Gloriaren fobiaz ezjakin. Hitzok inbutu bidez eta murtxikatu gabe irentsarazteko moduko begiratua itzuli dio opari, txibista eta guzti. Ikasgai asko dauzka gainditzeke Sandrak.

Mayo eta Agurtzaneren bi munstroak dituzte parez pare: Maddi neskatila, Fidelek; Beñat mutikoa, Gloriak. Euren gurasoen artean daude bi umeak, *ondo zainduta*. Gloriaren alboan Sandra dago, Segurolari eskutik helduta (*pack* berean doaz biak, elkarrekin beti, bai aurrera bai atzera, erori gabeko dorre bikiak); Segurolak, Sandra eta seme herentziazkoa zaindu beharra dauzka, alde banatara. Arantxa eta Iñaki ere beren bi seme-alabak euren artean hartuta daude. Haurrak nagusien artean txertatzeko ohitura alua. Agurtzanek dioenez, nagusiekin integratzea omen haurrak ondo sentitzeko aukera onena... Euren umeentzat onena nahi dute, noski, baita gainontzeko guztien kalterako bada ere. Eskuzabalak Agurtzane eta Mayo, denen hobe beharrez jarduten dutela esan eta eurena soilik bilatzen dutenak. Neohippyak. Horixe.

Urdaiazpikoz bildutako zainzuri gaztaz gainerreak eta txangurroz betetako *crêpe*ak jan ondoren, azpizunaren txanda iritsi da. Plantxan egin ditu Arantxak, eta txanpinoiekin atondu platerean, italiar erako saltsa gozo batekin. Lan ederra hartu du.

– Ama, ez dut gehiago nahi –esan du Kattalinek.

Arantxak ulerkor begiratu dio.

– Maitea, jan egin behar duzu. Probatu al duzu? Goxo-goxoa dago!

– Jan, maitea –esan dio Iñakik ere.

– Ez dut nahi.

– Goxo-goxoa dago –esan du Unaxek, Kattalinen anaia txikiak.

– Baietz? –esan du Arantxak–. Ikusten nola jaten duen Unaxek? Bere alboan txiki geratuko zara laster!

– Ez dut nahi.

– Jan egin behar da, Kattalin –sardexka ahoan sartzen hasi zaio ama–. Jan egin behar duzu. Amatxo arratsalde osoa egon da afaria prestatzen.

– Ez dut nahi!

– Jan!

– Maitea –saiatu da Iñaki emaztearen lekua hartzen, tonu lasaixeagoan–, probatu beharra daukazu behintzat. Amatxok goxo-goxoa egin du. Tira, probatu. Ikusiko duzu nola gustatzen zaizun...

Aitaren sardexkak daukan haragi zatia onartu du Kattalinek muturbeltz. Besoak gurutzatuta dituela murtxikatu eta irentsi du.

– Goxoa, ezta? –galdetu dio aitak.

– Ez dut gehiago nahi.

– Qué rico está –esan du Sandrak–. ¿Verdad, Andresito?

Sandraren 13 urteko eta ia 70 kiloko mutiltzarra da Andresito. Gerraosteko poeta baten semea dirudi. Hori da jatea!

Ama eseri zaio alboan Kattalini.

– Ba, jan egin beharko duzu –alkandorako mahukak bildu ditu Arantxak, eta haragi zatiak mozten hasi da amorruz, alabak ahoa bi eskuekin estaltzen duen bitartean.

– Eeezzzzz!

Alabaren ahoa estaltzen duten besoak apartatu nahian ari da Arantxa, borroka betean.

– Zer duzu, maitea? –galdetu dio Agurtzanek burumakur dagoen Maddi alabari.

– Ez dut nahi, ama...

– Ez duzu goserik? Ez da ezer gertatzen, maitea –esan du Agurtzanek–. Ez baduzu goserik, ez jan. Asko jan duzu dagoeneko.

Arantxak haragi puska bat ahoratu dio alabari, ondo kostata. Negarrari eman zaio Kattalin.

– Kattalin, gauza bat egingo dugu? –egin ditu bitartekari lanak Iñakik–. Zer iruditzen lau zati hauek jaten badituzu?

– Ez dut nahi!!!

– Dena jango duzu! –esan dio Arantxak.

– Ez!

– Lau zati hauek. Ados, amatxo? –zuzendu zaio Iñaki emazteari, keinu lasaigarri batekin.

Arantxa aulkitik jaiki da.

– Egin nahi duzuna! –sukaldera joan da.

– Lau zati hauek jango ditugu. Ados? –esan dio aitak Kattalini.

Negarrez ari da umea. Iñakik lehen zatia ahoratu dio: baaat.

– Alferrik da behartzea, ez badute nahi –ebatzi du Agurtzanek.

Iñakik ez entzunarena egin du.

– Umeak eurak dira euren beharrak hobekien kudeatzen dituztenak, ez al da hala, maitea? –esan dio Agurtzanek Mayori, eta bikotearen mahai azpiko ostikoa besterik ez du jaso bueltan.

– Noiz egin behar diagu squash-apustua? –bota dio Mayok Fideli, suari hauspoa ez emate aldera–. Jarraitzen al duk igeri egiten?

– Jarraitzen diat, bai.

– Eta? Noiz ausartuko haiz?

– Nahi duanean.

– Nahi duanean, noiz?

– Ez zakiat. Hitz egingo diagu...

– Beti berdin. Ez daukak potrorik!

– Jarri data.

– Biii –sartu dio Iñakik bigarren haragi puska besoak gurutzatuta jarraitzen duen alabari.

– Ostegunean –esan du Mayok–. Itxoin, ostegunean ez. Korrika egitera joan behar diat.

Barre egin du Fidelek.

– Ikusten? Hi haiz beti arazoak jartzen dabilena.

– Ondo murtxikatu, e –gaztigatu dio Iñakik alabari. Masailezurreko keinua nabarmen puztuz erantzun dio alabak, setati.

– Ostiralean! –proposatu dio Mayok.

– Ostiralean ezin diat.

– Koldar potro gabea...

– Joan hadi popatik hartzera!

– Hiruuu –sartu dio Iñakik hirugarren haragi zatia Kattalini.

– Ama... –errepikatu dio Maddik Agurtzaneri–. Nik ez dut gehiago nahi.

– Ez jan, maitea. Ez baduzu nahi, ez da ezer gertatzen.

– Jan al du? –galdetu du Arantxak sukaldetik bueltan.

– Bai –esan du Iñakik.

– Tira, ekarri –kendu dio platera Arantxak alabari.

Unax anaiak ere platera luzatu dio, azpizun erdia platerean utzita.

– Tu Andresito sí que come, eh, Sandra –bota dio Iñakik, erdalduna apur bat integratzeko asmoz.

– Pues sí. La verdad es que no me puedo quejar... Ha salido comilón, a que sí, mi amor! –burua laztandu dio bere hamahiru urteko seme lotsatuari, besoa Segurolaren sorbaldatik luzatuz eta semeari lepoa ahalik eta gehien bihurritzera behartuz amaren laztanetik ihesi.

Arantxa itzuli da sukaldetik.

– Oso ona dago –esan dio Fidelek.

– Eskerrik asko, Fidel.

Beti bezain adeitsu, Fidel, pentsatu du Gloriak, eta euskaltegian ikasitako esaera harekin gogoratu da: kanpoan uso, etxean... Otso balitz behintzat! Ezta hori ere! Etxe pareko auzokoen leihoan egun osoa kalera begira lurrean etzanda –bertan goxo, bertan lasai– egoten den San Bernardo zuriarekin gogoratu da. “Kanpoan uso, etxean San Bernardo”. Mingaina atera

dio Gloriak aurrean daukan Beñati. Begira-begira dauka afaltzen hasi direnetik. Zenbat urte izango ditu? Sei, zazpi? Badu garaia horrela ez dela begiratzen ikasteko...

– Azpizunarentzako saltsa, nola egin duzu? Ba al dago jakiterik?

Nahi duenean badaki ondo geratzen Fidelek, bai, egin du Gloriak bere artean.

– Noski! Zergatik ez, ba? –harrotu da Arantxa–. Txanpinoiak frijitu...

– Agian, sekretu profesionala da...

– Beno, beno, mesedez! Oso erraza da... Begira. Txanpinoiak frijitu olio txorrota batekin eta baratxuri hortz batekin, ardo beltz tanta bat ere bota behar zaio, eta ondo frijituta daudenean...

– Esan erdaraz –proposatu dio Iñakik emazteari, buruarekin sotilki Sandra dagoen aldera seinalatuz.

–Aita, kaka –esan dio Unaxek Iñakiri.

– Pues se fríen los champiñones con un poco de aceite de oliva y un diente de ajo bien troceado y un poco de...

– No. Por mí no os preocupéis, eh. Si ya voy cogiendo poco a poco.

– Ardoa noiz botatzen diozu, Aran? –sartu da tartean Gloria–. Frijitu aurretik olioarekin batera, edo ondoren?

– Garrantzitsuena alkohola erretzeko zartaginean denbora tarte batez uztea da.

– Gaztelaniaz, maitea.

– No os molestéis, de verdad –Sandrak.

– Itzuliko zioat nik –saiatu da Segurola–. No me cuesta nada.

– Si no es molestia –erantzun du Iñakik–. Es cuestión de respeto.

Barre egin du Gloriak, sarkastikoki egin ere, berak ikasi aurretik irentsi behar izan zituen euskara hutseko afariak gogoan. Airean ulertu dute denek bere barre desitxuratua. Gaztelaniaz jarraitu du Arantxak. *Cuestión de respeto*.

– Lo importante es no hacer demasiado la carne, y echar la sal después de sacarla del fuego.

– Aita, kaka –errepikatu du Unaxek.

– Itxoin pixka bat, Unax. Orain joango gara –erantzun dio Iñakik.

– *Eske* kaka daukat...

– Oraintxe bertan izan behar al du? Ezin duzu bost minutu itxoin?

Ezetz egin dio buruarekin semeak, eta mahaitik altxatu dira.

– ¿El chocolate? Se funde al baño maría... –postrearen azalpenei buruz dihardu orain Arantxak.

– Eta bizkotxoari zer gehitu diozu? –galdetu du euskaraz Gloriak; ez dago barkatzeko.

Irribarre egin du Sandrak eta ezker-eskuin mugitu du burua sotilki. Badatoz bueltan aita-semeak.

– Bizkotxoari? Betikoa... Jogurta, azukrea, limoi apurtxo bat... Ai, perdona Sandra... Un yogur, un poco de azúcar...

Tragoz hustu du aurrean zeukan baso ardoa Gloriak.

– Ese puto niño no para de mirarme –esan dio Fideli xuxurlan.

Ostikoa eman dio Fidelek mahai azpitik, ahotstonua jaisteko esanez. Baina egia da: Beñatek ez dio begirik kendu afari osoan.

– Ama, gehiago! –eskatu dio beste bizkotxo zati bat Kattalinek.

– Azpizuna daukazu, nahi baduzu, goxo-goxoa...

Muturtu egin da, beste behin, alaba.

– Tori –eman dio bizkotxo zatia, eta baita musu bat ere amak.

Agudo egin dituzte txokolatezko bizkotxoarenak. Gozo-festan ez dago intsumisorik.

– Zer nahi duzue? Rona? Patxarana? Kubataren bat? –ondo egin nahi ditu Iñakik anfitrioi lanak.

– Ron txupito bat –eskatu du Gloriak. Fidelek whiski bat nahi du, Sandrak ezer ez.

– Ez, ez, eskerrik asko –Segurolak.

– No me jodas, Segu! –bota dio Iñakik aztoratuta.

– Beno. Jarri egidak txupito bat patxaran.

– Txupitoa? –galdetu dio Mayok burla-haizez.

– Azken boladan doblea disfrutatzen diat txupito patxaranarekin.

– Erdia izango duk, ba! –Mayo aluak. – Gintonic bat hartuko diat nik.

– ¡Qué coño miras, niño! –atera zaio oihua Gloriari, Mayoren seme Beñatek begirik kentzen ez diola ikusita.

Beldurtu egin da umea.

– Zer duzu zuk Gloria? –defendatu du Agurtzanek semea–. Lasaitu zaitez, mesedez. Afari osoa daramazu muturtuta.

– ¡No me ha quitado ojo en toda la cena! –azaldu du.

– Zer duzu, Beñat? –galdetu dio amak amultsuki, seme izutua lasaitzeko asmoz–. Zergatik begiratzen diozu horrela Gloriari?

Beñatek ez du hitz erdirik esaten. Zurbil-zurbil dago.

– Zer duzu, maitea? Esan lasai. Ez da ezer gertatzen...

– *Eske* aitak esaten du... –hasi da azkenean, zotinka, begirada mahaitik altxatu gabe.

– Zer esaten du aitak –adoretu du amak.

– Aitak esaten du zezenak baino adar handiagoak dauzkala, eta nik ez dizkiot inondik ikusten.

Isiltasuna egin da egongelan. Haurra negar betean hasi da; badaki zerbait gaizki egin duela. Segurolak blink edan du txupito patxarana. Sandra adi dago, zer harrapatuko, zer ulertuko. Arantxa postreko platerak jasotzen hasi da. Iñakik edalontzia bilatu du. Agurtzane mahaitik altxatu da eta Beñat eraman du negarrez, eskutik helduta. Mayo bekainak jasota geratu da, jaitsi ezinik bezala. Fidelek mahaiaren mantelean finkatuta dauka begiratua.

Altxatu egin da Gloria, eta berokiaren bila joan gabe atera da, atea danbateko ozenarekin itxiz.

– Gloria! –atzetik joan zaio Fidel korrika.

Ez neukan ohearen epelean lo egiteko esperantzarik eta sofan etzanda nengoen. Gloriak ez zuen nirekin hitz egin nahi izan, ez zituen nire erreguak entzun, ezta barkamen-eskaerak ere. Alferrik izan ziren ahalegin guztiak. Baziren lau ordu logelan itxita zegoela.

Bat-batean egongelan azaldu zen. Makillajearen arrastoak zeuzkan begi-masailetan. Buruko bat zekarkidan: bake-seinale bat?

– Eskerrik asko, maitea. Zer moduz zaude? Hobeto? Bihar hitz egingo dugu lasaiago, ados? Nahi duzu zerbait? Katilu bat esne bero? On egingo dizu... Nahi duzun moduan... Egin ezazu lo, bai, hori izango duzu onena, ni hemen geratuko naiz, bihar goizean hitz egingo dugu.

– Bai –eta musu eman zidan masailean. Lasaituta zirudien.

Musu leun horrek bigunduta soilik hartu ahal izan ninduen loak, Eurosporteko ping-pong partida amaiezin bati begira. Gogoratzen dut –zer diren gauzak– Saioarekin egin nuela amets.

Esnatu nintzenean, argitua zuen eguna, isiltasuna zen nagusi etxean, txoriak kantari kalean, eguzkitsu

zegoen. Logelara bideratu nituen urratsak lurra kontuz zapalduz, nire maitea esnatzeko beldurrez; goiz zen, artean.

Tira egin nion atearen maratilari, eta gure logelara sartu behar huts horrek susmo txarra eman zidan. Zer aurkituko nuen. Edo zer ez nuen aurkituko. Maratila askatu nuen, atzera. Bezperako elkarrizketarekin gogoratu nintzen -ping-pongaren tik-tak gorrotagarri hura hondoan-, eta bihozkada izan nuen ez nuela Gloria gehiago ikusiko, logelara sartu eta hutsik egongo zela ohea, hutsik egongo zirela armairu eta tiradera guztiak, buruz behera mesanotxeko bion argazkiak. Bat-batean susmoa izan nuen bezperako Gloriaren musua berarengandik jasoko nuen azkena izango zela, eta hitz hura, azken musua lagundu zuen baieztapen hura, agur esateko modu bat -agur amerikar bat- besterik ez zela izan. Gazia da izerdiaren zaporea. Ez aurrera ez atzera egon nintzen une batez. Mutur aurrean neukan ateak ito egiten zuen nire begirada, ordea. Maratilari tira egin, eta logelara sartu nintzen.